

Euskadiko Eskola Kontseilua

HEZKUNTZA EUSKADIN 2012-2013

1. Atala. Hezkuntza-sistemaren plangintza

Sarrera

1.1. Jaiotza kopurua Euskadin

1.2. Eskola matrikula

1.2.1. 0-2 tarte

1.2.2. 2 urtekoen irakasmaila

1.2.3. Matrikularen bilakaera etapan arabera eta haien banaketa hezkuntza sareetan eta itunpeko ikastetxeen elkartetan

1.2.4. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1.2.5. Curriculum anitzeko ikasleak

1.2.6. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)

1.2.7. Lanbide Heziketako lanbide-arloetako ikasleen kopurua eta lan-munduratzeari

1.2.8. Helduen hezkuntza iraunkorra (HHI)

1.3. Irakastereduak eta euskararen hizkuntza-adierazleak

1.3.1. Irakastereduak, geruzak eta euskalduntze-indizeak

1.3.2. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleak

1.4. Ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak

1.4.1. ISEK indizea

1.4.2. Dirulaguntzadun ikasleak

1.4.3. Atzerritar ikasleak

1.5. Araubide bereziko irakaskuntzak

1.5.1. Arte-irakaskuntza

1.5.2. Kirol-irakaskuntza

1.5.3. Hizkuntzen irakaskuntza

1.6. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE)

1.7. Ondorioak eta proposamenak

2. Atala. Ikastetxeetako prozesuak: ebaluazioa, berrikuntza, antolamendua

Sarrera

2.1 PISA 2012 ebaluazioa

2.1.1. Emaizen bilakaera ELGAren eta Espainiaren esparruan

2.1.2. Geruzen arabera analisiak

2.1.3. Ikasleen sexuaren eta jatorriaren eragina

2.2 2013ko ebaluazio diagnostikoa

2.2.1. ED 2013 ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

2.2.1.1. Emaizen bilakaera

2.2.1.2. Emaizei loturiko faktore nagusiak

2.2.1.3. Analisia geruzen, lurraldeen eta eskola-barrutien arabera

- 2.2.2. ED 2013 ebaluazioa DBHko 2. mailan
 - 2.2.2.1. Emaizen bilakaera
 - 2.2.2.2. Emaitei loturiko faktore nagusiak
 - 2.2.2.3. Analisia geruzen, lurraldeen eta eskola-barrutien arabera
- 2.2.3. Ikastetxeek ekartzen duten balio erantsiari buruzko ikerketa
- 2.3. Ikasleen ebaluazio akademikoa
 - 2.3.1. Emaiza akademikoak eta ondorengo etapetara igarotzea
 - 2.3.2. Analisia geruzen, lurraldeen eta eskola-barrutien arabera
 - 2.3.3. Barneko eta kanpoko ebaluazioen arteko aldea
- 2.4. Ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren ebaluazioa
- 2.5. Berrikuntza eta irakasleen prestakuntza ikastetxeetan
 - 2.5.1. Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak
 - 2.5.2. Berritzeguneek antolatutako prestakuntza jarduerak
 - 2.5.3. Garatu planeko ikastaroak
 - 2.5.4. Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioa
- 2.6. Ondorioak eta proposamenak

3. Atala. Hezkuntza-sistemaren finantzaketa eta baliabideak

- 3.1. Aldagai sozio-ekonomikoak eta hezkuntzaren finantzaketa
 - 3.1.1. Aldagai sozio-ekonomikoak Euskadin
 - 3.1.2. Hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak
- 3.2. . Hezkuntzaren gastua eta finantzaketa. Eustaten 2012 estatistikak
 - 3.2.1. Ikastetxe publiko eta pribatuen gastuak
 - 3.2.2. Ikastetxe publiko eta pribatuen diru-sarrerak
- 3.3. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak
 - 3.3.1. Hasierako aurrekontua eta betearazitako aurrekontua
 - 3.3.2. Aurrekontuen banaketa kapituluaren arabera
 - 3.3.3. Aurrekontuen banaketa programen arabera
 - 3.3.4. Unibertsitatez kanpoko programen banakapena, kapituluaren eta azpi-programen arabera
 - 3.3.5. 1. eta 6. atalen analisia: langile-gastuak eta ikastetxe publikoetako inbertsioak
 - 3.3.6. Ikastetxe pribatuekiko ituna
- 3.4. Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilaren analisia
 - 3.4.1. Plantilaren bilakaera; irakasle/gela eta ikasle/gela ratioen bilakaera
 - 3.4.2. Irakasle/gela ratioaren banaketa zenbait aldagairen arabera
 - 3.4.3. Irakasleen egonkortasuna
 - 3.4.4. Irakasleen adin-piramidea
 - 3.4.5. Irakasleen bajak
- 3.5. Ondorioak eta proposamenak

1. Gehigarria: "Hezkuntza eta Prestakuntza 2020" europar strategiaren adierazleak
2. Gehigarria: 2008-2010 eta 2010-2012 txostenetako proposamenen jarraipena

Eranskinak

Juan Carlos Castañoren botu partikularra

1. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

SARRERA

Txostenean plangintza izenburuko lehen atalari hasiera emateko jaiotza tasa aukeratu da eskola-matrikularen azterketarako abiapuntu gisa. Bigarren gai nagusia ikasleei dagozkien testuinguru-aldagaiak dira: sozio-ekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak. Bukatzeko, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE) analisia jaso da.

Metodologia dela eta, Kontseiluak duela hamar urte baino gehiagotik hona aztertu izan du aldagai horien banaketa geografikoa, egoera hobeto ulertzeko informazio gehigarria eskaintzen duelako. Banaketaren eremua *eskola-gunea* izan ohi da, Euskadiko eskola-mapak eskaintzen dituen banaketa-mailen arteko zehatzena baita. 56 eskola-gune dira, eta Bilboren kasuan, plangintza arrazoiengatik, moldaketa bat egin da, hiriaren zortzi barrutiak bereizi direlarik. Kontseiluak, ikastetxe bakoitzaren datuak eskuratzen dituenean, banaketa horren arabera sailkatzen ditu. 1.1 eranskinean eskola-guneen zerrenda azaltzen da, gune bakoitza osatzen duten udalerriekin.

Bestalde, ISEI-IVEIk txosten honetarako bidali duen dokumentazioa 22 *eskola-barrutitan* banaturik dago. Eskola-gune bakoitza zein eskola-barrutitan dagoen, eta zein Ikuskaritza zerbitzu eta zein Berritzegune dagokion, 1.1 bis eranskinean azaltzen da.

ISEI-IVEIk emandako testuinguru-adierazleetan adin tarte bakar bati edo irakasmaila bakar bati dagozkion datuak biltzen dira; hartara, adibidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ISEK indizea aipatzen da, edo 15 urteko ikasleen ehuneko zenbatek duen euskara etxeko hizkuntza bezala. Gure txostenetan ohikoak diren beste adierazle batzuk, hala nola atzerritar ikasleen ehunekoa, dirulaguntzadunen ehunekoa eta euskalduntze-indizea irakastereduen ondorioz, berriz, hezkuntza-etapa batzuetako ikasleen datuak biltzen dira. Adierazle horiek, beraz, hezkuntza-sistema oro har zehazkiago adierazten dute.

Hezkuntzaren plangintza osoan, kasu honetan bezala, erabili diren unitate geografikoetako datuak unitate geografiko (eskola-gune zein eskola-eremu) bakoitzeko ikastetxeei eta ikasleei buruzkoak dira, eta ez, aitzitik, bertako biztanleriari buruzkoak.


Azkenik, komenigarria litzateke “pribatu” eta “itunpeko” terminoen erabilerari buruzko aipamen bat egitea. Legeak funtsean bi motatako ikastetxeak bereizten ditu, hezkuntza-sarearen arabera: ikastetxe publikoak eta ikastetxe pribatuak. Ikastetxe pribatuei, hezkuntza-ituna sinaturik baldin badute, itunpeko ikastetxe deitzen zaie. Gaur egun Euskadin derrigorrezko hezkuntza-etapetan lau ikastetxe pribatuk bakarrik ez dute ituna sinaturik.

Ikastetxeen sailkapenari dagokionez, ikastetxe pribatu guztiak sartzen direneko estatistiketan, datuak izenburu horren pean bildu dira. Horrela dokumentu-iturriaren izenburua ere errespetatzen da: Hezkuntza Sailak estatistiketan ikasle, ikastalde eta abarri buruzko datuak izenburu horren pean bildurik adierazten ditu. Eustatek ere modu berean biltzen ditu ikastetxeetako gastuen eta abarren estatistiketan. Aitzitik, itunik gabeko ikastetxe pribatuek parte hartzen ez duteneko prozesuetan, hezkuntza-sare horretako datuak “itunpeko ikastetxeak” izenburupean adierazi dira, 2. atalean ebaluazioa eta berrikuntza aztertzean egin den bezala.

1.1 JAIOTZA KOPURUA EUSKADIN

Jaiotza kopuruak 2012. urtean izan zuen jaitsierak joera aldaketa bat adierazizuen, 2013an areagotu zena. Jaiotza kopurua 2008tik 2011ra egonkor mantendu zen, 21.000 jaiotza baino gehiago urtean, baina 2012an 20.533ra jaitsi zen (% 3,1), eta 2013an 19.024ra, % 7,3ko jaitsiera aurreko urtekoarekiko.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin azken hamabost urteetan



2.012an jaitsierarik handiena (% 4) Araban izan zen, eta 2013an, berriz, Gipuzkoan (% 9,3).


Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadiko hiru lurraldeetan 2011tik 2013ra

	2011	2012	2013	Δ 11-12	Δ 12-13
Araba	3.429	3.293	3.074	% -4,0	% -6,7
Bizkaia	10.687	10.342	9.691	% -3,2	% -6,3
Gipuzkoa	7.064	6.898	6.259	% -2,3	% -9,3
Euskadi	21.180	20.533	19.024	% -3,1	% -7,3

Jaitsiera hori ez dator bat atzerriko amengandik jaiotako haurren kopuruaren igoerarekin, 2012an Euskadiko guztizko jaiotza kopuruaren % 17 izan baitzen, eta 2013an, % 17,7.

Jaiotza kopuruaren bilakaera ezberdina izan da hiru hiriburuetan: Bilbon, 2008an gehieneko balioa izan ondoren, etengabeko jaitsiera luzea izan da, 2000ko balioetara heldu delarik; Vitoria-Gasteizen gehieneko balioa 2011n lortu zen, eta azken bi urteetan etengabe jaitsi da; Donostian, berriz, bilakaera egonkorragoa izan arren, azken urte honetan jaitsiera bat izan da.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadiko hiru hiriburuetan azken hamabost urteetan




2011-2013 aldian, 40.000 biztanletik gorako gainerako sei udalerrietan, jaiotza kopurua Getxon bakarrik igo da, Santurtzin % 20 baino gehiago jaitsi den bitartean, eta Basaurin, % 15 baino gehiago.

Jaiotza kopuruaren bilakaera 40.000 biztanletik gorako udalerrietan 2011tik 2013ra

	2011	2012	2013	Δ 11-12	Δ 12-13
Bilbo	2.927	2.807	2.687	% -4,1	% -4,3
Vitoria-Gasteiz	2.556	2.498	2.333	% -2,3	% -6,6
Donostia	1.503	1.560	1.415	% 3,8	% -9,3
Barakaldo	1.029	1.023	924	% -0,6	% -9,7
Getxo	634	634	647	% 0,0	% 2,1
Irun	612	587	536	% -4,1	% -8,7
Santurtzi	427	417	336	% -2,3	% -19,4
Portugalete	352	335	326	% -4,8	% -2,7
Basauri	317	296	269	% -6,6	% -9,1
Euskadi	21.180	20.533	19.024	% -3,1	% -7,3

Epe luzeagoko bilakaera aintzat harturik, Barakaldon, 2013an jaitsiera bat izan arren, jaiotza-tasa duela hamar eta hamabost urtekoa baino askoz altuagoa izan da, talde horretako gainerako bost udalerrietan ez bezala.

Jaiotza kopuruaren bilakaera 40.000 biztanletik gorako udalerrietan, hiriburuetan izan ezik, azken hamabost urteetan



1.2 ESKOLA-MATRIKULA

1.2.1. 0-2 tartea

Bi urtetik beherako haurren kopurua % 2,2 jaitsi da aurtengo ikasturtean bai ikastetxe publikoetan –Haurreskolak eta udal eskolak– bai ikastetxe pribatuetan –haur eskolak eta itunpeko ikastetxeak–, baina batez ere ikastetxe publikoetan.

0-2 tarteko matrikularen bilakaera Euskadin, hezkuntza-sareen arabera.

	2011-12	2012-13	Azken ikasturteko Δ
Publikoa	7.175	6.954	-221
Pribatua	6.584	6.501	-83
Guztira	13.759	13.455	-304

2012-13 ikasturtean adin horretako haur guztien¹ % 38,6 egon da eskolaturik ikastetxe horietan.

Lurraldeei gagozkielarik, jaitsierarik handiena Gipuzkoan izan da.

¹ 2011n jaiotako haur guztiak eta 2012an jaiotakoen bi heren hartu dira kontuan, haurrak bost hilabete bete ondoren bakarrik eskolatzen baitira

0-2 tarteko matrikularen bilakaera hiru lurraldeetan, hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteetan

		2011-12	2012-13	Azken ikasturteko Δ
Araba	Publikoa	1.536	1.459	-77
	Pribatua	586	702	116
	Guztira	2.122	2.162	40
Bizkaia	Publikoa	2.563	2.590	27
	Pribatua	3.611	3.586	-25
	Guztira	6.174	6.176	2
Gipuzkoa	Publikoa	3.076	2.903	-173
	Pribatua	2.287	2.215	-72
	Guztira	5.363	5.118	-245

0-2 tarteko matrikulak eskola-guneen arabera eta hezkuntza-sareen arabera izan duen banaketa 1.2 eranskinean azaltzen da.


1.2.2. Bi urtekoen irakasmaila

Bi urtekoen irakasmailan matrikula apur bat igo bada ere, *eskolatze-tasa* sei hamarren jaitsi da, % 93,2raino. Horren arrazoa 2010ean –2012-13 ikasturtean bi urtekoen irakasmailan matrikulatutako haurren jaioturtean– aurreko urtean baino jaiotza gehiago izatea izan da.

Bi urtekoen irakasmailako matrikularen bilakaera Euskadin, hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak

	2011-12		2012-13		Azken ikasturtea	
	Matrikula	% estaldura	Matrikula	% estaldura	Δ matrikula	Δ estaldura
Ikastetxe publikoak	10.990	% 52,5	10.932	% 51,7	-58	-0,8
Ikastetxe pribatuak	8.647	% 41,3	8.787	% 41,5	140	0,2
Guztira	19.637	% 93,8	19.719	% 93,2	82	-0,6

Irakasmaila honetan matrikularen igoera bat izan da ikastetxe pribatuetan, gehienak itunpekoak.



Bi urtekoen irakasmilian eskolatze-tasarik altuenak Gipuzkoan (% 95,2) eta Araban (% 94,7) izan dira, Bizkaikoa (% 91,4) baino nahiko altuagoak. Hala ere, matrikularen jaitsierarik handiena Gipuzkoan izan da. Bestalde, matrikula berriaren mugimendurik handiena hezkuntza-sare pribaturantz Araban izan da, ikastetxe publikoetako eskolatze-tasaren aldeko desoreka oraindik ere oso handia bada ere (% 60,5 ikastetxe publikoetan; 34,2 ikastetxe pribatueta).

Bi urtekoen irakasmilako matrikularen bilakaera Euskadin, lurraldeen eta hezkuntza-sareen arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak


		2011-12		2012-13		Azken ikasturtea	
		Matrikula	%eskolatze-tasa	Matrikula	% eskolatze-tasa	Δ matrikula	Δ eskolatze-tasa
Araba	Publikoa	2.077	% 64,4	2.026	% 60,5	-51	% -3,9
	Pribatua	986	% 30,6	1.143	% 34,2	157	% 3,6
	Guztira	3.063	% 95,0	3.169	% 94,7	106	% -0,3
Bizkaia	Publikoa	5.169	% 49,0	5.208	% 49,1	39	% 0,1
	Pribatua	4.484	% 42,5	4.476	% 42,2	-8	% -0,3
	Guztira	9.653	% 91,5	9.684	% 91,4	31	% -0,1
Gipuzkoa	Publikoa	3.744	% 52,3	3.698	% 51,3	-46	% -1,0
	Pribatua	3.177	% 44,3	3.168	% 43,9	-9	% -0,4
	Guztira	6.921	% 96,6	6.866	% 95,2	-55	% -1,4

Eskolatze-tasaren banaketa mapako eskola-guneetan (1. mapa eta 1.3 eranskina) aztertzen badugu, ikasleak euren bizilekuaren eskola-gunetik hezkuntza-eskaintza handia duten eskola-guneetara lekualdatzen direla ikus daiteke; Txorierrin, Uribarrin eta Amorebietan ikasle kopurua adin horretako bertako biztanle kopuruaren % 120 baino handiagoa izan da.


Beste muturrean, maila sozio-ekonomiko apala duten eskola-guneetan adibidez Errekalden, Basurtu-Zorrotzan, Erandion, Donostia-Ekialdean edo Hernanin, eskola-guneko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle kopurua adin horretako bertako haurren % 75 baino txikiagoa izan da.

Eskola-gune bateko eskola-plazen eskasia edo nahikotasuna hein handi batean azal dezakeen aldagaia ikasgeletako **okupazio-tasa** da. Eskola-plazen gehieneko kopurua ikastaldeko 18 dela (% 100eko okupazio-tasa) kontuan izanik, eta irakastereduak kontuan hartu gabe, Euskadi osoko batez besteko okupazio-tasa % 91 izan da, 2. mapan eta 1.4 eranskinean ikus daitekeen bezala. Bi hezkuntza-sareak batera harturik, zenbait eskola-gunetan okupazio-tasa % 100ekoa edo handiagoa izan da, hala nola Nerbioaren ezker aldeko eskola-gune guztietan –Barakaldo (% 112), Cruces, Santurtzi, Portugalete eta Sestao–, Bilboko bi barrutitan –Abando eta Txurdinaga–, Ermuan, Andoainen, Basaurin eta Ekialdeko lautadan.

1. mapa. Bi urtekoen irakasmaila. Eskolatze-tasa: 2010ean jaiotakoen artean, eskola-guneko ikastetxeetan eskolatutako haurren ehunekoa. 2012-13



2. mapa. Bi urtekoen ikasgelen okupazio-tasa, eskola-guneen arabera. Ikastetxe guztiak. 2012-13 ikasturtea (gehieneko kopurua: 18 plaza ikasgelako)




1.2.3. Ikasle kopuruaren bilakaera etapan arabera eta haien banaketa hezkuntza sareetan eta itunpeko ikastetxeen elkartean

Hezkuntza-etapa guztietan zehar azterketa bat egin da, bakoitzean ikasleen bilakaera orokorra eta ikasleen banaketa hezkuntza sareetan ezagutzeko. Hiru lurraldeetako datuen banaketa orokorra 1.5, 1.6 eta 1.7 eranskinetan azaltzen da.

- **Haur Hezkuntzako 2. zikloa**


Matrikulatutako ikasleen gehieneko kopurua 63.569 izan zen, % 0,6ko igoera txiki baten ondorioz.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Lurraldeen arabera banaketan, Araban hezkuntza-sare publikoaren kuota handitu egin zen % 60 baino gehiagokoa izatera heldu delarik, 2 urtekoen irakasmailakoa bezainbestekoa. Euskadi osoan hezkuntza-sare publikoak igoera txiki bat izan du eta kuota % 52koa izan da (hezkuntza-sare pribatuaren kuota % 48koa izan da).


Haur Hezkuntzako 2. zikloko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Azken hamarkadako bilakaera



- **Lehen Hezkuntza**


Hezkuntza-etapako matrikula % 1,5 igo da aurreko ikasturteko matrikularekiko, eta 122.139 ikaslarekin segida historikoko baliorik handiena izan du.

Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Ikasleen banaketa ia berdina izan da bi hezkuntza-sareetan, hezkuntza-sare publikoaren kuota % 50,3 izan baita. Araban hezkuntza-sare publikoaren pisua % 60 inguruan mantendu da


Lehen Hezkuntzako matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuak. Azken hamarkadako bilakaera



- **DBH**


Matrikulak igoera handia (% 2,5) izan du, eta 73.940 ikasle matrikulatu baitira, aurreko ikasturteetako joerari jarraituz.

DBHko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-etapa honetan itunpeko ikastetxeetako matrikula (% 54) ikastetxe publikoetakoa baino handiagoa izan da, eta egonkor mantendu da aurreko ikasturteko matrikularekiko.


DBHko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Azken hamarkadako bilakaera



Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikasleen banaketa geografikoan, bi hezkuntza-sareetako matrikulen arteko aldeak oso handiak izan dira hezkuntza-gune batzuetan (3. mapa eta 1.8 eranskina).

Mutur batean, eskola-gune batzuetan ikastetxe publikoen eskaintza baino ez zegoen, hala nola Igorre, Basurtu-Zorrotza eta Arabako Mendiak; eta beste muturrean, zenbait eskola-gunetan ikasleen % 70 baino gehiago itunpeko ikastetxeetan matrikulaturik zeuden, adibidez, Andoain (% 85), Txorierri (% 83), Abando, Uribarri, Cruces edo Amorebieta.


3. mapa. Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, eskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea.



- **Batxilergoa**


Matrikula modu nabarmenean hazi da (% 1,6) lehenengoz, 29.444 ikasle matrikulatu baitira.

Batxilergoko ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-sareei dagokienez, sare publikoko matrikulak jaisten jarraitu du, batez ere Araban. Euskadi osoan ikastetxe-publikoetako matrikularen jaitsiera % 0,8koa izan da, matrikula osoaren % 51,4ra heldu arte.

Batxilergoko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Azken hamarkadako bilakaera.



- **Lanbide Heziketa**


Lanbide Heziketako bi mailetan matrikularen igoera handia izan da. Erdi Mailan matrikularen igoera % 6,1ekoa izan da, ikasle kopurua 12.718raino heldu delarik. Goi Mailan matrikularen igoera % 7,5ekoa izan da, 19.016 ikasle matrikulatu baitira.

Lanbide Heziketako Erdi Mailako eta Goi Mailako ikasle kopuruaren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-sareen arteko banaketari dagokionez, ikastetxe publikoetako matrikulan igoera bat izan da, sare publikoaren kuota % 57,7ra heldu delarik.


Lanbide Heziketa osoko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatueta lurraldean arabera. Azken hamarkadako bilakaera



- **Etapaz guztiak**


Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapa guztietan 2012-13 ikasturtean oro har ikasle kopurua % 1,8 hazi da; guztira 353.970 ikasle matrikulatu dira.

Hezkuntza-etapa guztietako ikasle kopuru orokorraren bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Hezkuntza-sareen arteko banaketari dagokionez, oro har hezkuntza-sare bakoitzeko matrikularen joera aztertutik, aurreko ikasturtearekiko ia aldaketarik ez dela egon ikus daiteke. Ikasle guztien % 50,8 ikastetxe publikoetan matrikulaturik egon da.

Hezkuntza-etapa guztietako (Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) matrikula orokorraren ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuak lurraldean arabera. Azken hamarkadako bilakaera



2012-13 ikasturteko matrikularen igoera antzerakoa izan da ikastetxe publikoetan eta ikastetxeen multzo osoan (% 1,9). Hezkuntza-sare pribatuan ere matrikula igo egin da, bai Kristau Eskola ikastetxe elkartean (% 1,3) baita Partaide elkartean (% 2,2) eta gainontzeko ikastetxeetan (% 2,0).

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetako (0-19) ikasle kopuru orokorraren banaketa hezkuntza-sareetan eta itunpeko ikastetxeen elkartean. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteen arteko bilakaera

Ikastetxe mota	Ikasle kopurua			Sistema osoaren %
	2011-12	2012-13	Azken ikasturteko Δ	2012-13
Publikoak	176.487	179.891	% 1,9	% 50,8
Kristau Eskola	87.788	88.938	% 1,3	% 25,1
Partaide	40.237	41.135	% 2,2	% 11,6
Gainerako pribatuak	43.144	44.006	% 2,0	% 12,4
Ikastetxe guztiak	347.656	353.970	% 1,8	% 100,0

Kristau Eskola elkartek unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapa guztietako ikasleen % 25,1 eskolatu ditu, eta Partaide elkartek, % 11,6.

1.2.4. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Hezkuntza-premia berezietako (h.p.b) ikasleek, euren ikastaldeko ohiko irakasleengandik eskolak hartzeaz gain, Pedagogia Terapeutikoko (PTE) eta Entzumena eta Hizkuntzako (ALE) espezialisten laguntza ere jasotzen dute; irakasleak ez diren beste profesional batzuek ere ("hezkuntza-laguntzako espezialistak" deituak) parte hartzen dute ikasle horien arretan.

Kasu gehienetan *ohiko ikasgeletan eskolatutako ikasleak* izaten dira. 2012-13 ikasturtean hezkuntza-premia berezietako ikasleak 11.653 izan dira, bi urtekoen irakasmaitatik DBHaren bukaeraraino eskolatutako ikasle guztien % 4,2. Hezkuntza-premia berezietako ikasleen ehunekoa handiagoa izan da ikastetxe publikoetan (% 5,2) ikastetxe pribatuetan baino (Kristau Eskola, % 3,1; Partaide, % 3,1; gainontzeko ikastetxeak, itunpekoak gehienak, % 2,7). Ikasle guztien heren bat neskak ziren.

Ohiko ikasgeletan eskolatutako hezkuntza premia bereziko ikasleen kopurua, ikasle kopuru orokorrarekiko ehunekoa eta emakumezkoen ehunekoa ikastetxe motaren arabera. 2012-13 ikasturtea

	H.p.b.-ko ikasle kopurua (integratuak)	2-16 urteko ikasle guztiak	H.p.b.-ko ikasleak (integ.). (% ikasle guztiekiko)	Emakumezkoak(%)
Publikoak	7.235	139.513	% 5,2	% 33
Kristau Eskola	2.509	74.480	% 3,4	% 35
Partaide	1.143	36.719	% 3,1	% 33
Gainerako pribatuak	766	28.625	% 2,7	% 30
Ikastetxe guztiak	11.653	279.337	% 4,2	% 33

Beste alde batetik, adimen urritasun larria edo nortasun-nahaste larria duten ikasleak *hezkuntza bereziko gela iraunkorretan* edota hezkuntza bereziko

ikastetxeetan eskolatzen dira. Derrigorrezkoaren osteko hezkuntzan Zereginen Ikaskuntzarako Geletan oinarritzko gaitasunak garatzen dituzte modu autonomoan bizitzeko eta lanerako prestatzeko.

Ikasle horietako gehienak ikastetxe publikoetan eta hezkuntza bereziko ikastetxe pribatu berezietan eskolaturik daude.

Hezkuntza Bereziko gela iraunkorren kopurua eta ikasleen kopurua, hezkuntza motaren eta ikastetxe motaren arabera. 2012-13 ikasturtea

	Publikoak		Kristau Eskola		Partaide		Ikastetxe bereziak		Ikastetxe guztiak	
	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.
Hasierako etapak	126	32	15	3	3	1	329	77	473	113
DBH	142	32	14	3	0	0	78	21	234	56
Zereginen Ikaskuntzarako Gelak	277	37	41	5	4	1	135	17	457	60
Guztira	545	101	70	11	7	2	542	115	1.164	229

1.2.5. Curriculum anitzeko ikasleak

DBHko 2. zikloan ikasle guztien % 5,4 egon da eskolaturik curriculum anitzeko ikastaldeetan. Ehunekoa askoz handiagoa izan da ikastetxe publikoetan (% 8,4) ikastetxe pribatuetan (% 2,9) baino, eta apur bat jaitsi da aurreko ikasturteko ehunekoekiko bi hezkuntza-sareetan.

Curriculum anitzeko ikasleen kopurua eta ehunekoa hezkuntza-sareetan. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 ikasturtea			2011-12 ikasturtea Curriculum anitzeko ikasleak (%)	Azken ikasturteko Δ
	Curriculum anitzeko ikasleak	DBHko 2. zikloko ikasle guztiak	Curriculum anitzeko ikasleak (%)		
Ikastetxe publikoak	1.282	15.274	% 8,4	% 8,7	-0,3
Ikastetxe pribatuak guztira	548	18.893	% 2,9	% 3,3	-0,4
Kristau Eskola	447	10.787	% 4,1	% 4,6	-0,5
Partaide	45	4.481	% 1,0	% 1,1	-0,1
Gainerako elkarteak	56	3.625	% 1,5	% 1,8	-0,3
Guztira	1.830	34.167	% 5,4	% 5,7	-0,3

Eskola-gune batzuetan curriculum anitzeko ikasleen ehunekoa batez bestekoa baino askoz handiagoa izan da, adibidez, Abanto (% 16), Igorre (% 14), Bermeo eta Laudio. Haien arteko batzuk ISEK indize apalekoak dira, hala nola Erandio (% 17), Basurtu-Zorrotza (% 16), Vitoria-Iparralde (% 12), Ermua eta Araba-Mendebalde. Eskola-guneen zerrenda osoa 1.10 eranskinean azaltzen da.

Curriculum anitzeko ikasleen ehunekorik handiena duten eskola-guneak. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa.

	2012-13 ikasturtea			2011-12 ikasturtea Curriculum anitzeko ikasleak (%)	Azken ikasturteko Δ
	Curriculum anitzeko ikasleak	DBHko 2. zikloko ikasle guztiak	Curriculum anitzeko ikasleak (%)		
Erandio	37	222	% 17	% 14	3
Basurtu-Zorrotza	12	74	% 16	% 21	-5
Abanto	48	304	% 16	% 14	2
Igorre	22	162	% 14	% 14	0
Vitoria-Iparr.	97	800	% 12	% 12	0
Bermeo	26	244	% 11	% 11	0
Laudio	33	353	% 9	% 10	-1
Ermua	17	207	% 8	% 14	-6
Araba Mendeb.	8	96	% 8	% 9	-1
Euskadi	1.830	34.167	% 5,4	% 5,7	-0,3

1.2.6. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)

LOE lege organikoan (30. art) Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP) DBH barruan sartzen dira. Hala ere, programen berezitasunak kontuan izanik, euri buruzko datuak aparte aurkeztu dira.

2012-13 ikasturtean 4.484 ikasle matrikulatu dira; matrikula % 1,8 igo da aurreko ikasturtetik. Udal ikastetxeetako ikasle kopurua nahiko jaitsi da, eta itunpeko eta bestelako ikastetxeetako, berriz, igo, HLPP Bilbo eta HLPP Gasteiz ikastetxeak hezkuntza-sarek aldatu baitira. 2012-13 ikasturtean, HLPPko 34 ikastetxe publikoetatik 26 udal ikastetxeak ziren².

HLPPko ikastetxe, talde eta ikasle kopurua ikastetxe motaren arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak

	Ikastetxe kopurua		Talde kopurua		Ikasle kopurua	
	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13
Itunpekoak eta elkarteak	33	34	167	201	2.151	2.628
Udal ikastetxeak	28	26	166	134	2.042	1.636
Gainerako publikoak	8	8	19	20	211	220
Guztira	69	68	352	355	4.404	4.484

²HLPPko udal ikastetxeak honako hauek dira Andoain, Arrasate, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Donostia, Durango, Eibar, Erandio, Ermua, Gernika-Lumo, Getxo-Leioa, Hernani, Irun, Laudio, Mungia, Ordizia, Ortuella, Pasaia, Portugalete, Errearteria, Santurtzi, Sestao, Tolosa, Usurbil eta Zumaia.

Lurraldeen araberako banaketan, Bizkaiak matrikula osoaren % 61 hartu du, lurralde horretan autonomia erkidegoko adin horretako biztanleria osoaren % 51 bakarrik bizi den arren. Bizkaian, beraz, ikasketa horiek egin dituzten ikasleen ehunekoa handiagoa izan da gainontzeko bi lurraldeetan baino.

HLPP. Udalerri, ikastetxe, talde eta ikasle kopurua lurraldeen arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak

	<i>Udalerri kopurua</i>		<i>Ikastetxe kopurua</i>		<i>Talde kopurua</i>		<i>Ikasle kopurua</i>	
	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>
Araba	6	6	14	13	50	51	643	656
Bizkaia	20	20	31	31	213	212	2.716	2.709
Gipuzkoa	14	14	24	24	89	92	1.045	1.119
Euskadi	40	40	69	68	352	355	4.404	4.484

HLPPko ikastetxeak 40 udalerritan sakabanaturik daude, eta aipatu beharrekoa da Bilbon 1.301 ikasle matrikulatu direla, Euskadi osoko ikasleen % 29.

HLPPko ikasle gehien duten udalerrriak. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak

	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>
Bilbo	1.314	1.301
Vitoria-Gasteiz	521	527
Donostia	421	465

Espezialitaterik hautatuenak honako hauek izan dira: Sukaldeko eta zerbitzuko langilea (546); Ile-apainketako laguntzailea (465); eta Soldadurako langilea, Ibilgailuak konpontzeko langilea, Instalazio elektrikoetako langilea, guztiak 300 ikasle baino gehiagorekin.

HLPPko talde kopurua, ikasle kopurua eta nesken ehunekoa espezialitateen arabera. 2012-13 ikasturtea

	<i>Talde kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>	<i>Neska kopurua</i>	<i>Neskak (%)</i>
Sukaldeko eta zerbitzuko langilea	40	546	190	35
Ile-apainketako laguntzailea	36	465	426	92
Soldadurako langilea	30	365	15	4
Ibilgailuak konpontzeko langilea	25	334	10	3
Instalazio elektrikoetako langilea	33	339	22	6
Zurezko arotzeriako fabrikazioko, muntaiako eta akaberetako langilea	24	294	16	5
Saltegiko eta biltegiko laguntzailea	20	267	179	67
Iturgintzako langilea	20	243	11	5
Mekanizazioko langilea	18	223	19	9
Etxeko jardueretako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea	15	191	154	81
Oinarritzko administrazio-prozesuetako laguntzailea	12	153	99	65
Okintzako langilea	10	152	36	24
Arotzeriako langilea	12	141	8	6
Ekipo mikroinformatikoak mantentzeko langilea	10	121	11	9
Guztira	355	4.484	1.305	% 29

Sexuaren aldagaiari dagokionez, gizonezkoen matrikula (% 71) emakumezkoena baino askoz handiagoa izan dela ikus daiteke, gizonezkoen kasuan DBHko graduazio-tasa txikiagoa izatearen ondorioz (ikus 2. atala) eta, baita ere, irakasmila errepikatze-indizea handiagoa izatearen ondorioz.

Ikuspegi orokor horren barnean, ikasleen banaketa HLPPko espezialitateetan sexuaren arabera oso desorekatua izan da. Espezialitate batzuetan emakumezkoak nagusi izan dira: Ile-apainketako laguntzailea (% 92), Etxeko jardueretako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea (% 81), Saltegiko eta biltegiko laguntzailea (% 67), Oinarritzko administrazio-prozesuetako laguntzailea (%65). Beste espezialitate batzuetan, berriz, nesken presentzia urria ez da % 10era heldu: Ibilgailuak konpontzeko langilea, Soldadurako langilea, Iturgintzako langilea, Zurgintzako langilea, Mekanizazioko langilea.

Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeko prestakuntzari dagokionez, 2011-12 ikasturteko datuen arabera, ikasleen % 62k borondatezko moduluak ikasten zituen, ehunekoa Espainiako batez bestekoa baino bi aldiz handiagoa izanik; Graduatu titulua lortzeko probak % 30ek gainditu zituen, eta praktikak egin ondoren % 68k profesionaltasun-egiaztagiria lortu zuen.

1.2.7. Lanbide Heziketako lanbide-arloetako ikasleen kopurua eta lan-munduratzeara

Arestian aipatu da Lanbide Heziketako ikasle kopurua erritmo biziz handitu dela azken ikasturteetan. 2012-13 ikasturtean 31.734 ikaslek egin zituzten ikasketa horiek, 25 lanbide-arlotan banaturik (zerrenda osoa 1.11 eta 1.12 eranskinetan azaltzen da).

Lau lanbide-arloko matrikula osoaren % 10 baino gehiago hartu dute: Fabrikazio mekanikoa, Elektrizitatea eta elektronika, Administrazioa eta kudeaketa eta Osasungintza. Gainera, Goi Mailan Gizarte eta kultur zerbitzuak eta Informatika eta komunikazioak izan ziren eskatuenak, eta Erdi Mailan, Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak.

Lanbide Heziketako arlorik eskatuenetako ikasle kopurua eta nesken ehunekoa mailaren arabera eta hezkuntza-sarearen arabera. 2012-23 ikasturtea


Lanbide-arloak	LHErdi Maila		LHGoi Maila		Ikastetxe mota		Guztira
	Ikasle kop.	Nesken %	Ikasle kop.	Nesken %	Publik.	Itunpek.	
Fabrikazio mekanikoa	1.759	% 5	1.978	% 10	2.154	1.583	3.737
Elektrizitatea eta elektronika	1.392	% 3	2.258	% 6	2.157	1.493	3.650
Administrazioa eta kudeaketa	976	% 69	2.323	% 67	1.656	1.643	3.299
Osasungintza	1.923	% 82	1.342	% 77	1.575	1.690	3.265
Gizarte eta kultura zerbitzuak	571	% 80	2.377	% 84	1.795	1.153	2.948
Informatika eta telekomunikazioak	808	% 12	1.575	% 16	1.180	1.203	2.383
Garraioa eta ibilgailuak mantentzea	1.058	% 3	530	% 2	1.038	550	1.588
Ostalaritza eta turismoa	727	% 32	845	% 53	990	582	1.572
Instalazioak eta mantentzea	623	% 3	728	% 2	897	454	1.351
Merkataritza eta marketina	272	% 60	979	% 54	661	590	1.251
Irudi pertsonala	865	% 97	315	% 98	538	642	1.180
Jarduera fisikoak eta kirolak	186	% 18	762	% 18	642	306	948
Gainerako 13 lanbide-arloak	1.558	% 22	3.004	% 31	2.982	1.580	4.562
Guztira	12.718	% 36,2	19.016	%39,7	18.265	13.469	31.734

Erdi Mailako zikloetan neskak, batez beste, ikasle guztien % 36,2 izan dira, eta Goi Mailako zikloetan, % 39,7. Zenbait lanbide-arlo mutilen bereizgarriak izan ohi dira, ikasleen % 90 baino gehiago mutilak izaten baitira, hala nola Instalatze eta mantentze lanak, Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak, Elektrizitatea eta elektronika eta Fabrikazio mekanikoa. Beste arlo batzuetan, berriz, neskak askoz gehiago izaten dira, adibidez, Irudi pertsonala, Gizarte eta kultur zerbitzuak, Osasungintza eta Administrazioa eta kudeaketa.

Graduatu berrien lan-munduratzeari dagokionez, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) 2010-11 ikasturtean Lanbide Heziketako gradu bat bukatu zuten ikasleei egindako inkestaren emaitzak argitaratu ditu.

Inkesta titulua lortu ondorengo 9-12 hilabeteetan egin zen, eta 8.649 erantzun jaso ziren, graduatu berrien % 86,5enak. Erantzun zuten ikasleen % 39k lanean ziharduen (enplegu tasa), % 35ek ikasketak egiten jarraitzen zuen, eta % 25 lana aurkitzen saiatu zen, baina langabezian zegoen.

Lanbide Heziketako maila bat (erdikoa edo goikoa) 2007 eta 2011 bitartean bukatu eta urte bat geroago ikasten jarraitzen zuten, lanean ziharduten eta langabezian zeuden ikasleen kopurua



Ehuneko horiek aurreko urteetako antzekoak dira. Lanbide Heziketako graduatu berrien artean enplegu-tasaren jaitsiera 2007an eta 2008an izan zen.

2011ko promozioan enplegu-tasarik altuena izan zuten lanbide-arloak Ostalaritza eta turismoa (% 49), Fabrikazio mekanikoa (% 47) eta Irudi pertsonala (% 47) izan ziren. Beste muturrean, berriz, Komunikazioa, irudia eta soinua (% 25), Eraikuntza eta obra zibila (% 26) eta Informatika (% 28) egon ziren.

1.13 eranskinean lanbide-arlo guztietako jarduera-tasaren (lan bila ari direnak) eta enplegu-tasaren zerrenda osoa azaltzen da 2007, 2009 eta 2011ko inkestetako datuen arabera.

Ikasten jarraitzen zuten ikasleen kasuan, heren batek baino gehiago (% 35) Erdi Mailako gradu bat bukatua zuten eta lanbide-arlo bereko Goi Mailako gradu bat ikasten ari ziren; % 17 Lanbide Heziketako beste arlo batean matrikulaturik zegoen. Gainontzekoen artean, gehienak (% 28) unibertsitate mailako ikasketak egiten ari ziren.

2010-11 ikasturtean Lanbide Heziketako maila bat bukatu ondoren ikasten jarraitzen duten ikasleen kopurua ikasketa motaren arabera

<i>Ikasketa mota</i>	<i>K</i>	<i>%</i>
LHko lanbide-arlo bereko Goi Maila	1.050	% 35
LHko beste lanbide-arlo bat	504	% 17
Unibertsitateko ikasketak	851	% 28
Beste batzuk	622	% 21
Ikasten jarraitzen dutenen kopurua, guztira	3.027	% 100

1.2.8. Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI)

Helduen Hezkuntza Iraunkorra Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua lortu ez duten 18 urtetik gorako pertsonentzat da, salbuespen gisa sartzeko adina 16 urtera jaitsi daitekeen arren.

Ikasketa horien helburua anitza da, ikasleen ezaugarrien arabera; ikasle bakoitzaren ibilbidea hasierako ebaluazioan oinarriturik finkatzen da.

Bi modalitate daude: hezkuntza arautua eta hezkuntza ez-arautua. Hezkuntza arautua hiru gradutako moduluetan antolaturik dago:

- I. gradua, alfabetatze funtzionalera bideratua.
- II. gradua, ezagupenak eta konpetentzia orokorrak sendotzera bideratua.
- III. gradua, Graduatu titulua lortzera bideratua.

Graduek normalean bi ikasturteko iraupena izaten dute, baina moldagarriak dira. Curriculum hiru arloren inguruan finkatzen da: komunikazio arloa, gizarte arloa eta zientzia-teknologia arloa.

a) Helduen hezkuntza arautua

Matrikularen jaitsiera bat (% 1,9) izan da; 19.219 ikasle matrikulatu dira, sexuen artean % 50ean banaturik. Eskaintza ia gehiena ikastetxe publikoetan izan da.

HHI arautua. Ikastetxe, talde eta ikasle kopurua ikastetxe motaren arabera. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 ikasturtea			2011-12 Ikasle kopurua	Azken ikasturteko Δ
	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		
Publikoak	32	750	18.871	19.119	% -1,3
Itunpekoak	8	22	348	472	% -26,3
Guztira	40	772	19.219	19.591	% -1,9

Lurraldeen arabeko banaketan, jaitsiera Bizkaian (% 2,5) handixeagoa izan da.

HHI arautua. Ikasle kopurua graduaren eta lurraldearen arabera. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 ikasturtea				2011-12 HHI arautua guztira	Azken ikasturt. Δ
	I. gradua	II. gradua	III. gradua	HHI arautua guztira		
Araba	1.397	494	1.665	3.556	3.576	% -0,6
Bizkaia	3.080	2.594	4.116	9.790	10.037	% -2,5
Gipuzkoa	2.272	1.460	2.141	5.873	5.978	% -1,8
Euskadi	6.749	4.548	7.922	19.219	19.591	% -1,9

b) Helduen hezkuntza ez-arautua

Hezkuntza ez-arautuaren barruan hainbat ikastaro eskaini dira: gaztelaniazko ikastaroak atzerriarrentzat, unibertsitaterako sarrera-proba prestatzeko 25 eta 45 urtetik gorakoentzat, goi mailako prestakuntza zikloetara sartzeko proba prestatzeko, eta euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, kultura orokorra eta abar ikasteko programa batzuk.

Ikastetxe publikoetan bakarrik eman da, eta ikasleen % 69 emakumezkoak ziren. 2012-13 ikasturtean ikasle kopurua nahiko igo da (% 12), 12.249 ikasle matrikulatu baitira. Gipuzkoaren kasuan igoera % 18ra heldu da.

HHI ez-arautua. Ikastetxe, talde eta ikasle kopurua lurraldeen arabera. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 ikasturtea			2011-12 Ikasle kopurua	Azken ikasturt. Δ
	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		
Araba	1	75	1.714	1.589	% 8
Bizkaia	14	294	6.564	5.952	% 10
Gipuzkoa	13	170	3.971	3.365	% 18
Guztira	28	539	12.249	10.906	% 12

1.3. IRAKASTEREDUAK ETA EUSKARAREN HIZKUNTZA-ADIERAZLEAK

Oraingo txostenean bi adierazle erabili dira, biak aurreko txostenetan erabiliak. Lehen, irakastereduetako euskalduntze-indizea da, testuinguru bakoitzean duten banaketan oinarritua, 0tik 100erako eskala batean jasotzen dena. Bigarren adierazlea ISEI-IVEIk PISA ebaluazioetako probetan erabiltzen duen adierazlea da, etxeko hizkuntza bezala euskara erabiltzen duten ikasleen ehunekoa alegia.

1.3.1. Irakastereduak, geruzak eta euskalduntze-indizea


Familiek irakastereduen artean egiten duten hautaketa gero eta gehiago bideratzen da euskalduntze-prozesua gehien errazten duten irakastereduen alde. Haur Hezkuntzan eskolatzearen hasieran egiten duten aukera goragoko hezkuntza-etapetan zehar ere mantendu ohi da, eta oso ikasle gutxik aldatzen du irakasteredua derrigorrezko hezkuntza bukatu baino lehen.

DBHaren ostean B eredia desagertzen da, eta, beraz, aukera gainerako bi irakastereduen artekoa da³. Beste alde batetik, euskarazko irakaskuntza Lanbide

³Derrigorrezkoaren Osteko Hezkuntzako ikastetxe batzuetan beste irakasteredu bat eskaintzen da: irakasgai gehienak gaztelaniaz irakasten dira, baina batzuk euskaraz. Irakasteredu hori B ereduarekin batera sartzen da, eta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikasleen % 2 hartzen du.


Heziketan gainerako etapetan baino askoz urriagoa da. Hori dela eta, 2012-13 ikasturtean ikasleak *hezkuntza-sistemako ikastetxe guztiak* kontuan izanik irakastereduetan nola banatu diren begiratzen badugu, hasierako etapetan (Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta DBH), hurrenez hurren, ikasleen % 73, % 67 eta % 59 D ereduari matrikulatu direla ikusten da, irakasteredurik aukeratuena zalantzarik gabe. Beste muturrean, berriz, A ereduari, Haur Hezkuntzako 2. zikloan ikasleen % 5 bakarrik matrikulatu da. (1.14 eranskina).

Hezkuntza-etapetako ikasleen banaketa irakastereduetan. Ikastetxe guztiak. 2012-13 ikasturtea




Irakastereduen eta hezkuntza-sareen arteko konbinazioa, *sare-eredu geruza* deitu izan zaiona, kontuan hartzen bada, Haur Hezkuntzako 2. ziklotik DBHra bitarteko etapetan hezkuntza-sistema osoko ikasleen ehunetik altuena D eredu publikoaren geruzak hartu duela ikus daiteke, gero D eredu pribatuaren geruzak eta B eredu pribatuarenak. Gainerako hiru geruzek –B eredu publikoa, A pribatua eta A publikoa– Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasle guztien % 10 ere ez dute hartu, eta hurrengo etaparako joera etapa horretan finkatzen da. Izan ere, A eredu publikoaren geruza hondar-geruza da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, hurrenez hurren, ikasleen % 0,9 eta % 1,5 baino ez baitu hartu.

Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen banaketa hezkuntza-sare/irakasteredu sei geruzetan. 2012-13 ikasturtea



Sei geruzetako banaketa derrigorrezkoaren osteko etapetan galdu egiten da, etapa horietan B eredurik ez dagoelako. Hala eta guztiz ere, itunpeko ikastetxeetan ikasleen ehuneko txiki bat (% 1,6) B eredu pribatuan matrikulatuta egon da. Batxilergoan, geruzarik hautatuena D eredu publikoarena izan da, hezkuntza-sistema osoko ikasleen % 35,4 hartu baitu. Lanbide Heziketan, berriz, irakasteredurik hautatuena A ereduaren izan da bi hezkuntza-sareetan.

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen banaketa hezkuntza-sare/irakasteredu geruzetan. 2012-13 ikasturtea



Bestalde, irakastereduen banaketari dagokionez, bai hezkuntza-sare batean bai eskola-gune batean, Kontseiluaren txostenetan *Irakastereduengatik euskalduntze-indizea* izeneko adierazlea erabili izan da. Adierazleak hiru irakastereduen ehuneko banaketa 0tik 100erako eskala bateko zenbakizko balio batekin adierazten du, konparazioa eta bilakaeraren analisia erraztuz.


Eskola-gune batean ikasle guztiak D ereduan matrikulaturik baleude, eskola-gune horrek eskalan 100eko balioa izango luke. Ikasleen erdia A ereduan eta beste erdia D ereduan matrikulaturik baleude, eskola-guneak 50eko balioa izango luke, ikasle guztiak B ereduan matrikulaturik baleude izango lukeen bezainbestekoa.

Euskalduntze-indizea DBH hezkuntza-etaparako kalkulatu da, gorabeherarik handienak dituen etapa delako eta, beraz, aldaketak etapa horretan handiagoak izaten direlako. Derrigorrezko hezkuntzaren azken etapa denez, aurreko ikasturteetan beheragoko etapetan izandako aldaketak argi erakusten ditu.


Indizeak hezkuntza-sistema osoan izan duen banaketa 4. mapan (eta 1.15 eranskinean) azaltzen da eskola-guneen arabera. Hezkuntza-sareetako indizeen arteko aldeak 5. mapan azaltzen dira.

Lehenengo kasuan honako hau ikus dezakegu: bost eskola-gunetan (Urola Erdia, Tolosa, Bermeo, Lea Artibai eta Igorre) DBHko ikasle guztiak D ereduan matrikulaturik egon dira (100eko indizea), eta beste 17 eskola-gunetan indizea 90 baino handiagoa izan da. Beste muturrean, A ereduko ikasle gehien izan duten eskola-guneak Vitoria-Hegoekialdea, Leioa-Getxo, Txorierri eta Abando izan dira. Guztira euskalduntze-indize apala izan duten beste eskola-gune batzuk Errekalde, Mendebaldeko Araba izan dira, eta, oro har, Bilbo Handiaren hirigunea eta Araba.

4. mapa.Irakastereduengatiko euskalduntze-indizea eskola-guneen arabera. DBHko ikasleak. 2012-13 ikasturtea




5. mapa. Hezkuntza-sareetakoeuskalduntze-indizearen arteko aldea (publikoa-pribatua) eskola-guneen arabera. DBHko ikasleak. 2012-13



Eskola-guneen barruan hezkuntza-sare bakoitzeko hizkuntza-eskaintzen arteko aldeari dagokionez, kasu gehienetan ikastetxe publikoetan euskarazko irakaskuntzaren eskaintza handiagoa izan da, Euskadiko joera orokorrari jarraituz. 5. mapan eta 1.16 eta 1.17 eranskinetan ikus daitekeenez, alderik handienak Ermuan, Txorierrin, Deustun, Abanton eta Mendebaldeko lautadan izan dira. Beste eskola-gune batzuetan, berriz, (Arabako Errioxa, Andoain, Txurdinaga-Otxarkoaga, Amorebieta eta Uribe-Kosta) itunpeko ikastetxeetako euskalduntze-indizea ikastetxe publikoetako indizea baino handiagoa izan da.

Irakastereduen arteko hautaketaren bilakaera argi ikus daiteke euskalduntze-indizeak irakasmaitan hartzen dituen balioak aztertzen baditugu. Adierazlea ikastetxe publikoetan oso altua da (100etik 95), eskolatzearen hasierako irakasmaitan ikasleen % 90 baino gehiago D ereduan matrikulatzen baitira. Hezkuntza-sare pribatuan, ikastolak (Partaide eta EIB) gehieneko balio teorikoan daude, eta itunpeko ikastetxeen gainontzeko elkarteek hezkuntza-sareko batez bestekoa baino indize apalagoa dute.

Euskalduntze-indizea irakasmaitaren eta hezkuntza-sarearen arabera. 2012-13 ikasturtea




1.3.2. Etxeko hizkuntza bezala euskara duten ikasleak

ISEI-IVEIk bere ebaluazio eta ikerlanetan Kontseiluak aurreko txostenetan deskribatu duen hizkuntzaren adierazle bat erabiltzen du: familian euskara erabiltzen duten ikasleen ehunekoa. 2013ko ebaluazio diagnostikoan, guztira, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasle horiek % 24,7 ziren, eta DBHko 2. mailan, % 19,7.

Adierazleak eskola-barrutietan izan duen banaketa geografikoak (6. mapa eta 1.18 eranskina) antz handia du euskalduntze-indizeari buruzko 4. maparekin.

Gipuzkoako lau eskola-barrutitan (Tolosa, Urola-Kosta, Deba Garaia eta Goierri) eta Bizkaiko bitan (Lea-Artibai eta Busturia) ikasleen erdiak gutxienez familian euskaraz hitz egiten du. Beste muturrean, Nerbioaren ezkerrean, Barakaldo barne, aparteko eskola-barruti bezala azaltzen baita, eta Meatzaldean familia euskaldunak ez dira % 5era heltzen.

6. mapa. Familiako hizkuntza bezala euskara duten ikasleen ehunekoa eskola-barrutien arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila. 2012-13.



* Vitoria-Gasteizen Arabako mendiak eta Araba-Mendebaldea barrutiak sartzen dira. "Araba, gainerakoa" hiru barruti sartzen dira: Aiara, Arabako Errioxa eta Ekialdeko lautada.

1.4. IKASLEEN ADIERAZLE SOZIO-EKONOMIKOAK

Ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak baliagarriak dira berariazko behar eta baliabideen diagnosia egiteko tresna bezala, eta beste alde batetik lotura estatistikoa izaten dute eskola-emaitezkin, 2. atalean ikasleen ebaluazioa aztertzean ikusiko dugun bezala.

Lehenengo eta behin, PISA ebaluazioetan eta ebaluazio diagnostikoetan erabili izan den ISEK indizea (Indize sozio-ekonomikoa eta kulturala) aurkeztuko da. Interesgarria da indizeak Euskadin eta Europako testuinguruan izan duen bilakaera ezagutzea, eta, baita ere, hezkuntza-sareetan izan duen bilakaera konparatzea.

Gero, dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa aztertuko da. Txostenean dirulaguntzen bi modalitateak aztertuko dira: eskolako materialerakoak eta jantokikoak, azken horiek mugatuagoak. Dirulaguntzen banaketa geografikoa eta hezkuntza-sareen arteko aldeak aztertuko dira.


Hirugarren adierazlea atzeritar ikasleen ehunekoa da. Dirulaguntzadunen ehunekoaren adierazlea bezala aztertuko da.

1.4.1. ISEK indizea

PISA ebaluazioko probek 15 urteko ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomikoa eta kulturala) indizea neurtzen dute. Eskola-emaitezkin loturarik handiena duen testuinguru-faktorea da indizea, eta Euskadin Europako batez bestekoaren parean (0 balioa) dago gutxi gora behera; horrek esan nahi du nazioarteko ebaluazioetan Euskadiko ikasleengandik espero daitezkeen emaitzak herrialde partaideetako batez bestekoaren parean egongo lirartekeela.


PISA ebaluazioetan zehar, Euskadiko ISEK indizea apurka hazten joan da -0,10 baliotik 2003an +0,03 baliora 2012an, balio horrekin emaitza hobeagoak espero daitezkeelarik. ELGAko batez bestekoa baino apur bat altuagoa da, eta Espainiako batez bestekoa baino bi hamarren altuagoa. Ondorengo grafikoan Euskadik PISA 2012 ebaluazioan izan zuen ISEK indizea azaltzen da, Europako herrialde batzuetako eta Estatuko autonomia erkidego batzuetako indizearekin konparaturik.

Europako zenbait herrialdetako eta Estatuko zenbait autonomia erkidegotako ISEK indizea PISA 2012 ebaluazioan



PISA 2012 ebaluazioko indizea *geruzen arabera* aztertzen bada, hezkuntza-sare pribatuko hiru geruzek ISEK indize positiboa dutela ikus daiteke, baina sare publikoko hiru geruzek, berriz, indize negatiboa dutela. Balio absolutuetan ikasle kopururik txikiena duten hiru geruzek dute indizerik handiena: balio positiboarekin itunpeko A eredua (0,43); balio negatiboarekin A eredu publikoa (-0,89) eta B eredu publikoa (-0,32).

Geruzetako ISEK indizea eta ikasleen ehunekoa PISA 2012 ebaluazioan (15 urteko ikasleak)




Geruzak *hezkuntza-sareen* arabera konparatzen badira, PISA 2012 ebaluazioan itunpeko ikastetxeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea (0,19) ikastetxe publikoetako ikasleena (-0,18) baino altuagoa dela ikusten da, eta bien arteko aldea (0,36) PISA 2003 ebaluaziokoa (0,26) baino handiagoa izan dela.

Euskadiko ikasleen ISEK indizea PISA ebaluazioetan hezkuntza-sarearen arabera

	2003	2006	2009	2012
Ikastetxe publikoak	-0,25	-0,24	-0,30	-0,18
Itunpeko ikastetxeak	0,01	0,11	0,10	+0,19
Guztira	-0,10	-0,04	-0,06	+0,03
Sareen arteko aldea	0,26	0,35	0,40	0,36

DBHko 2. mailako ikasleek eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek egiten dituzten *ebaluazio diagnostikoetan* ISEK indizearen batez besteko balioztat 0 hartzen da. Geruza bakoitzeko indizearen balioa aztertzen badugu, hiru aspektu azpimarratu beharko genuke. Aurrenik, PISA ebaluazioetako indizearen balioekin konparaturik, lehen muturreko balioak –positiboak zein negatiboak– hartzen zituzten geruzak orain minoritarioagoak dira, eta balioak batez bestekotik gehiago aldentzen dira.

Geruzetako ISEK indizea eta ikasleen ehunekoa 2012ko ebaluazio diagnostikoan (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila)



Hartara, PISA ebaluazioan (15 urteko ikasleak) itunpeko A ereduaren geruzako ISEK indizea 0,43 zen eta ikasleen % 10,5 hartzen zuen, baina geruza horretako 9 urteko (Lehen Hezkuntzako 4. mailako adin teorikoa) ikasleen ISEK indizea 0,71ra igo da, eta ikasleen % 4,7 hartu du. Kontrako muturrean, berriz, A eredu publikoaren geruzako ISEK indizea PISA ebaluaziotik (-0,89) ebaluazio diagnostikora (-1,19; Lehen Hezkuntzako 4. maila) jaitsi da, eta geruzako ikasleen ehunekoa % 5etik % 1,5era jaitsi da. B eredu publikoaren geruzan antzera gertatu da.

Bigarrenenez, horrek esan nahi du hezkuntza-sare bakoitzaren barruan irakastereduen (geruzen) arteko aldeak areagotu egin direla.

Azkenik, aldaketarik txikienak irakasteredu maioritarioetan gertatu dira, D eredu publikoan ISEK indizea -0,05etik -0,18ra jaitsi den arren, eta itunpeko D ereduan, berriz, 0,06tik 0,025era igo. Itunpeko B ereduan indizearen balioa mantendu egin da.

Laburbilduz, ISEK indizearen balioak lau ebaluazio diagnostikoetan zehar, bi irakasmailetan, izan duen bilakaera aztertzen badugu, *hezkuntza-sareen* arteko konparazioan bi joera ikus daitezke:


Euskadiko ikasleen ISEK indizea lau ebaluazio diagnostikoetan hezkuntza-sarearen arabera

		2009	2010	2011	2013
DBH 2	Ikastetxe publikoak	-0,22	-0,22	-0,25	-0,24
	Itunpeko ikastetxeak	0,15	0,17	0,19	0,22
	Sareen arteko aldea	0,37	0,39	0,44	0,46
LH 4	Ikastetxe publikoak	-0,23	-0,25	-0,25	-0,26
	Itunpeko ikastetxeak	0,23	0,25	0,26	0,27
	Sareen arteko aldea	0,46	0,50	0,51	0,53

- Irakasmaila bakoitzaren barruan hezkuntza-sareen arteko aldeak igo egin dira.
- Hezkuntzako 4. mailan; ikasle horiek oraintsuago eskolatu direnez, hezkuntza-sareetako ISEK indizearen arteko aldea denbora aurrera joan ahala handitu egin dela esan daiteke.

Eskola-guneetako banaketa geografikoari dagokionez (7. mapa eta 1.17 eranskina), bi irakasmailak batera harturik, Txorierri (0,71), Nerbioaren Eskuinaldea (0,34) eta Donostia (0,32) aipatu behar dira, eta beste muturrean, Errenteria (-0,31) eta Barakaldo (-0,30).

7. mapa. Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen ISEK indizea eskola-barrutien arabera. 2012-13 ikasturtea



* Vitoria-Gasteizen Arabako mendiak eta Araba-Mendebaldea barrutiak sartzen dira. "Araba, gainerakoa" hiru barruti sartzen dira: Aiara, Arabako Errioxa eta Ekialdeko lautada.

1.4.2. Dirulaguntzadun ikasleak

Eskolako materialerako edo jantokirako dirulaguntzak lortzeko baldintza diru-sarrerak maila jakin batera ez heltzea da. Maila apalagoa da jantokiko dirulaguntzen kasuan. 2012-13 ikasturtean unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetan matrikulatutako 340.515 ikasleetatik 116.416 ikaslek (% 34) izan dute eskola materialerako dirulaguntza. Jantokiko dirulaguntza ikasleen % 17k izan du.

Plangintzari begira interesgarria litzateke bi adierazle horien banaketa geografikoa aztertzea, hiru lurraldeen artean aldeak baitaude. Beharrik handienak Bizkaian izan dira, bereziki jantokiko dirulaguntzen kasuan.

Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa lurraldeetan. 2012-13 ikasturtea

	Eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleak	Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleak
Araba	% 35	% 16
Bizkaia	% 36	% 20
Gipuzkoa	% 32	% 14
Euskadi	% 34	% 17

Eskola-guneen araberako banaketa geografiko zehatzagoa egiten badugu (8. eta 9. mapak, 1.19 eranskina) oro har adostasun nabaria dago bi mapen artean; Euskadiko batez bestekoa gainditu duten eskola-guneen zerrenda bi mapetan azterturik, jantokiko dirulaguntza ikasleen % 25 baino gehiagok jaso dueneko hamabi eskola-guneetatik hamar eskolako materialerako dirulaguntzen mapan ere ehunekorik altuena dutenen artean agertzen direla ikus dezakegu: Bilboko bost barruti (Basurtu-Zorrotza, Errekalde, Begoña, Ibaiondo eta Uribarri), Sestao, Trapaga, Donostia-Ekialdea, Arabako mendiak eta Arabako Errioxa. Gainerako biak Bermeo eta mendebaldeko Araba dira. Bestalde, jantokiko dirulaguntzen kasuan Ermua aipatu beharko genuke.

Kontrako muturrean, jantokiko dirulaguntzen ehunekorik txikiena izan duten hamabi eskola-guneetatik hamar Gipuzkoakoak dira (Arrasate, Urola Erdia, Bergara, Urola Garaia, Lasartealde, Oria Garaia, Kosta, Andoain, Donostia-Ezkerraldea eta Tolosa) eta bi, Bizkaikoak (Txorierri eta Abando).

ISEK indizearen kasuan ikusi dugun bezala, dirulaguntzadunen ehunkoa hezkuntza-sare publikoan itunpekoan baino handiagoa izan da. Aldea handiagoa izan da jantokiko dirulaguntzadunen kasuan, batez bestekoa % 17 izanik, hezkuntza-sare publikoko ikasleen % 24 izan baitira, eta hezkuntza-sare pribatuan % 10 baino ez.


Dirulaguntzadun ikasleen ehunkoa hezkuntza-sareetan eta haien arteko aldea. 2012-13 ikasturtea

	<i>Ikastetxe publikoetan</i>	<i>Ikastetxe pribatuetan</i>	<i>Aldea</i>
Eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleak	% 40	% 28	12
Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleak	% 24	% 10	14


Hezkuntza-sareetako dirulaguntzadunen ehunekoen arteko aldean banaketa 10. mapan azaltzen da 1.20 eranskineko datuekin eskola-mapa osoan. Euskadiko batez besteko balioa % 14 da, azken taulan azaltzen den bezala.

Modu horretan, baliabide ekonomikorik urrienak dituzten ikasleen banaketa zuzena den ala ez ikus daiteke. Dirulaguntzadun ikasleen ehunkoa lau eskola-gunetan bakarrik (Bermeo, Hernani, Urdaibai eta Lea-Artibai) izan da handiagoa itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino. Gainerako eskola-guneetako batzuetan, berriz, polarizazio nabaria gertatu da, hala nola Txurdinaga-Otxarkoagan (32 puntuko aldea), Trapagan (24 puntu), Igorren (24 puntu), Uribarrin (21 puntu) eta 20 puntuko aldea gainditu duten beste zazpi eskola-gunetan.


8. mapa. Hezkuntza-etapetan guztira eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa eskola-guneen eta eskola-barrutien arabera. 2012-13 ikasturtea



9. mapa. Hezkuntza-etapetan guztira jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa eskola-guneen eta eskola-barrutien arabera. 2012-13 ikasturtea



10. mapa. Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa. Hezkuntza-sareen arteko aldea eskola-guneen arabera. 201-13 ikasturtea



Oro har, Gipuzkoan eta Bizkaiko kostan eta barnealdean banaketa zuzenagoa izan da, salbuespen gutxirekin; Bilbo Handian eta Vitoria-Gasteizen, berriz, hezkuntza-sareetako ikasleen gizarte-mailen arteko aldeak nabariagoak izan dira.

1.4.3. Atzerritar ikasleak


Funtsean atzerritar ikasletzat Espainiako herritartasuna ez duten ikasleak hartzen baditugu, Euskadiko ikastetxeetan, Oinarrizko Hezkuntza osatzen duten bi etapetan, atzerritar ikasleak 2012-13 ikasturtean ikasle guztien % 7,3 izan dira, ehunekoa aurreko ikasturtetik hiru hamarren jaitsi delarik.

Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (LH eta DBH) hezkuntza-sareen arabera. 2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 ikasturtea			2011-12	Azken ikasturteko Δ
	Atzerritar ikasleak	Ikasle guztiak	Atzerritar ikasleak (%)	Atzerritar ikasleak (%)	
Ikastetxe publikoak	9.490	95.515	% 9,9	% 10,3	-0,4
Ikastetxe pribatuak guztira	4.802	100.564	% 4,8	% 5,0	-0,2
Kristau Eskola	3.556	55.419	% 6,4	% 6,7	-0,3
Partaide	666	25.605	% 2,6	% 2,7	-0,1
Gainerako elkarteak	580	19.540	% 3,0	% 3,0	0,0
Guztira	14.292	196.079	% 7,3	% 7,6	-0,3

Kopuru erlatiboetan atzerritar ikasleen matrikula bi aldiz handiagoa izan da ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino: % 9,9 ikastetxe publikoetan eta % 4,8 ikastetxe pribatuetan. Beste alde batetik, hezkuntza-sare pribatuaren barruko banaketa desorekatua izan da; Kristau Eskolako matrikula (% 6,4) Euskadiko batez bestekora (% 7,3) hurbildu da, itunpeko ikastetxeen gainerako elkarteetan, berriz, urrun samar geratu delarik.


Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan ikastetxe moten arabera. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak



Hezkuntza-sare/eredu geruzak kontuan hartzen badira, atzerritar ikasleak bereziki bi hezkuntza-sareetako A ereduan biltzen direla ikus daiteke, gero B ereduan


eta azkenik D eredu, kasu guztietan hezkuntza-sare publikoko ehunekoak handiagoak direlarik. Hartara, A eredu publikoaren geruzan bi ikasletarik bat atzerritarra da, B eredu publikoaren geruzan bost ikasletarik bat, eta A eredu pribatuaren geruzan hamar ikasletarik bat.

Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan geruzen arabera. 2012-13 ikasturtea



Atzerritar ikasleak sei geruzetan nola banatzen diren aztertzen badugu, 1.3.1. azpiatalean hezkuntza-etapa bakoitzerako egin den bezala, bi hezkuntza-sareetan geruza bakoitzean matrikulatutako atzerritar ikasleen ehunekoak geruzaren tamainarekin alderantzizko lotura duela ikus daiteke. Hartara, Oinarrizko Hezkuntzako 14.292 atzerritar ikasleak sei geruzetan nola banatu diren aztertzen badugu, matrikularik handiena D eredu publikoak (4.988) izan duela ikusiko dugu, bigarrenak baino bi aldiz handiagoa.

Atzerritar ikasleen kopurua Oinarrizko Hezkuntzan geruzen arabera. 2012-13 ikasturtea



Orain hirigune nagusiak kontuan hartzen baditugu, Vitoria-Gasteizen (% 11) eta Bilbon (% 10) atzerritar ikasleen ehunekoa Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa dela ikus dezakegu.

11. mapan eta 1.21 eta 1.22 eranskinetan atzerritar ikasleen *banaketa eskola-guneen arabera* jasotzen da. Ehunekorik handiena duten hamar eskola-guneen artean Arabako sei gune daude (Vitoria-Iparraldea, Vitoria-Hegoekialdea, Arabako mendiak, Ekialdeko lautada, Arabako Errioxa eta Mendebaldeko Araba), Biboko hiru barruti – Errekalde (% 25, ehunekorik handiena), Basurtu-Zorrotza eta Ibaiondo– eta Igorre.

Immigraziorik txikiena duten zazpi eskola-guneak Bizkaikoak dira: Txorierri, Trapaga, Galdakao, Abanto, Uribe-Kosta eta Portugalete. Guztira atzerritar ikasleen ehunekorik txikiena duen lurraldea Gipuzkoa da.

Atzeritar ikasleen ehunekoa Euskadiko sei hirigunerik handienetan ikastetxe moten arabera eta hezkuntza-sareen arteko aldea (ehunekoen arteko ratioa).2012-13 ikasturtea eta 2011-12 ikasturtearekiko konparazioa


	2012-13 ikasturtea				Sareen arteko aldea (ratioa) 2011-12	Sareen arteko aldearen Δ azken ikasturtean
	Pub.	Prib.	Guztiak	Sareen arteko aldea (ratioa)		
Bilbo	% 13,6	% 7,1	% 10	1,9	2,0	-0,1
Vitoria-Gasteiz	% 16,3	% 6,1	% 11	3,0	3,1	-0,1
Donostia	% 7,4	% 4,8	% 6	1,5	1,4	0,1
Barakaldo	% 11,4	% 6,1	% 8	1,9	1,8	0,1
Getxo + Leioa	% 12,9	% 2,1	% 6	6,1	5,6	0,5
Euskadi	% 9,9	% 4,8	% 7,3	2,1	2,1	0,0

Atzeritar ikasleen banaketak hezkuntza-sare bakoitzean duen ekitate maila konparatzeko hezkuntza-sareen arteko aldea erabiltzen da adierazle bezala, baina alderantzizko zentzuan. Horretarako hezkuntza-sare publikoko eta hezkuntza-sare pribatuko atzeritar ikasleen ehunekoen arteko ratioa edo zatidura kalkulatzen da. Euskadiko batez bestekoa 2,1 da, eta 1 balioak banaketa berdina adieraziko luke kopuru erlatiboetan.


12. mapan ikus daitekeenez, ikasle atzeritarren banaketaren arteko alderik handienak Portugaleten –ikastetxe publikoetako tasa itunpeko ikastetxeetako baina bederatzi aldiz handiagoa da–, Andoainen (7 aldiz handiagoa), Bilboko Abando barrutian eta Leioa-Getxon (6 aldiz) eta Amorebietan (5 aldiz). Bederatzi eskola-gunetan itunpeko ikastetxeek ikastetxe pribatuak baino atzeritar ikasle gehiago eskolatu dituzte; egoera minoritarioa da, eta kasurik aipagarriena, Hernani.

Atzeritar ikasleen banaketa derrigorrezko hezkuntzako irakasmilen arabera aztertzen bada, tasak DBHn Lehen Hezkuntzan baino handiagoak izan direla ikusten da, eta baita ere, irakasmila zenbat eta baxuagoa izan, hezkuntza-sareetako tasen arteko aldea handiagoa izan dela (1.23 eranskina).


Atzeritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzako irakasmailetan hezkuntza-sareen arabera. 2012-13 ikasturtea



11. mapa. Atzeritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (LH eta DBH) eskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea



12. mapa. Atzeritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan. Hezkuntza-sareen arteko aldea (ratioa) eskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea



Atzeritar ikasleen tasa bereziki handia izan da HLPP programetan, % 36ra heldu baita; Gipuzkoan (% 32) apur bat txikiagoa izan da, eta Araban (% 39) apur bat handiagoa. Banaketa berdina izan da bi hezkuntza-sareetan.

Atzeritar ikasleak HLPP programetan lurraldeen eta ikastetxe-moten arabera. 2012-13 ikasturtea

	Atzeritar ikasleak			HLPPko ikasle guztien %
	Itunpekoetan	Publikoetan	Guztira	
Araba	161	92	253	% 39
Bizkaia	681	327	1.008	% 37
Gipuzkoa	111	246	357	% 32
Euskadi	953 (% 36)	665 (% 36)	1.618 (% 36)	% 36

Helduen Hezkuntza Iraunkor arautuan ere atzeritar ikasleen kopurua handia izan da, guztira hiru graduetan % 42ra heldu baita. Helburu nagusi alfabetatzea duen I. graduan, tasa % 82ra heldu da.

Atzeritar ikasleak Helduen Hezkuntza arautuan lurraldeen eta graduen arabera. 2012-13 ikasturtea

	I. gradua		II. gradua		III. gradua		HHI arautua guztira	
Araba	1.143	% 82	190	% 38	328	% 20	1.661	% 47
Bizkaia	2.373	% 77	605	% 23	770	% 19	3.748	% 38
Gipuzkoa	1.987	% 87	260	% 18	391	% 18	2.638	% 45
Euskadi	5.503	% 82	1.055	% 23	1.489	% 19	8.047	% 42

Helduen hezkuntza ez-arautuan 2012-13 ikasturtean atzeritar ikasleen ehunekoa % 7koa baino ez da izan.

1.5. ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

1.5.1 Arte-irakaskuntza

Musika, dantza, arte plastiko eta diseinuaren irakaskuntzak biltzen ditu.

- **Musika-irakaskuntza**

Musika-irakaskuntza arautua eta ez-arautua izan daiteke.

- *Irakaskuntza arautua*

Profesionalentzat pentsatuta dago. 2.851 ikasle matrikulatu dira oinarritzko irakaskuntzan, irakaskuntza profesionalean eta goi mailako irakaskuntzan.

Oinarritzko gradua eta gradu profesionala (erdiko gradua) 14 ikastetxetan irakasten dira: kontserbatorio publikoak (8), Eusko Jaurlaritzaren menpekoak (3), udalen menpekoak (5) eta ikastetxe pribatu baimendunak (6). Ikastetxe publikoak Vitoria-Gasteizen, Donostian, Irunen, Errenterian, Bilbon, Barakaldon, Durangon eta Leioan daude, eta ikastetxe pribatuak Bilbon (3), Getxon eta Gernikan.

2012-13 ikasturtean oinarritzko graduan eta gradu profesionalean guztira 2.533 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 2 gutxiago, honela banaturik:

Musika-irakaskuntza. Oinarritzko eta erdiko mailetako ikasle kopurua. 2012-13 ikasturtea

	<i>Publikoa</i>			<i>Pribatua</i>			<i>Ikastetxe guztiak</i>		
	<i>Oinarritzko gradua</i>	<i>Erdiko gradua</i>	<i>Guztira</i>	<i>Oinarritzko gradua</i>	<i>Erdiko gradua</i>	<i>Guztira</i>	<i>Oinarritzko gradua</i>	<i>Erdiko gradua</i>	<i>Guztira</i>
Araba	242	215	457	44	0	44	286	215	501
Bizkaia	349	549	898	434	253	687	783	802	1.585
Gipuzkoa	151	296	447	0	0	0	151	296	447
Euskadi	742	1.060	1.802	478	253	731	1.220	1.313	2.533

Erdiko graduako musika-irakaskuntzetan espezialitaterik eskatuenak pianoa (% 26) eta biolina (% 14) izan dira, eta bigarren multzo batean, alboko flauta (% 6) eta gitarra, saxofoia eta biolontxelo (% 5).

Goi graduako irakaskuntza Donostiako Musikene kontserbatorioan irakasten da. 2012-13 ikasturtean 318 ikasle matrikulatu dira. Haien arteko 223 ikasketa-plan berriko hasierako hiru mailetan, eta gainerako 95, ikasketa-plan zaharreko 4. eta 5. mailetan.

– ***Irakaskuntza ez-arautua***

Irakaskuntza ez-arautua 88 musika-eskoletan eman da. 42 eskola publikoak dira, udalen menpekoak, eta 46 eskola pribatuak dira, horietako batzuek diru publikoa jasotzen duten arren. 37.273 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 5 gutxiago. Gipuzkoako lurraldea nabarmentzen da, ikastetxeen eta ikasleen erdia baino gehiago hartu baitu.

Musika-irakaskuntza ez-arautua. Ikasle eta ikastetxe kopurua. 2012-13 ikasturtea

	<i>Publikoak</i>		<i>Pribatuak</i>		<i>Guztira</i>	
	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikastetxeak</i>
Araba	1.915	6	853	5	2.768	11
Bizkaia	9.620	18	2.833	11	12.453	29
Gipuzkoa	11.487	18	10.565	30	22.052	48
Euskadi	23.022	42	14.251	46	37.273	88

Matrikularik handiena izan duten zortzi espezialitateak edo tresnak honako hauek izan dira:

<i>Espezialitatea/Tresna</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Matrikularen %</i>
Pianoa	5.390	% 14
Kantu korala	4.129	% 11
Gitarra	2.606	% 7
Dantza	2.515	% 7
Bibolina	1.663	% 4
Trikitiba	1.605	% 4
Tresna-taldeak	1.384	% 4
Alboko flauta	1.329	% 4

- **Dantza-irakaskuntza**

Dantza-irakaskuntza arautua ikastetxe bakar batean irakasten da, Vitoria-Gasteizeko José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa alegia. 2012-13 ikasturtean erdiko mailako ikasketetan 58 ikasle matrikulatu dira eta goi mailako ikasketetan, 40 ikasle. Aurreko ikasturteko matrikula 59 eta 45 ikasle izan zen, hurrenez hurren⁴.

- **Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza**

Arte plastikoen eta diseinuaren barnean arte aplikatuak, artisautza, mota eta maila askotariko diseinua eta kultura-ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sartzen dira. Kultura-ondarearen kontserbazio eta zaharberritze ikasketak eta Diseinu ikasketak unibertsitate mailakoak dira.

LOEn irakaskuntza horiek Lanbide Heziketaren antzera antolaturik daude, bi kasuetan hezkuntza sistema eta lan-mundua integratzen baitira. Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikari titulua erdiko gradua gainditzen denean lortzen da, eta Batxilergoko arte-modalitatera zuzeneko sarbidea ematen du. Beste alde batetik, goi mailako gradua gainditzeak Goi Mailako Teknikari titulua lortzeko gaitzen du.

Goi Mailako Heziketa Zikloetan honako espezialitate hauek irakasten dira: Argazkilaritza artistikoa (EHAA, 2005/10/20), Publizitateko grafika (EHAA, 2004/12/28), Ilustrazioa (EHAA, 2004/12/29), Lorezaintza eta Apaintze-lanen proiektuak eta zuzendaritza (EHAA, 2005/01/05). Goi mailako ikasketen artean Barnealdearen diseinua (EHAA, 2008/03/12), eta Diseinu grafikoa (EHAA, 2006/04/26), sartzen dira.

2012-13 ikasturtean 373 ikaslek ikasi dute goi mailako Arte plastikoak eta Diseinua, hiru ikastetxe publikotan eta hiru ikastetxe pribatutan banaturik. Gainera, Araban goi mailako ikasketetako ikastetxe batean 204 ikasle matrikulatu dira, eta ikasketa-plan berriko lau irakasmailaketako hasierako hirurak ezarrita daude.

⁴2010-2012 Txosteneko datuak okerrak ziren

Arte plastikoen eta Diseinuaren irakaskuntzako ikasle kopurua. 2012-13 ikasturtea

	<i>Goi Mailako Heziketa Zikloak</i>			<i>Goi mailako ikasketak</i>
	<i>Publikoa</i>	<i>Pribatua</i>	<i>Guztira</i>	<i>Publikoa</i>
Araba	87	0	87	204
Bizkaia	45	104	149	0
Gipuzkoa	42	95	137	0
Euskadi	174	199	373	204

1.5.2. Kirol-irakaskuntza

Kirol-irakaskuntza 2/2006 Lege Organikoak (LOE), VIII. atalean, arautu zuen lehenengoz , eta gero 1363/2007 Errege Dekretuak garatu zuen.

Bi mailatan antolaturik dago, erdi maila eta goi maila, Kirol Teknikari eta Goi Mailako Kirol Teknikari tituluei dagozkienak, hurrenez hurren. Goi mailako tituluak unibertsitateko ikasketetara sarbidea ematen du.

Erdiko mailan sartzeko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskatzen da, eta goi mailara sartzeko Batxilergo titulua eta dagokion kirol modalitateko Kirol Teknikari titulua eskatzen dira. Salbuespen gisa, adin jakin batetik aurrera proba baten bidez sar daiteke.

Euskadin lau ikastetxetan, bakar bat publikoa, kirol irakaskuntzetako bost espezialitate irakasten dira: Futbola eta areto futbola (129/2004 Dekretua), Atletismoa (169/2010 Dekretua), Saskibaloia (170/2010 Dekretua), Eskubaloia (171/2010 Dekretua), Neguko kirolak (172/2010 Dekretua eta Mendi kirolak eta eskalada (173/2010 Dekretua).

Kirol-irakaskuntzako ikasle kopurua. 2012-13 ikasturtea

	<i>Publikoan</i>	<i>Itunpekoan</i>	<i>Guztira</i>
Erdi Maila	357	228	585
Goi Maila	56	27	83
Guztira	413	255	668

Kirol teknikarien espezialitaterik eskatuena Futbola (362 ikasle) eta Eski alpinoa (67 ikasle) izan dira. Goi mailan espezialitaterik eskatuena Futbola (65 ikasle) izan da.

31 emakume bakarrik matrikulatu dira kirol-irakaskuntzan.

1.5.3. Hizkuntzen irakaskuntza

Hizkuntzen irakaskuntza 46/2009 Dekretuak arautzen du, curriculumak hizkuntzen Europako erreferentzia markoko mailetara egokitzen dituenak. Maila hauek irakasten dira: Oinarrizkoa (A1 eta A2), Erdikoa (B1, B1.1 eta B1.2 azpi-mailetan banatua), Aurreratua (B2) eta Gaitasun maila (C1).

Atzerriko hizkuntzen ikasketa arautuekiko baliozkotze sistema bat finkatu da, eta horren bitartez Graduatu tituluarekin A2 Oinarrizko mailara sar daiteke, eta Batxiler tituluarekin Erdiko mailara (B1.1) sar daiteke.


Hizkuntza Eskola Ofizialetako hizkuntzak, ikasle kopurua eta talde kopurua. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak

	<i>Frantsesa</i>	<i>Ingelesa</i>	<i>Euskara</i>	<i>Alemana</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Italiera</i>	<i>Portugesa</i>	<i>Errusiera</i>	2011-12		2012-13	
									<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>
Bilbo	x	x	x	x	x	x	x	x	6.481	241	6.722	243
Vitoria-Gasteiz	x	x	x	x	x				4.161	155	4.181	157
Donostia	x	x	x	x	x				3.114	122	3.295	122
Getxo	x	x	x	x					2.888	107	2.892	107
Barakaldo	x	x	x	x					2.567	100	2.766	99
Irun	x	x	x	x					1.769	73	1.834	72
Durango	x	x	x	x					1.691	77	1.822	77
Eibar	x	x	x	x					1.162	50	1.233	53
Basauri	x	x	x						847	35	928	35
Santurtzi	x	x							718	27	780	30
Tolosa	x	x							696	30	754	33
Zalla	x	x	x						633	23	686	25
Bermeo	x	x	x						655	27	657	27
Ordizia	x	x							443	22	552	27
Guztira	14	14	11	8	3	1	1	1	27.825	1.089	29.102	1.107

Euskadin 14 hizkuntza eskola daude, guztiak publikoak. Haien arteko hiruk bi hizkuntza irakasten dituzte, eta beste batek, Bilbokoak, zortzi hizkuntza. Azken ikasturtean matrikula % 4,5 handitu da, azken ikasturteotako joera jarraituz. Ikasle guztien bi heren emakumeak dira (% 67).


Matrikularik handiena izan duten hizkuntzak ingelesa (ikasle guztien ia erdia), euskara eta frantsesa izan dira.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasle kopurua hizkuntzen arabera 2012-13 ikasturtea



Hizkuntzen Europako erreferentzia markoaren sei mailetako bost –B1 maila bi irakasmaitetan irakasten da eta C2 maila ez da irakasten– irakasten direneko sei irakasmaitetako ikasleen banaketa aztertzen badugu, euskararen eta ingelesaren kasuetan ikasturteak aurrera joan ahala matrikula handitu egin dela ikusten da. Hala ere, ingelesaren kasuan gaitasun mailako matrikula (C1) beheragoko mailakoa (B2) baino nahiko txikiagoa izan da. Frantsesaren eta alemanaren kasuetan matrikula, batez ere, behe mailetan bildu da.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasle kopurua matrikularik handieneko hizkuntzetan mailen arabera. 2012-13 ikasturtea



1.6. LOMCE LEGE ORGANIKOA

2012-13 ikasturtean zehar Kontseiluak aukera izan zuen Espainiako gobernuak LOMCE (Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko lege organikoa) lege organikoaren inguruan onartutako lehen ekimenen kontrako iritzia adierazteko.

Hain zuzen ere, Kontseiluak bi aldiz adierazi zuen lege horri buruzko gaitzespena: 2012ko irailaren 27an Biltzar Nagusian hasierako zirriborroari buruz

onetsitako Txostenean, eta urte hartako urriaren 23ko Batzorde Iraunkorrean, bere kabuz legearen aurreproiektuaz egindako Irizpenean.

Geroago, 2012ko azken hilabeteetan, Estatuko Eskola Kontseiluak egindako irizpenari osoko zuzenketa bat aurkeztu zion erakunde horretan. BOE aldizkarian 8/2013 Lege Organiko bezala argitaratu zela kontuan izanik, legea lau punturen inguruan aztertu zen:

- LOMCE legeak bere beharra justifikatzeko aipatzen dituen zioak, Euskadiko egoerari aplikaturik
- Orain arteko hezkuntza-eredurako proposatu diren aldaketak
- Ezarpen-egutegia
- LOMCE legea garatzeko hartutako lehen neurrien analisia

1.6.1. LOMCE legeak bere beharra justifikatzeko aipatzen dituen zioak, Euskadiko egoerari aplikaturik

Legeak aipatzen dituen helburuei dagokienez, Europarako finkatutako mailak, gehienak, Euskadin lortuta daude dagoeneko: eskola-uzte goiztiarra, INEren 2013ko datuen arabera, % 8,8 da, Europako helburua (% 10) baino baxuagoa; zientzia eta teknologian unibertsitateko tituludunen eta graduen tasak Europan 2020. urterako finkatutakoak baino askoz altuagoak dira.

Era berean, erdiko mailako ikasketetako (gutxienez HNSN 3 maila) tituludunen tasak lortu dira, eta goi mailako ikasketetako tasak bikoiztu egin dira ia, Lanbide Heziketaren ekarpenari esker. Eskolatzeari, promozioari eta tituludunei lotutako beste adierazle batzuen kasuan Euskadiko tasa Espainiako batez bestekoa baino nahiko altuagoa da.

Enplegua aurkitzeko aukerei dagokien helburuak gazteei gero eta lanbide-profil hobeagoa eskatzen die, eta Euskadiko Lanbide Heziketa egokitu egin da behar horri erantzun ahal izateko.

Badira, inolako zalantzarik gabe, oraindik hobetu behar diren adierazleak eta emaitzak, adibidez, derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzako graduazio-tasa (% 80 inguru), finkatutako helburua % 85 baita. Era berean, PISA ebaluazioko emaitzek, hobeak izan badira ere, bikaintasunari dagokionez badute oraindik hobekuntzarako tartea.

1.6.2. Orain arteko hezkuntza-eredurako proposatu diren aldaketak

Euskadiko hezkuntza-komunitatean gehiengo batek ontzat ematen ditu orain arteko hezkuntza-eredua eta kultura pedagogikoa, baina LOMCE legeak zenbait

aldaketa sakon proposatu ditu bi alderdi horietan. Aipagarrienak honako hauek lirateke:

a) Bigarren Hezkuntzako Graduatu eta Batxilergoko Graduatu tituluak lortzeko bukaerako ebaluazioak, derrigorrezkoak

Gehiengo baten iritziz, ebaluazioa etengabeko prozesua da, hezkuntza-konpetentzia guztien garapenari lotutako askotariko alderdiak neurtzen joaten dena.

LOMCE legearen xedapenetan, DBHko Graduatu eta Batxilergoko Graduatu tituluak – eta ondorioz, unibertsitaterako sarbidea– eskuratzeko ez da nahikoa hezkuntza-etapa horietako arlo eta irakasgai guztiak gaindituta izatea, errebalida izaera duten bukaerako bi ebaluazio ere gainditu behar baitira. Bukaerako ebaluazioak Espainiako gobernuaren ardurapekoak dira, eta legeak horretarako honako eskumen hauek esleitzen dizkio (6b art.):

- 1) Ikasketa eta etapa horietako helburuen lorpen maila eta eta dagozkien konpetentzien eskurapen maila ebaluatzen irizpideak finkatzea, irakasgai tronkaletako eta irakasgai espezifikoetako eduki-multzoen arabera.
- 2) Ebaluazio-proben ezaugarriak finkatzea.
- 3) Proben diseinua eta edukia finkatzea deialdi bakoitzerako.

Espainiako gobernuaren eskumen horiez gain,

- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eta irakasleek hezkuntza-administrazioekin batera lan egingo dute euren ikastetxeetan egiten diren ebaluazioetan (142. art.).
- Ebaluazio-proben gauzapean materiala dagokien hezkuntza-administrazioen ardura da. Probak ikastetxetik kanpoko irakasleek (Espainiako Hezkuntza Sistemakoek) gauzatu eta zuzenduko dituzte (144. art.).

b) Ikasleen bereizketa DBHko 3. mailatik aurrera

LOMCE legeak ezarri duen hezkuntza-sisteman ikasleak oso goiz banatzen dira euren eskola-errendimenduaren arabera, etorkizuneko ikasketen eta lanaren aldetik ibilbide ia atzeraezinetara bideraturik. DBHko 3. mailako ikasleek bi motatako matematika eskolen arteko bat aukeratu behar dute (24. art.), 4. mailatik aurrera egin nahi dituzten ikasketen arabera: akademikoak, Batxilergo daramatenak, eta aplikatuak, lanbide heziketara daramatenak (25. art.).

Horrez gain, DBHko 3. eta 4. mailako curriculum anitzeko programen ordez, DBHko 2. eta 3. mailan ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak ezarri dira.

c) Eskumen exekutiboak ikastetxeetako Eskola Kontseilutik zuzendaritzara lekualdatzea

LOE legean eta aurreko lege organikoetan, ikastetxeek eginkizun exekutiboak eta erabakitzaileak dituen gobernu-organo bat dute, Eskola Kontseilua edo Ordezkaritza Organo Gorena (OOG), askotariko estamentuek hautatzen dutena.

Hori dela eta, Eskola Kontseiluaren esku egon da epe ertaineko edo luzeko plangintzarako (adibidez, ikastetxearen proiektua, prestakuntza-planak eta bestelako planak) agiriak onartzea, eta baita ere Ikastetxearen Plana eta Urteko Memoria onestea. LOMCE legean eginkizun horiek zuzendariaren esku geratzen dira, bai ikastetxe publikoetan (127 eta 132. art.) baita itunpeko ikastetxeetan ere (bukaerako 2. xedapena).

Ikastetxeko zuzendaria aukeratzerakoan ere ahalmena galtzen du Eskola Kontseiluak: LOE legearen kasuan hautespen-batzordeko kideen bi heren ordezkatzetik, LOMCE legearen kasuan gehienez kideen % 50 ordezkatzera pasa da.

d) Arloen eta irakasgaien antolamendua

LOMCE legeak hiru irakasgai mota bereizten ditu: irakasgai tronkalak, irakasgai espezifikokoak eta autonomia erkidegoen ardurapecoak. Irakasgai tronkalen kasuan, Estatuko gobernuak eskumen ia osoa du curriculumak finkatzeko, bukaerako ebaluazioak hein handi batean –ia osorik– irakasgai horiek osatzen baitituzte (6 bis art.).

Irakasgai tronkaletako eskola-ordu kopuruak eskola ordutegi osoaren % 50 izan behar du gutxienez. Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia ez dago irakasgai tronkalen artean, autonomia erkidegoaren ardurapecoa baita.

Lehen Hezkuntzan zikloak desagertu egin dira. DBHn bi ziklo daude: lehen zikloa, 1., 2. eta 3. mailak hartzen dituenak, eta bigarren zikloa, 4. mailak osatzen duena.

Herritartasunerako hezkuntza eta Mundu garaikiderako zientzia irakasgaiak desagertu egin dira, eta Filosofiaren pisua murriztu egin da. Ekimenaren eta enpresa-jardueraren inguruko zenbait irakasgai ezarri dira. Erlijioaren ordezkoko irakasgaia orain Lehen Hezkuntzan Gizarte eta hiritar balioak deitzen da, eta DBHn, Balio etikoak.

e) Lanbide Heziketarako eta Batxilergorako sarbidea

Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP) Oinarrizko Lanbide Heziketak ordezkatzeko dituzte. Oinarrizko Mailako Gradua gaitzake Erdi Mailako Gradura zuzen sartzea ahalbidetzen du, sarrera azterketa egin beharrik gabe (41. art.). Salbuespen bat egin liteke eskaria eskaintza baino handiagoa balitz; kasu horretan autonomia erkidegoko administrazioek ikastetxean matrikulatzeko onarpen-prozedurak finka litzakete.

Beste alde batetik, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratzera bideratutako prestakuntza desagertu egin da.

Goi Mailara sartzeko nahikoa da Erdi Mailan eskuratzen den Teknikari titulua izatea, sarrera azterketa egin beharrik gabe, eta plaza nahikoak egotearen mugarekin; plaza nahikorik ez balego, onarpen-prozedura bat finkatuko litzateke (41. art.).

Hala eta guztiz ere, itxuraz, aipatutako onarpen-prozedura Goi Mailara sartzeko ezinbestekotzat har daiteke, 44. artikulua honela baitio: “Teknikari tituluak, onarpen-prozedura gainditu ondoren, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako goi graduako prestakuntza zikloetara sartzea ahalbidetuko du”. Erdi Mailara sartzeko horrelako baldintzarik ez da aipatzen.

Batxilergoari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua ikasketa akademikoetatik eskuratu duten ikasleak bakarrik sar daitezke (32.2 art.).

f) Kasu batzuetan pertsonalaren kudeaketarako autonomia handiagoa

122bis artikulua “Ikastetxeen kalitatea sustatzeko ekintzak” izenburua du. Ekintza nagusia zuzendariari zenbait irakaspostu hornitzeko eta pertsonala hautatzeko eskumen batzuk esleitzea da, proiektu estrategiko bat gauzatzen ari diren ikastetxeetan. Proiektu estrategikoen ezaugarriak geroago arautuko dira bai estatuan baita autonomia erkidegoetan ere. Ikastetxe horien ezaugarrietako bat curriculumaren espezializazioa litzateke.

Kasu horietan zuzendariaren eskumen berriak honako hauek dira:

- a) Eskaintako irakaspostuak betetzeko berariazko eskakizunak eta meritua finkatzea.
- b) Bitarteko irakaspostuak betetzeko zerrenda orokorretatik datozen irakasleak atzera botatzea, Administrazioak berresten badu.
- c) Proiektuan Zerbitzu Eginkizunetan lanean diharduten irakasleak lanean jarraitu dezaten sustatzea.

g) Ikastetxeetako ebaluazioetako emaitzak jakitera ematearen inguruko aldaketak

Hezkuntza-sistemako ebaluazioetako emaitzak ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko erabiltzeko debekua kendu egin da lege berrian (140. art.). Ikastetxeetako ebaluazioetako emaitzak ikasleek ezaugarrien arabera jakitera ematea 147. artikuluan aipatzen da, baina emaitzak jakitera ematearen baldintzak eta mugak ez dira aipatzen.

h) Beste aldaketa batzuk sistemaren antolamenduan

116. artikulua *hezkuntza-itunak* biltzen ditu, zenbait aldaketarekin:

- Hezkuntza-administrazioei ahalmena ematen die zuzkidura-lurzoruan itunpeko ikastetxeak eraikitze eta kudeatzeko lehiaketa publikoak iragartzeko.
- “Hezkuntza-itunak Lehen Hezkuntzan sei urteko iraupena izango duela, eta gainerako kasuetan, lau urtekoa” xedatzen du.
- Kontuak emateko beharra gehitu du: ikastetxeak eta Administrazioak zenbait arlotan (kontuak ematea, ekintza-planak eta emaitza akademikoen arabera neurriak hartzea) dituzten eskubideak eta betebeharrak itun guztietan finkatuko dira.

Ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeari buruz, 84.3 artikulua xedatzen du *sexuaren aldetiko hezkuntza bereiztua* ez dela diskriminatzailea, eta, beraz, ikastetxe horiek hezkuntza-administrazioekin itunak sinatu ditzaketela.

Bestalde, 109 artikulua Administrazioak funts publikoekin finantzatutako ikastetxe batean plazak bermatzeko duen konpromisoa mantentzen du, baina ikastetxeak publikoak izan behar direlako aipamena kendu egin da. Hain zuzen ere, lehen “nahiko plaza publiko, batez ere hirigune berrietan” zioen lekuan, orain “nahiko plaza” dio.

1.6.3. Ezarpen egutegia

Ezarpen egutegia bukaerako 5. xedapenean finkatzen da. Ezarpena 2014-15 ikasturtean hasiko da Lehen Hezkuntzako irakasmaila bakoitietan eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. mailan.

Egutegiaren arabera, ezarpena 2015-16 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako irakasmaila bakoitietara zabalduko litzateke, eta, baita ere, DBHko eta Batxilergoko irakasmaila bakoitietara.

2016-17 ikasturtean ezarpena gainerako irakasmaila guztietara zabalduko da. DBHko errebalida hasiko da, baina xede diagnostikoarekin. Batxilergoko errebalidak ez du ondoriorik titulua lortzeko, baina ezinbestekoa izango da unibertsitatara sartzeko. LOMCE legearen ezarpen osoa 2017-18 ikasturtean gauzatuko da.

LOMCE legearen ezarpen-egutegia

	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18
Lehen Hezkuntza	- Ezarpena 1., 3., eta 5. mailetan - Azterketa orientagarria 3. mailan	- Ezarpena 2., 4., eta 6. mailetan - Azterketa orientagarria 6. mailan		
DBH		- Ezarpena 1 eta 3. mailetan - 3. Mailan matematika mota hautatuko da	- Ezarpena 2 eta 4. mailetan - 4. Mailako errebalidak ez du ondorio akademikorik izango	Errebalida eskatuko da Graduatu titulua eskuratzeko
Batxilergoa		Ezarpena 1. mailan	- Ezarpena 2. mailan - Errebalida eskatuko da unibertsitatera sartzeko. Selektibitatea desagertuko da	Errebalida eskatuko da Batxiler titulua eskuratzeko eta unibertsitatera sartzeko
Lanbide Heziketa	- Ezarpena Oinarrizko LHko 1. mailan	Ezarpena Oinarrizko LHko 2. mailan eta Erdi Mailan		

1.6.4. LOMCE legearen garapenerako lehen neurrien analisia

Txosten hau onesteko orduan, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko curriculumak finkatzen dituen errege dekretuaren proiektua ezaguna da, eta dekretua irakurri ondoren honako ondorio hauek atera ditugu:

- Curriculumaren elementuek beste ikuspuntu bat hartu dute titulu akademikoak lortzeko amaierako azterketak ezarri direnetik. Orain arte, bai errege dekretuetako eduki errealak bai autonomia erkidego bakoitzeko administrazioak eransten zituenak ikastetxeek egokitzen zituzten, curriculumaren gainerako elementuekin batera. Ebaluazioa ikastetxeek gauzatzen zuten, eta ebaluazioak bazuen eragina titulua eskuratzeko; curriculum ofizialak orientagarriak ziren, erreferentzia bezala erabiltzen ziren. Orain, errege dekretuko curriculum bakoitzeko edukiak eta ebaluazio-estandarrek agindu zuzenak izango dira hezkuntza-etapa bakoitzaren amaierako azterketetarako, autonomia erkidegoko administrazioak garatzen dituen edukiak eta ikastetxe bakoitzean ikasleei nola egokitzen zaizkien kontuan izan gabe.

- Oinarrizko hezkuntza-konpetentziak edukietan oinarritutako ohiko ikaskuntzaren osagarri hutstzat hartzen dira orain. Izan ere, Lehen Hezkuntzako Gizarte Zientziak, DBHko Geografia eta Historia, Batxilergoko Espainiako Historia edo Filosofia irakasgaiak aztertzen baditugu, edukiak kontzeptu zerrenda batean biltzen dira, prozedurazko edukien ordeiz. LOE legearen garapenerako dekretuetan arruntagoak ziren prozedurazko edukiak kentzea hezkuntza-konpetentzien trataeran atzerapauso bat da.
- Aipatutako irakasgaietako curriculumak gainkargaturik daude, bereziki Espainiako Historiakoak. Euskadik zenbait arlotan (kultura, geografia, ekonomia, gizarte eta historia) berezko curriculum-edukiak autonomia erkidegoko dekretuen bidez sartu behar ditu. Errege dekretuaren proiektuan finkatzen den eskola-ordu kopuruarekin, irakasgai horiek sartzeak ezinezkoa dirudi.

1.7. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadin jaiotza kopurua etengabe hazi da azken hogeitaz urteetan zehar, 90eko hamarkadaren erdian urtean 15.000 jaiotza izatetik 2011n 21.000 baino gehiago izatera pasa baita. Hala ere, 2012tik aurrera joera beheranzkoa izan da, 2013an areagotu egin delarik. Ondorioz, matrikularen beharraren presioa hasierako irakasmaitan txikiagoa izan da, bi hirigunetan bereziki, Vitoria-Gasteizen eta Bilbo Handiaren eremuan, mantendu den arren.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetan, guztira, matrikulak hazten jarraitu du, jaiotza-tasaren joera historikoaren ondorioz, arestian aipatu den bezala. 2012-13 ikasturtean matrikula % 1,8 hazi da, 353.000 ikasle baino gehiago matrikulatu baitira.

Ikasleen banaketa bi hezkuntza-sareetan % 50ean mantendu da ia, nahiz eta Haur Hezkuntzako 1. Zikloan eta Batxilergoan itunpeko ikastetxeetako matrikulak gorakada txiki bat izan duen, eta DBHn eta Lanbide Heziketan, ikastetxe publikoetakoak. Hain zuzen ere, 2012-13 ikasturtean ikasle guztien % 50,8 ikastetxe publikoetan matrikulatu da.

Ikasleen ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturei dagokienez, PISA ebaluazioetatik eta LHko 4 mailako eta DBHko 2. mailako ebaluazio diagnostikoetatik hartutako datuen arabera, hezkuntza-sare publikoko ikasleek ISEK indize apalagoa dute. Bese alde batetik, Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, dirulaguntzadunen tasa eta atzerriko ikasleen tasa handiagoak dira.

Informazio-turri horiek kontuan izani k, ISEK indizea hezkuntza-sare/irakasteredu sei geruzetan aztertzen bada, denbora pasa ahala geruza minoritarioen ezaugarriak areagotu egin direla ikus daiteke eta euren tamaina txikitu egin dela. Hain zuzen ere, A eta B eredu publikoen geruzetako ISEK indizea jaitsi egin

da, eta itunpeko A ereduaren geruzakoa, berriz, igo. Ondorioz, hezkuntza-sare bereko irakastereduen arteko aldeak ere handitu egin dira.

Geruza maioritarioei dagokionez, D eredu publikoaren geruzako ISEK indizea hein txikiagoan jaitsi da; itunpeko D ereduaren geruzan igo egin da, eta itunpeko B ereduaren geruzan mantendu egin da.

Oro har, hezkuntza-sare bakoitzeko ISEK indizeak etapetan zehar izan duen bilakaera aztertzen bada, haien arteko aldea Lehen Hezkuntzan DBHn baino handiagoa dela ikus daiteke, atzerritar ikasleen tasarekin gertatzen den bezala, handiagoa baita hasierako irakasmailetan.

(P1) Hori dela eta, Kontseiluak bi hezkuntza-sareetako ikasleen jatorri sozio-ekonomiko eta kulturalen arteko aldea –eta sare bakoitzaren barruan, irakastereduen artekoa– gero eta handiagoa delako aztarnak ikusten ditu. Beraz, Hezkuntza Sailari eskatzen dio auzia sakonki aztertu dezan eta hezkuntza-sistema osoaren kalitatea hobetzera bideratutako neurriak proposatu ditzan.

Hezkuntza-sistemaren euskalduntzeari dagokionez, D ereduak aurrera jarraitu du eta hasierako irakasmailetan lau ikasletarik hiru hartzen ditu ia. Hezkuntza-sare publikoan D ereduaren pisua itunpeko hezkuntza-sarean baino handiagoa da, Haur Hezkuntzako 2. zikloan ikasleen % 90 hartzen baitu, eta itunpeko ikastetxeetan ikasleen % 55. Beste muturrean, berriz, A ereduak hezkuntza-sare publikoko ikasleen % 2 bakarrik hartzen du, eta itunpeko sareko ikasleen % 8.

Araubide bereziko irakaskuntzen arloan, 2012-13 izandako aldaketarik handiena Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikularen gorakada izan da, 29.000 ikasle baino gehiago matrikulatu baitira, haien erdia ingelesa ikasteko.

Kontseiluak ontzat hartzen du plazen eskaintza gehitzea, batez ere ingeleseko titulua duten ikasleen kopurua handitzea bultzatzen baitu, eta hori hezkuntza-sisteman hirueletasuna garatzeko ezinbestekoa baita.

Estatuko hezkuntza-sistemaren antolamenduari dagokionez, 2013ko abenduan *Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE)* argitaratu da. Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi du legea ez dela beharrezkoa, gutxienez Euskadin, finkatzen dituen helburu ia guztiak LOE aurreko lege organikoaren esparruan lortu baitira.

Egindako analisisian oinarriturik, LOMCE indarrean jartzeak honako ondorio hauek ekarriko lituzkeela ondorioztatu daiteke:

- Amaierako ebaluazioek edo errebalidek, estatuko gobernuaren esku, tituluak eskuratzea eta ikasleek ikasten jarraitzea idatzizko azterketa bakar bat gainditzearen baldintzapean jarriko lukete.
- Derrigorrezko hezkuntzan ikasleak ikasketa ezberdinetan –akademikoetan eta profesionaletan– goiz banatzea atzerapauso bat izango da oraingo hezkuntza-sistema muinbakarrarekiko.

- Eskumenak estatuan zentralizatzea, Euskadiko Autonomia Estatutuan finkatutakoak murrizten baititu.
 - Oso aginduzko curriculumak; ikastetxeei eta irakasleei ez die aukerarik ematen euren errealitatera eta ingurunera moldatzeko, hezkuntza-sistemaren funtzionamenduaren eraginkortasunaren kalterako.
 - Irakasgai tronkalen proposamen hertsia; eskola-orduen % 50 hartzen dutenez, ikastetxeek euren eskola-ordutegiak diseinatzeko dituzten aukerak murriztu egiten dira.
 - Lehen Hezkuntzako zikloak desagertzeak irakaskuntza epe luzeagoetara planifikatzeko aukera galarazten du. Orain arteko sistemak ikasleek erritmo ezberdinekin ikastea eta aniztasunari hobeto egokitzea ahalbidetzen zuen, eta ikasleek ziklo bakoitzeko konpetentziak, helburuak eta edukiak eskuratzeko zituzten aukerak handiagoak ziren.
 - Oinarrizko Lanbide Heziketaren diseinuak eta Lanbide Heziketako Erdi Mailara sartzeko baldintzak malgutzeak baliogabetu egiten dituzte ikasketa horiek, bigarren mailako hezkuntza-ibilbide bihurtzen dutelarik. Ondorioz, zenbait adierazleren hobekuntza zaildu egiten da, bereziki lana aurkitzeko aukera.
 - Eskumen erabakitzaileak eskola kontseiluetatik zuzendariaren eskuetara pasatzeak banako zuzendaritza mota ekarriko du, zuzendaritza demokratikoagoa eta erantzunkideagoa alde batera utzirik. Atzerapauso nabarmena da familiek ikastetxearen kudeaketan duten partaidetzan eta hezkuntza-sistemaren kalitatean.
- (P2) Hori dela eta, Kontseiluak erabat gaitzesten du LOMCE legea, gure hezkuntza-sistemara ez dela egokitzen irizten baitu, eta, baita ere, legearen ezarpena gure hezkuntza-sisteman azken hamarkadetan izan den aurrerapenerako eragozpen handia izango litzatekeela.***

Kontseiluak Hezkuntza sailari eskatzen dio, legearen mugen barnean, ahal den neurrian LOMCE legearen eragin kaltegarriak minimizatzen saiatu dadin. Euskadiko Eskola Kontseiluak bere aldetik helburu horri lehenesteko konpromisoa hartu du.

2. ATALA. IKASTETXEETAKO PROZESUAK: EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA, ANTOLAMENDUA

SARRERA

2012-13 ikasturtean bi ebaluazio egin dira: PISA ebaluazioa, 15 urteko ikasleentzako, eta ebaluazio diagnostikoa, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleentzako. Atal honetan ISEI-IVEIk ebaluazio horiei buruz egin dituen txostenetako emaitzarik garrantzitsuenak bildu dira, eta baita Hezkuntza Ikuskaritzak ikasleen emaitza akademikoez emandako datuak ere.

Ebaluazio diagnostikoaren eta emaitza akademikoen analisia egiteko orduan, emaitzen banaketa geografikoa hartu da kontuan, eskola-barrutien arabera lehen kasuan eta eskola-guneen arabera bigarren kasuan.

Ikasleen ebaluazioa Hezkuntza Marko Hirueleduna (HMH) proiektuaren lehen faseko emaitzekin bukatzen da.

Ebaluatu den beste gizatalde bat 2009-10 ikasturtetik eta 2012-13 ikasturtera ikastetxe publikoetan 4 urteko agintaldia izan duten zuzendariena izan da; ebaluazio positiboak beste lau urteko izendapenerako gaitzen zituen, aukeraketa-prozesu berria gainditu beharrik izan gabe.

Atala irakasleentzako eta ikastetxeentzako prestakuntza eta berrikuntza jarduerekin bukatzen da.

2.1. PISA 2012 EBALUAZIOA

PISA ebaluazioa lau aldiz gauzatu da Euskadin eta 2012koa azkena izan da. Normalean ebaluatu ohi diren konpetentziez gain (Matematika, Irakurketa eta Zientzia), Problemen ebazpena, Matematika eta Irakurketa euskarri digitalean ebaluatzeko proba bat ere gauzatu da.


2.1.1. Emaitzen bilakaera ELGAren eta Espainiaren esparruetan

Ebaluatutako hiru konpetentzietan. Euskadiko emaitzak ELGAko batez bestekoak baino hobeagoak izan dira.

a) Matematika


Aurreko ebaluaziotik bost puntu jaitsi arren, Euskadiko emaitzak Euskadiko batez bestekoak ELGAkoa 11 puntuz gainditu ditu, eta Espainiakoa 21 puntuz.

PISA. Matematikarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia




Estatuaren esparruaren barruan konparazioak egin ahal izateko, hurbiltasun geografikoa, hizkuntzen egoeraren kidetasuna edo emaitzen kalitatea aintzat harturik, lau autonomia erkidego hautatu dira: Nafarroa, Gaztela eta Leon, Katalunia eta Asturias. Lehenengo biek puntuazio onak lortu dituzte, bereziki Nafarroak, Estatuko altuena Matematikarako konpetentzian. Kataluniako puntuazioa, berriz, apalagoa izan da, ELGAko batez bestekoaren parekoa.

PISA. Matematikarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta beste zenbait autonomia erkidego



Europaren esparruko konparazioak egiteko, erreferentzia gisa bi herrialde hautatu dira, Alemania eta Frantzia -azken hori mugakidea- ekonomian eta politikan duten garrantziagatik, eta beste bi herrialde, Finlandia eta Herbehereak, emaitza onak lortzeaz gain biztanleria antzekoagoa dutelako.


PISA. Matematikarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta Europako lau herrialde



b) Irakurketa


Ikasle gehienek (% 84) proba gaztelaniaz egin dute, eta gainerakoek (% 16), euskaraz. Hobekuntza txiki bat izan da aurreko ebaluazioarekiko, eta puntuazioa (498) ELGAko batez bestekoaren parekoa izan da, Espainiakoa baino hamar puntu altuagoa.

PISA. Irakurketarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia




Hautatutako gainerako lau autonomia erkidegoekin konparaturik, Euskadiko puntuazioa apalagoa izan da, eta Nafarroako eta Kataluniako puntuazioetan izandako gorakada aipatu beharko litzateke.

PISA. Irakurketarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta beste zenbait autonomia erkidego



Europaren esparruari dagokionez, Finlandiak gainerako herrialdeei ateratzen zien aldea murriztu egin da, eta Alemaniak puntuazio altuagoak lortu ditu.


PISA. Irakurketarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta Europako lau herrialde



c) Zientzia


Euskadin hiru konpetentzietan lortutako puntuaziorik altuena (506) Zientziakoa izan da. Euskadiko puntuazioa hamaika puntu igo da 2009ko ebaluaziokoarekiko eta Espainiako batez bestekoari hamar puntuko aldea ateratzen dio.

PISA. Zientziarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia.




Autonomia erkidegoei dagokienez, Gaztela eta Leoneko puntuazioa (519) Estatuko altuena izan da, Nafarroakoa (514) finkatu egin da, eta Asturiasekoak (517) gorakadarik handiena izan du. Kataluniak, aitzitik, beheranzko joera mantendu du konpetentzia honetan, eta Euskadiko puntuaziotik 14 puntura geratu da.

PISA. Zientziarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta beste zenbait autonomia erkidego



Europaren esparruko konparazioari dagokionez, Finlandiak oso puntuazio nabarmena lortu du, Alemania eta Holanda beherago geratu direlarik.

PISA. Zientziarako konpetentziako puntuazioak azken lau ebaluazioetan: Euskadi eta Europako lau herrialde




d) Problemen ebazpena eta Matematikako eta Irakurketako proba digitalak.

PISA 2012 ebaluazioan, ohiko konpetentziak (Matematika, Irakurketa eta Zientzia) ebaluatzeko paper-euskarriko probaz gain, ordenagailu bidezko proba konbinatu bat (CBA) egin zen, Problemen ebazpeneko, Matematikako eta Irakurketako ariketek osatutakoa.

PISA 2012 ebaluazioan honela definitu zen problemen ebazpenerako konpetentzia: *“Itxuraz ebazpen nabaririk ez duten egoera arazotsuak ulertzeko eta bideratzeko behar diren ezagutza-prozesuak abiarazteko gaitasun indibiduala da. Herritar ekintzaile eta gogoetatsu bezala hazteko, egoera horiekiko konpromisoa hartzeko borondatea ere barne hartzen du”.*

Euskadiko ikasleek konpetentzia digital horietan lortutako puntuazioak, eta batez ere Problemen ebazpenerako konpetentzian lortutakoak, ELGAko batez bestekoak baino apalagoak izan dira, lautik zortzira arteko puntu apalagoak.

PISA 2012. Problemen ebazpeneko, eta Matematikako eta Irakurketako proba digitaletan lortutako emaitzak.




Konpetentzia digitaletako puntuazioen apaltasuna, oro har, handiagoa da Espainiaren kasuan. Euskadiko eta Espainiako puntuazioen arteko aldea ohiko hiru konpetentzietan, batez beste, 14 puntukoa bazen (21 puntukoa Matematikan eta 10 puntukoa Irakurketan eta Zientzian), Problemen ebazpenerako konpetentzian aldea 19 puntura igo da.

2.1.2. Geruzen araberako analisia

Hiru konpetentzietako emaitzak sei geruzetan (hezkuntza-sarea/irakasteredua) aztertzen badira, ohartzen den lehenengo gauza ISEK indizearekin duten erlazioa da.

PISA 2012. Ikasleen ISEK indizea eta hiru konpetentzietako emaitzak, geruzen arabera

Geruza	Ikasleen %	ISEK	Etorkinak %	Irakurketa	Matematika	Zientzia
						
A publikoa	% 5,0	-0,89	% 62	419	410	435
B publikoa	% 5,3	-0,32	% 21	462	465	471
D publikoa	% 34,7	-0,05	% 5	490	503	501
A itunpekoa	% 10,5	0,43	% 12	516	519	529
B itunpekoa	% 21,8	0,20	% 5	519	516	519
D itunpekoa	% 22,7	0,06	%100	508	523	512
Euskadi	% 100,0	0,03	% 8,7	498	505	506



Matematan, sei geruzetako emaitzak ELGAren esparruan euren ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen emaitzekin (grafikoko zuzena) konparatzen baditugu, ikasle gehien duten lau geruzetako puntuazioak espero zitezkeenak baino altuagoak izan direla ikus daiteke, Euskadin konpetentzia horretan lortu diren puntuazio altuen ildotik. Konpetentzia horretan itunpeko D eredua nabarmendu da. Bi geruza minoritarioak, A eta B eredu publikoak, euren ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen puntuazioen azpitik geratu dira, biak ISEK indize apalagoarekin.

Beste bi konpetentzietan geruzen arteko kokagune erlatiboak aztertzen baditugu, itunpeko A eredua Zientzian (519) nabarmendu dela ikus dezakegu eta


itunpeko B eredua, Irakurketan (519), baina D eredu publikoa Irakurketan (490) apur bat beherago geratu dela. A eta B eredu publikoek berriro lortu dituzte ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino puntuazio apalagoak bi konpetentzia horietan.

2.1.3. Ikasleen sexuaren eta jatorriaren eragina

a) Sexua

PISA ebaluazioko 15 urteko ikasleen artean, mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte Matematikan (14 puntu) eta Zientzian (9 puntu), baina Irakurketan askoz puntuazio apalagoa (30 puntu gutxiago) lortu dute. PISA ebaluazioetan zehar Euskadiko mutilen puntuazioek nesken puntuazioekiko hobera egin dute hiru konpetentzietan.

PISA 2012. Ebaluatutako hiru konpetentzietako emaitzak ikasleen sexuaren arabera.



ELGAko mutilekin konparaturik, Euskadiko mutilen puntuazio erlatiboak nesken puntuazioekiko hobeagoak izan dira batez ere Irakurketan eta Zientzian, eta Espainiakoen antzekoak.


PISA 2012. Sexuen arteko puntuazio-aldeak Euskadin, ELGAn eta Espainian

		<i>Mutlak</i>	<i>Neskak</i>	<i>Mutlak-Neskak Puntuazio-aldea</i>
Matematika	Euskadi	512	498	14
	ELGA	499	489	11
	Espainia	492	476	16
Irakurketa	Euskadi	483	513	-30
	ELGA	478	515	-38
	Espainia	474	503	-29
Zientzia	Euskadi	510	501	10
	ELGA	502	501	1
	Espainia	500	493	7

b) Ikasle etorkinak

PISA 2012 ebaluazioan Euskadiko laginean 15 urteko ikasle guztien % 8,7 etorkinak ziren, geruzetan oso modu desorekatuan banaturik: A eredu publikoko % 62tik itunpeko D eredu % 2 eta apur bat gehiagora, 2.1.2. azpiatal honetako lehen taulan azaltzen den bezala. Ikasle horiek bertako ikasleek baino askoz puntuazio apalagoak lortu dituzte, 70 puntu gutxiago Zientzian eta 86 puntu gutxiago Matematikan.

PISA 2012. Ebaluatutako hiru konpetentzietako emaitzak ikasleen jatorriaren arabera



PISA 2009 ebaluazioarekin konparaturik, Matematikako puntuazio-aldea murriztu egin da (96 puntukoa zen) eta Zientziakoa handitu egin da (71 puntutik 74ra).

Gainera, Euskadiren kasuan, puntuazio-aldeak konparazioetarako erabili diren esparru geografiko guztietako handienak dira, ELGAko herrialdeetako batezbestekoa baino bi aldiz handiagoak.

PISA 2012. Ikasle etorkinen eta bertako ikasleen arteko puntuazio-aldea zenbait esparru geografikotan.

	Matematika	Irakurketa	Zientzia
Euskadi	86	74	70
ELGA	37	30	42
Espainia	52	48	48
Katalunia	70	72	68
Gaztela eta Leon	68	62	61
Nafarroa	72	47	45

2.2. 2013ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2013ko ebaluazio diagnostikoak garrantzi berezia hartu du, aurreko eta ondorengo urteetan ez baita ebaluaziorik egin, 2009tik 2011ra bitartean hiru urteko segida jarraitua eten delarik. Txosten honetan egindako lau ebaluazioetako datuak jaso dira, ISEI-IVEIk argitaratu dituen moduan.

2013ko ebaluazioan agian emaitzei eragin ahal izan zieten hiru aspektu izan dira: lehena, erabilitako euskarri digitala; bigarrena, informatika-arazoak direla eta balio gabetutako erantzun kopurua ohikoa baino handiagoa izatea; eta azkenik, gizarterako konpetentzia eta zientziarako konpetentzia proba berean ebaluatzea.

Datuak aurkezteko Lehen Hezkuntzako 4. mailako proba eta DBHko 2. mailako proba banatu egin dira. Proba bakoitzaren barruan bost konpetentzietako datuen bilakaera (Euskara, Gaztelania, Matematika, Zientziarako konpetentzia eta Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia) aztertu da, eta baita emaitzei lotutako faktore nagusien eragina eta geruzen eta esparru geografikoen arabera ere. 2012-13 txosten honetan, Kontseiluak lehenengoz eskuratu ditu ikasleen emaitzak eskolaguneen arabera, ISEI-IVEIk horretarako bereziki emandako dokumentazioari esker.


2.2.1. ED 2013 ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

Irakasmila horretako ikasleak txosten honetan jaso diren ebaluazio guztietako ikaslerik gazteenak dira. Beraz, bai ikasleen ezaugarrien aldetik bai ebaluazioko emaitzen aldetik, Lehen Hezkuntzako 4. mailak oso argi islatzen ditu gizartean eta hezkuntzan izandako azken aldaketak. Ebaluatutako gainerako irakasmailek urteetan zehar eskolatze-jardueran eta konpetentzien garapenean metatutako hondarrak dituzte, eta eskala handiko aldaketek hein txikiagoan eragiten diete.

2.2.1.1. Emaitzen bilakaera

Azken ebaluazioarekin konparaturik —2011koa, 2010eko edo 2009koa, konpetentziaren arabera—, Gaztelaniako puntuazioa 261 puntura igo da (5 puntu), eta Gizartekoa apur bat igo da. Matematikakoa eta Euskarakoa, berriz, 2 eta 4 puntu jaitsi dira, eta Zientziarako konpetentziako puntuazioak jaitsiera handia izan du, 236 punturaino.


ED 2013. LH 4. Bost konpetentzietako emaitzen bilakaera lau ebaluazioetan zehar.



Lehen ebaluaziotik azkenera pasa diren lau ikasturtetan zeharko konparazioan, garapenaren neurria puntuazio absolutuek adierazten dute, eta, beraz, Gaztelanian konpetentziak hobera egin duela ondorioztatu daiteke eta Zientzian, berriz, jaitsi egin dela. Gainerako konpetentzietan hobekuntza txikiak izan dira, batetik hirura arteko puntukoak.

Ildo horretatik, hasierako konpetentzia-mailako ikasleen ehunekoa 5 puntu baino gehiago jaitsi deneko konpetentzia bakarra Gaztelania izan da. Euskarari eta Matematikari ere jaitsiera bat izan da, 2 eta 3 puntu artekoa. Gizartearen, berriz, igoera txiki bat izan da, eta Zientzian, igoera nabarmena.

ED 2013. LH 4. Hasiera maiako ikasleen ehunekoa bost konpetentzietan lau ebaluazioetan zehar.



2.2.1.2. Emaitzei loturiko faktore nagusiak


Hurrengo atalean beste aldagai batzuekin batera aztertuko den ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturelez gain, badira emaitzekin lotura nabarmena duten bi faktore nagusi, ikasleen sexua eta familian erabiltzen duten hizkuntza, alegia.

PISA 2012 ebaluazioari buruzko txostenean ez bezala, 2013ko ebaluazio diagnostikoari buruzko txostenetan ikasle etorkinen emaitzak ez dira bereizi.

a) Ikasleen sexua

Beheko irakasmaila honetan neskak hiru konpetentzietan nabarmentzen dira —Euskara, Zientzia eta Gizartea—, mutilei hamar puntu baino gehiagoko aldea aterata baitiete. Mutilek neskek baino puntuazio apur bat hobeak lortu dituzte Matematikan eta Gaztelanian.


ED 2013. LH 4. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikasleen sexuaren arabera



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien artean, etxean euskara % 24,8k erabiltzen dute. Aurreko ebaluazioetan egiaztatu den bezala, ikasle horiek emaitza nabarmenki hobeagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan Gaztelanian izan ezik, eta konpetentzia horretan puntuazio-aldea ez da handia.

ED 2013 ebaluazioan etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek gaztelania edo beste hizkuntza erabiltzen dutenek baino 27 puntu gehiago lortu dituzte Euskarari, 16 puntu gehiago Matematikan eta Zientzian, eta 12 puntu gehiago Gizartean, baina 4 puntu gutxiago Gaztelanian.

ED 2013. LH 4. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera



2.2.1.3. Geruzen eta eskola-barrutien arabera

a) Geruzen arabera

Lehenengo eta behin, sare/irakasteredu geruzen osaera bera azpimarratu beharko genuke, arestian deskribatu dugun PISA 2012 ebaluazioan zuten osaerarekin


konparatzen badugu. Bi populazio-multzo horien artean sei urteko aldea dago, Lehen Hezkuntzako 4. mailako adin teorikoa 9 urtekoa baita, eta PISA ebaluazioa 15 urteko ikasleentzat baita.

Hori dela eta, Lehen Hezkuntzako 4. mailako datuak modernoagoak dira hezkuntza-sistemaren bilakaeraren aldetik eta familien hautaketen aldetik, eta geruzen multzoaren oraina eta geroa argiago adierazten dute. Multzoaren osaera honako hau da: geruza maioritario bat (D publikoa), tarteko bi geruza (itunpeko D eta B), bi geruza minoritario (B publikoa eta itunpeko A) eta oso minoritarioa den beste geruza bat (A publikoa). Geruzen analisia eta bilakaera, eta ikasleen ezaugarri soziologikoak 1. atalean deskribatu dira.

Geruzetako emaitzei gagozkielarik, sakabanatzerik handiena Euskaran gertatu da, A, B eta D irakastereduetan.

ED 2013. LH 4. ISEK indizea eta ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak geruzen arabera

Geruza	Ikasleak geruzan	ISEK	Euskera	Gaztelania	Matematika	Zientzia	Gizartea
							
A publikoa	% 1,5	-1,19	185	239	215	230	248
B publikoa	% 5,8	-0,58	231	255	241	222	238
D publikoa	% 43,5	-0,18	257	257	249	233	246
A itunpekoa	% 4,7	0,71	215	273	265	259	285
B itunpekoa	% 20,8	0,19	244	269	258	236	254
D itunpekoa	% 23,7	0,25	265	261	258	241	253
Euskadi	% 100,0	0,00	252	261	253	236	251




Azpimarratu beharreko beste faktore bat Matematikako emaitzek Gaztelaniakoek baino aldakortasun handiagoa izatea da. Itunpeko A ereduaren geruza Gaztelanian nabarmentzen da, baina batez ere Gizartean, Matematikako emaitzak apalagoak diren arren.

Oro har, A ereduaren bi geruzetan Zientzian eta Gizartean puntuazio altuak lortu dira.

b) Lurraldeen eta eskola-barrutien arabera

Mapari begirada orokor bat ematen badiogu, barrutiz barrutiko informazioa eskuragarri dagoen hiru konpetentzietan, ikasleek erabiltzen duten hizkuntzaren faktorearen eragina oso argia da bi hizkuntza-konpetentzietan. Matematikaren kasuan, Gipuzkoako puntuazioa Bizkaikoa baino sei puntu altuagoa da, eta Arabakoa baino bi puntu altuagoa.

ED 2013. LH 4. Hiru konpetentzietako emaitzak lurraldeen arabera.



Hizkuntzaren aldetiko ezaugarriez gain, Arabako ikasleen ISEK indizea batez bestekoa baino apur bat baxuagoa da; ikasle etorkinen tasak handiagoak dira, eta ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen ehunekoa ere handiagoa da.

ED 2013. LH 4. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentzietako emaitzak lurraldeen arabera

Lurraldea	Ikasleak	Ikasleen ezaugarriak			% ikast. pub.	Emaitzak		
		ISEK	Etork. %	E.H. Eus%		Matem.	Euskara	Gaztel.
Araba	3.104	-0,05	9,0	8,6	58,7	254	244	265
Bizkaia	10.485	0,01	5,3	17,6	49,1	250	249	263
Gipuzkoa	7.088	0,01	4,2	42,7	50,1	256	260	256
Euskadi	20.677	0,00	5,5	24,9	50,9	253	252	261

Banaketa geografikoa eskola-barrutien arabera egiten badugu, ikasleen kopurua eta euren ezaugarrien adierazleak ondorengo taulan azaltzen dira.


Ondoren datozen hiru grafikoetan konpetentzia bakoitzeko emaitzak azaltzen dira. Planoan oso argi ikus daitezke ikasleen ezaugarriak eta emaitzak, eta, baita ere, kolore-sorta baten bidez, euskararen hizkuntza-adierazlea (horren banaketa geografikoa 6. mapan azaltzen da). Ikasleen kopurua zirkuluaren azalerak adierazten du.

ED 2013. LH 4. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentzietako emaitzak eskola-barrutien arabera

Eskola-barrutiak		Ikasleak	Ikasleen ezaugarriak			% ikast. publiko	Emaitzak			
			ISEK	% Etork	EH Eus		Matem	Euskara		Gaztel.
								Bataz b.	hasierako%	
11-13-14	Araba gainerakoa	559	-0,18	6	9	59	244	247	36,1	261
12	Vitoria-Gasteiz	2.545	-0,03	10	9	59	256	243	37,7	266
21	Deba Garaia	635	-0,08	3	55	47	256	262	23,0	253
22	Bajo Deba	478	-0,10	5	47	73	258	263	20,1	254
23	Goierri	683	-0,04	5	52	49	258	268	19,3	256
24	Urola-Kosta	814	0,02	4	70	52	264	272	14,8	254
25	Tolosalde	515	-0,07	2	70	44	261	266	19,3	253
26	Lasartealde	578	-0,24	3	46	60	249	259	25,7	250
27	Donostia	1.915	0,31	5	25	38	257	253	28,3	262
28	Errenteria	677	-0,30	4	34	47	248	254	29,2	254
29	Bajo Bidasoa	793	-0,04	5	26	67	253	253	29,7	260
31	Busturia	456	-0,06	7	59	50	252	260	22,0	256
32	Lea-Artibai	256	-0,04	4	78	68	261	270	17,8	257
33	Duralgaldea	1.065	-0,05	4	35	53	250	256	25,4	258
34-35	Arratia-Nerbioi	947	-0,10	4	18	82	248	256	27,6	259
36	Enkarterri	297	-0,06	4	9	53	232	238	43,1	259
37	Meatzaldea	386	-0,30	2	6	60	239	241	39,4	257
38	Txorierr	980	0,69	2	21	29	268	253	29,4	274
39	Eskuinaldea	1.445	0,31	5	14	47	255	250	33,3	269
41	Barakaldo	920	-0,28	7	3	50	244	236	44,0	262
42	Ezkerraldea	1.065	-0,27	4	8	48	250	247	34,6	261
43	Bilbao	2.668	-0,07	8	10	41	248	245	36,6	263
	Euskadi	20.677	0,00	5,5	24,8	51	253	252	30,6	261

Matematikako emaitzak aztertzen baditugu, oso deigarria da barruti euskaldunetako balio erantsi handia, Urola-Kostan, Tolosan edo Lea-Artibain –euskara ikasleen % 70 edo gehiagoren etxeko hizkuntza deneko barrutietan–, ISEK indizea kontuan izanik espero zitekeen puntuazioa baino 10 puntu altuagoa izan baita. Alderdi hori aurreko azpiatalean ere aipatu da, etxeko hizkuntzaren eragina aztertzerakoan.

ED 2013. LH 4. Matematikako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)




Puntuazio absoluturik altuena (268) Txorierrin izan da, kasu horretan barruti guztietako ISEK indizerik altuenarekin (0,69) bat datorrelarik. Beste muturrean aipatzeko modukoa da Enkarterrin lortutako puntuazioa (232) puntuazio absoluturik apalena.

Analisiaren beste ikuspegi bat ISEK indize eta hizkuntza-adierazle berdintsua duten barrutietako puntuazioen arteko konparazioa egitea izan daiteke; hartara, Vitoria-Gasteizek Bilbok baino puntuazio hobeak lortu ditu, eta Ezkerraldeak (Barakaldo sartu gabe) Meatzaldeak baino puntuazio hobeak. Nolanahi ere, analisi horren balioa askotariko sistema, proba eta ikasleen ebaluazioetako datuak metatu ondoren ezagutuko dugu.

Euskarako emaitzen analisisan, etxeko hizkuntzaren eragina erabatekoa da, antzeko ISEK indizea eta hizkuntza-adierazlea duten barrutien artean aldeak ikusten diren arren, adibidez Lea-Artibai (270) eta Busturia (260) barrutien artean.

ED 2013. LH 4. Euskarako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)




Dimentsio horizontalean, etxeko hizkuntzak ez du azaltzen Arratia-Nerbioi eta Txorierrri barrutietako emaitzen antzekotasuna, euren ISEK indizea hain ezberdina izanik. Kasu horretan, azalpena irakastereduen hautaketan datza, Arratia-Nerbioin irakasteredurik hautatuena D eredua baita, eta Txorierrin, berriz, A eredua. Irakastereduegatiko euskalduntze-indizeak (1.15 eranskina) gauza bera adierazten du.

Etxeko hizkuntzak badu bere eragina Gaztelaniaren kasuan ere, Euskararen kasuan baino apalagoa den arren. Aipatzeko modukoa litzateke Txorierrri (274) eta

Eskuinaldea (269) barrutien arteko konparazioa. Aipatu behar da, baita ere, eskola-barruti guztietan gutxienez 250 puntu lortu direla. Puntuazio hori 2009ko ebaluazioko batez besteko puntuazioa izan zen, eta datu horrek hizkuntza horretako kompetentzia egiaztatzen du.

ED 2013. LH 4. Gaztelaniako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)




2.2.2. ED 2013 ebaluazioa DBHko 2. mailan

2.2.2.1. Emtzen bilakaera

2011ko ebaluazioarekin konparaturik —edo 2010ekoarekin edo 2009koarekin, kompetentziaren arabera—, Euskarari, Gaztelanierari eta Matematikari lortutako puntuazioak ia berdintza mantendu dira, baina Zientzietan (-12) eta Gizarteetan (-4) jaitsi egin dira.


2009ko lehen ebaluaziotik pasa diren lau ikasturteetan Euskarari puntuazioak 6 puntu igo dira, eta Gaztelanierari, 3 puntu. Matematikari ez da ia aldaketarik izan, eta gainerako bi kompetentzietan arestian aipatutako jaitsiera gertatu da.

ED 2013. DBH 2. Hasierako mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera bost kompetentzietan lau ebaluazioetan zehar



Hasierako kompetentzia-mailan dauden ikasleen ehunekoa kompetentzia guztietan 5 puntu murrizteko helburua⁵ez da bete, Gizarterako kompetentzian bakarrik murriztu baita (- 2); Zientzian (+4) ikasleen ehunekoa nabarmenki igo da, Euskararen eta Gaztelanian apur bat igo da —Euskararen % 38ra heldu da—, eta Matematikaren mantendu egin da.

ED 2013. DBH 2. Hasierako mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera bost kompetentzietan lau ebaluazioetan zehar




2.2.2.2. Eraitzei loturiko faktore nagusiak

a) Ikasleen sexua

Neskek puntuazio altuagoak lortu dituzte bost kompetentzietako lautan, baina bitan bakarrik modu adierazgarrian: Euskararen (13 puntu) eta Gizartean (12 puntu); Matematikaren mutilek puntuazio apur bat altuagoa lortu dute.

⁵Helburua aurreko legealdian finkatu zen, eta ISEI-IVEIk txostenetan jasoa du, Lehen Hezkuntzako 4. mailako txostenean, 106. orrialdean hain zuzen

ED 2013. DBH 2. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikasleen sexuaren arabera




b) Etxeko hizkuntza

DBHko 2. mailako ikasleen artean % 19,7ren etxeko hizkuntza euskara da, ikasle guztien bosten batena, Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino 5 puntu gutxiagorena.

Etaparen horretan jatorri euskalduneko ikasleen alde izan den abantaila mantendu egin da, eta Euskararen eta Matematikaren aldetan 32 eta 19 puntuetara handitu dira, hurrenez hurren (Lehen Hezkuntza, 27 eta 16 puntuko aldea)

ED 2013. DBH 2. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera



2.2.2.3. Geruzen, lurraldeen eta eskola-barrutien arabera

a) Geruzen arabera


Geruzen osakerak antz handiagoa du PISA ebaluazioko osakerarekin Lehen Hezkuntzako 4. mailako ED ebaluaziokoarekin baino.

Geruza minoritarioek (A eta B eredu publikoek), oro har, euren ISEK indizea, berez apala, kontuan izanik espero zitezkeenak baino puntuazio apalagoak lortu dituzte, salbuespena A eredu publikoa Gizarterako konpetentzian izan delarik.

Itunpeko A ereduaren geruzan Gizarterako kompetentziako puntuazioak oso altuak izan dira, Matematikan, berriz, espero zitezkeen puntuazioetara heldu ez badira ere (250). Kompetentzia horretan, berriro ere, itunpeko D ereduaren geruza (262) nabarmendu da.

ED 2013. DBH 2. Ikasleen ISEK indizea eta bost kompetentzietako emaitzak geruzen arabera

Geruza	Ikasleak	ISEK	Euskara	Gaztelania	Matematika	Zientzia	Gizartea
							
A publikoa	% 4,7	-1,06	178	227	205	221	242
B publikoa	% 5,0	-0,57	226	234	228	217	227
D publikoa	% 37,8	-0,10	264	250	251	237	241
A itunpekoa	% 7,8	0,34	205	260	250	251	267
B itunpekoa	% 22,7	0,16	248	259	254	235	246
D itunpekoa	% 22,0	0,24	275	255	262	244	251
Euskadi	% 100,0	0,00	256	253	251	238	246




Hizkuntza-kompetentzietan irakastereduaren eragina mantendu egin da, euskararen kasuan handiagoa bada ere.

Euskarako puntuazioen atzetik, Zientziako eta Gizarteko puntuazioak dira irakastereduaren eraginik handiena izan dutenak: A ereduaren bi geruzetako puntuazioak B ereduaren bi geruzetakoak baino altuagoak dira, bai termino absolutuetan bai ISEK indizearen eragina kendu ondoren. Horrek badu lotura irakas-hizkuntzarekin —gaztelania lehen kasuan, euskara bigarreanean—, ikasle horien etxeko hizkuntza gaztelania edo hirugarren hizkuntza bat izaten baita.

b) Lurraldeen eta eskola-barrutien arabera

Matematikan eta Euskararen Gipuzkoako lurraldeko puntuazioak izan dira altuenak irakasmala honetan. Bizkaiko puntuazioekiko aldea 16 eta 7 punturaino handitu da, hurrenez hurren, eta Arabako puntuazioekiko aldea, 19 eta 9 punturaino. Gaztelanian aldea Lehen Hezkuntzako 4. mailakoa baino txikiagoa izan da; Gipuzkoako puntuazioa Arabakoa baino zazpi puntu apalagoa izan da.

ED 2013. DBH 2. Hiru konpetentziatako emaitzak lurraldeen arabera



Arabako ikasleen ISEK indizea -0,12raino jaitsi da, eta ikasle etorkinen tasa % 14koa da, Lehen Hezkuntzan % 9koa zelarik. DBHn Arabako ikasleen banaketa hezkuntza-sareetan gainerako bi lurraldeetako banaketaren antzekoa izan da.

ED 2013. DBH 2. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentziatako emaitzak lurraldeen arabera

Lurraldea	Ikasleak	Ikasleen ezaugarriak			% Ikast. Pub.	Emaitzak		
		ISEK	% Etork	%EH Eus		Matem	Euskara	Gaztelan.
Araba	3.022	-0,12	13,9	5,8	48,5	247	247	257
Bizkaia	9.551	0,02	8,1	12,0	46,4	249	250	255
Gipuzkoa	6.668	0,02	6,3	37,1	48,6	256	266	250
Euskadi	19.241	0,00	8,4	19,7	47,5	251	256	253


Matematikan Gipuzkoako barrutirik euskaldunduenek dute balio erantsirik handiena: Urola-Kosta, Tolosa, Deba Garaia eta Goierri. Bizkaian, berriz, Lea-Artibaik eta Busturiak, ezaugarri soziologiko eta linguistiko berdinak dituzten arren, balio erantsi txikiagoa dute DBHko 2. mailan.

Beheko muturrean, Meatzaldeko puntuazioa (234), puntuazio horien aldean, oso apala da.

ED 2013, DBH 2. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentziatako emaitzak eskola-barrutien arabera


Eskola-barrutiak		Ikalsleak	Ikasleen ezaugarriak			% ikast. publiko	Emaitzak			
			ISEK	% Etork	EH Eus		Matem	Euskara		Gaztel.
							Bataz b.	hasierako%		
11-13-14	Araba gainerakoa	477	-0,25	10	8	61	243	249	42,1	244
12	Vitoria-Gasteiz	2.545	-0,09	15	5	46	248	246	45,8	260
21	Deba Garaia	619	-0,04	6	50	49	259	276	20,6	249
22	Bajo Deba	408	-0,02	6	40	69	254	269	26,3	253
23	Goierri	661	-0,03	6	48	50	259	271	23,8	246
24	Urola-Kosta	763	-0,02	6	65	49	263	280	18,8	246
25	Tolosaldea	454	-0,10	4	67	47	260	277	19,7	245
26	Lasartealdea	564	-0,28	6	41	63	252	270	25,4	247
27	Donostia	1.912	0,34	7	18	37	259	256	35,2	253
28	Errenteria	577	-0,33	5	31	46	246	263	34,7	247
29	Bajo Bidasoa	710	-0,05	9	18	59	245	253	40,2	248
31	Busturia	396	0,14	8	57	50	250	266	27,0	250
32	Lea-Artibai	231	-0,23	6	77	68	244	265	30,2	239
33	Duralgaldea	913	0,05	6	27	51	257	263	29,4	254
34-35	Arratia-Nerbioi	777	-0,20	5	15	78	247	255	38,6	249
36	Enkarterri	255	-0,26	11	2	59	241	248	44,4	254
37	Meatzaldea	400	-0,15	2	2	50	234	244	49,4	247
38	Txorierrri	854	0,74	3	14	21	267	256	38,3	265
39	Eskuinaldea	1.339	0,38	8	7	50	254	249	44,3	259
41	Barakaldo	698	-0,33	11	1	46	246	246	46,4	251
42	Ezkerraldea	978	-0,21	5	2	47	245	242	47,6	255
43	Bilbao	2.710	-0,11	13	5	38	244	244	47,7	255
	Euskadi	19.241	0,00	8,4	19,7	47,5	251	256	38,1	253

ED 2013. DBH 2. Matematikako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)




Euskararen, puntuaziorik altuenak eta apalenak lortu dituzten eskola-barrutien arteko aldea, etxeko hizkuntzaren faktorearekin erlazionaturik, 30 puntutik gorakoa izan da, baina Gaztelaniaren kasuan aldea askoz txikiagoa izan da, erdia gutxi gora behera.

ED 2013. DBH 2. Euskarako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)



ED 2013. DBH 2. Gaztelaniako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik eskola-barrutien arabera (hizkuntza-adierazlea, koloretan)



2.2.3. Ikastetxeek ekartzen duten balio erantsia

ISEI-IVEI, EHU-UPVko eta (UCLA) Kaliforniako Unibertsitateko lan-talde batzuekin elkarlanean, "Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak" izeneko ikerlana gauzatzen ari da, Hezkuntza Saileko zenbait hezkuntza-zerbitzuren laguntzaz, hala nola Ikuskaritza, Hezkuntza Berriztatzea eta Berritzeguneak.

Ikerlanak hiru fase ditu: lehen fasean, ebaluazio diagnostikoan ikasleen ezaugarriak kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza nabarmenki hobeak lortu direnako ikastetxeak identifikatzea da helburua; ikastetxe horiek behin identifikatu ondoren, emaitza horiek lortzera daramaten prozesuak aztertzen dira, antzemandako jardunbide egokiak beste ikastetxe batzuetara zabaltzeko. Lehen fase horretan 2009 eta 2010eko ebaluazio diagnostikoetako emaitzak jaso dira.

Bigarren fasean 2011ko ebaluazio diagnostikoko datuak erantsiko dira, eta ikastetxe horietako batzuen azterketa sakona gauzatuko da. Alderantziz, balio erantsirik txikiena dakarten ikastetxeak ere, hots, espero baino emaitza apalagoak lortzen dituztenak, aztertuko dira.

Lehen fasearen txostenean jasotzen den bezala, ikastetxeetako emaitzak eta emaitzei loturiko faktoreak (ISEK indizea, ikasleen etxeko hizkuntza, ikasle etorkinen ehunekoa...) aztertu ondoren, 32 ikastetxe hautatu ziren, hezkuntza-sareetan, hezkuntza-etapetan eta maila sozio-ekonomikoetan modu orekatuan banaturik.

Ondoren, Ikuskaritzarako, Berritzeguneetako teknikarientzako eta ikastetxeetako zuzendaritza taldeentzako zenbait galdera-sorta prestatu ziren, ikastetxeen funtzionamendua islatzen duten 14 kategoriatan antolaturik:

1. Proiektuak, planak eta prestakuntza
2. Metodologiak eta irakas-materialak
3. Aniztasunari erantzuna
4. Ikasleen jarraipena, banakako arreta, orientazioa eta tutoretza
5. Ikasleen ebaluazioa
6. Deboraren kudeaketa
7. Lidergoa eta zuzendaritza taldea
8. Kudeaketa eta antolamendu ereduak
9. Koordinazioa
10. Inplikazioa eta ikastetxeko partaidea izatea
11. Irakasleen, ikastetxearen, programen eta jardueren ebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoaren erabilera
12. Giroa eta bizikidetzatza
13. Irudia, instalazioak eta baliabideak
14. Familia, komunitatea eta kapital soziala

Galdera-sortei emandako erantzunen analisisan egiazta daiteke ikastetxe horietan zenbait jardunbide egoki nahiko hedatuak daudela. Jardunbide horiek hiru multzotan aurkezten dira:

a) Ikasleei dagozkienak:

- Ikasleen eta familien lana hurbiletik jarraitzen da
- Jarraipena tutoretzaren bidez egiten da
- Aniztasunari arreta handia eta ondo antolatua ematen zaio
- Arazoak goiz antzematen dira eta berehala esku hartzen da
- Ikasleen ebaluazioari garrantzi berezia ematen zaio

b) Irakasleei dagozkienak:

- Irakasleen ardura eta parte hartzea handia izaten da
- Zuzendaritza taldeek bultzaturiko prestakuntza eta etengabeko hobekuntza jardueretik konpromisoa handia izaten da,
- Ikastetxeko irakasleenganako arreta handia, bai harreran bai eguneroko lanean
- Aholkularien eta orientatzaileen inplikazioa handia izaten da

c) Ikastetxeari dagozkionak:

- Ikastetxeek euren ikuskera eta filosofia berezia izaten dute, argi definitua eta partekatua
- Lidergoa argia izaten da, talde-lanaren dinamikan oinarriturik
- Ikastetxearen kudeaketa egokia izaten da eta koordinazioaren plangintza, ona.
- Deboraren aprobetxamendua ona izaten da
- ED ebaluazioaren balorazioa positiboa izaten da, eta prestakuntzarako erabiltzen da
- Zuzendaritza taldearen itxaropenak, ikasleekiko eta irakasleekiko, handiak izaten dira

2.3. IKASLEEN EBALUAZIO AKADEMIKOA


Lehen Hezkuntzako eta DBHko etapa eta irakasmailetakoko emaitza orokorrak eta arlokoak geruzen arabera eta eskola-mapako guneen arabera multzokaturik aurkezten dira, Hezkuntza Ikuskaritzak emandako dokumentazioan oinarrituta.

2.3.1. Emaizta akademikoak eta ondorengo etapetara igarotzea

Ikastetxeek 2012-13 ikasturtean derrigorrezko hezkuntza-etapetan egindako ebaluazio akademikoan, ikasleen % 96tik %97ra bitartean igaro ziren hurrengo irakasmailara Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan, eta % 90etik %91ra bitartean DBHko lau irakasmaitan. Hain zuzen ere, DBHko 4. mailako ikasleen % 91k eskuratu zuten graduatu titulua.

Hurrengo irakasmailara arlo guztiak gaindituta igaro diren ikasleen ehunekoak apalagoak dira, Lehen Hezkuntzako 2. mailako % 86tik DBHko 3. mailako % 66ra jaitsi dira, DBHko 4. mailan izan ezik, maila horretan ehunekoa (% 70) apur bat igo baita.

Emaizta akademikoak. Hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmaila guztietan. 2012-13 ikasturtea




DBHn, hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen ehunekoa bi puntu altuagoa da nesken artean mutilen artean baino. Arlo guztiak gainditu dituzten nesken ehunekoa mutilena baino 4tik 6ra puntu bitartekoa izan da.

Emaizta akademikoak. Hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmaila guztietan. Emakumezkoak eta Ikasle guztiak. 2012-13 ikasturtea

	Hurrengo irakasmailara edo titulua eskuratu		Arlo guztiak gainditu	
	Guztira %	Neskak %	Guztira %	Neskak %
Lehen Hezk. 2	96	96	86	89
Lehen Hezk. 4	96	97	81	84
Lehen Hezk. 6	97	98	79	83
DBH 1	91	94	69	75
DBH 2	90	92	67	71
DBH 3	90	92	66	71
DBH 4	91	93	70	74


Arloetako kalifikazioei dagokienez, Lehen Hezkuntzan gaitutuen ehunekorik txikiena (% 88) Euskaran izan da, eta DBHn, Matematikan (% 80-84 artean).

Emaita akademikoak. Arlo bakoitza gaitutu duten ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmaila guztietan. 2012-13 ikasturtea



Estatuaren esparruko konparazioan, 2011-12 aurreko ikasturteko datuetan oinarriturik, graduatu titulua lortu zuten ikasleen ehunekoa Euskadin (% 91) estatuko batez bestekoa (% 83) baino zortzi puntu handiagoa izan zen, eta autonomia erkidegoen artean lehen postuan egon zen.


DBHko 4. mailako ikasleen artean graduatu titulua eskuratu zutenen ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2011-12 ikasturtea



Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzari dagokionez, arlo guztiak gaitutu dituzten ikasleen ehunekoa DBHkoa baino handiagoa izan da, salbuespen bakarra Lanbide Heziketako Erdi Mailako zikloak (LHEMZ) izan direlarik, tasa % 55ekoa izan baita.


Tituluak eskuratzeari dagokionez, Batxilergoko 2. mailako ikasleen % 85ek eskuratu du titulua, Lanbide Heziketako Erdi Mailako zikloetako ikasleen % 78k, eta Goi Mailako zikloetako ikasleen % 84k.

Emaizta akademikoak. Hurrengo irakasmailara igaro diren edo titulua eskuratu duten ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gainditu dituztenen ehunekoa Batxilergoan eta Lanbide Heziketako zikloetan. 2012-13 ikasturtea




Estatuaren esparruko konparazioan, 2011-12 aurreko ikasturteko datuetan oinarriturik, Batxilergoko 2. mailako ikasleen artean hurrengo irakasmailara igaro zirenen ehunekoa Euskadin (% 83) estatuko batez bestekoa (% 77) baino sei puntu handiagoa izan zen (2012-13 ikasturtean baino bi puntu gutxiago), eta autonomia erkidegoen artean bigarren postuan egon zen.

Batxilergoko 2. Mailako ikasleen artean hurrengo irakasmailara igaro direnen ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2011-12 ikasturtea




Batxilergoko graduatu-tasari dagokionez, hau da, Batxilergoko tituludunen kopurua zati 17 urteko biztanleria osoa, Euskadi (% 68) Estatuko lehen postuan dago, Estatuko batez besteko tasa % 52koa delarik.

Batxilergoko graduatu-tasa autonomia erkidegoetan. 2011-12 ikasturtean



Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari tituluko graduazio-tasan ere, hau da, Lanbide Heziketako Goi Mailako tituludunen kopurua zati 19 urteko biztanleria osoa, Euskadi (% 39) Estatuko lehen postuan dago, Estatuko batez besteko tasa % 23 delarik..

Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari tituluko graduazio-tasa autonomia erkidegoetan 2011-12 ikasturtean



2013ko *Unibertsitatera Sartzeko Proba (USP)*, ohiko deialdian eta deialdi berezian, guztira 9.960 ikaslek gainditu dute, proba egin duten ikasleen % 96,4k alegia.

Deialdia	Aurkeztutakoak	Gainditu dutenak	Gainditu dutenak %
Ohikoa	8.785	8.578	97,6
Berezia	1.548	1.382	89,3
Guztira	10.333	9.960	96,4

Ikasturte horretan Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako 14.856 ikasleen artean, USP proba % 67k gainditu dute. Baina Batxilergoko 2. mailako ebaluaziora aurkeztu diren ikasleen kopuruarekin konparaturik (13.341), USP proba gainditu dutenen ehunekoa % 75era igotzen da.

Ohiko deialdian, proba gainditu duten ikasleen ehunekoa % 97,6 izan da, Bizkaian (% 96,3) gainerako bi lurraldeetan baino apur bat apalagoa. Hezkuntza-sareen arteko ehunekoen artean bada alde txiki bat (zazpi hamarren handiagoa itunpeko ikastetxeetako ikasleen kasuan), baina ez dago inolako alderik sexuen artean. Probako hizkuntzari dagokionez, proba euskaraz egin duten ikasleen artean proba gainditu dutenen ehunekoa handiagoa izan da.

Deialdia	Aurkeztutakoak	Gainditu dutenak K	Gainditu dutenak %
Euskara	6.454	6.312	% 97,8
Gaztelania	3.879	3.648	% 94,0
Guztira	10.333	9.960	% 96,4


2.3.2. Geruzen, lurraldeen eta eskola-barrutien arabera

Lehen Hezkuntzako eta DBHko bukaerako irakasmaitetako (LH6 eta DBH4) emaitza akademikoak aztertu dira.


a) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzan hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen ehunekoa ez da asko aldatzen geruzen artean (% 93tik % 98ra artean), baina aldeak handiagoak dira arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoen kasuan; beheko aldean A eredu publikoa (% 43) eta B eredu publikoa (% 66) nabarmentzen dira eta goiko aldean itunpeko D ereduko ehunekoa (% 87) hurrengo geruzakoa baino zazpi puntu handiagoa da (2.1 eranskina).

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen emaitza akademikoak geruzen arabera: a) hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen ehunekoa; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa. 2012-13 ikasturtea




Lurraldeei dagokienez, arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa, Gipuzkoan (% 81) handiagoa da Bizkaian (% 78) eta Araban (% 76) baino (2.2 eranskina).




Eskola-mapako guneen arabera (13. mapa eta 2.5 eranskina), arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa Oria Garaian, Andoainen eta Amorebietan % 88ra heldu da, eta beste lau gunetan % 85 baino handiagoa izan da; beste muturrean, Lehen Hezkuntzako 6. mailan arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa % 60ra bakarrik heldu da Errekalden et Basurtu-Zorrotzan, eta ez da % 70era heldu Txurdinaga-Otxarkoagan, Uribe-Kostan eta Basaurin.

13. mapa. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean arlo guztiak gaitututa hurrengo irakasmailara igarotzen direnen ehunekoa eskola-guneen arabera2012-13 ikast.




14. mapa. DBHko 4. mailako ikasleen artean arlo guztiak gaituta hurrengo irakasmailara igarotzen direnen ehunekoa eskola-guneen arabera. 2012-13




b) DBHko 4. maila

Emaizten geruzen araberrako banaketan, A eta B eredu publikoak azken postuetan daude bi adierazleetan; gainerako lau geruzen artean itunpeko D ereduaren lehen postuan dago (% 77k arlo guztiak gaitututa) eta apur bat beherago, itunpeko A ereduaren (% 67)

DBHko 4. mailako ikasleen emaitza akademikoak geruzen araberrak: a) graduatu titulua eskuratu duten ikasleen ehunekoa; b) arlo guztiak gaitutu dituzten ikasleen ehunekoa. 2012-13 ikasturtea



Lurraldeen araberrako banaketan, Gipuzkoak beste bi lurraldeekiko alde handitu egin du:




Eskola-guneen araberrako banaketan (14. mapa eta 2.6 eranskina), graduatu titulua arlo guztiak gaituturik eskuratu duten ikasleen batezbesteko ehunekoa % 70 izanik, adierazle hori % 80ra heldu da Oria Garaian eta Donostia-Ezkerraldean, baina ez da % 60ra heldu Txurdinaga-Otxarkoagan, Barakaldon, Errekalden, Basurtu-Zorrotzan eta Gainerako Araban (Vitoria-Gasteiz eta Amurrio-Laudio alde batera utzirik).


c) Batxilergoko 2. maila

Geruzen araberrako banaketan, aurkeztutako ikasleen artean proba gaitutu duten ikasleen ehunekorik txikiena (% 64) A eredu publiko minoritarioan gertatu da; gainerako hiru geruzetan ehunekoa % 85 edo altuagoa izan da. Ehunekorik altuena itunpeko D ereduaren izan da. Balio absolutuak 2.3 eranskinean azaltzen dira.

Batxilergoko titulua lortu duten ikasleen ehunekoa geruzetan. 2012-13 ikasturtea



Lurraldeen arabera banaketan, Gipuzkoa lehen postuan dago berriro ere.



2.3.3. Barneko eta kanpoko ebaluazioen arteko konparazioa

Aurreko hiru ebaluazio diagnostikoetan (2009, 2010 eta 2011) ISEI-IVEIk Matematikarako konpetentziako emaitzak ikasle bakoitzak aurreko ikasturtean lortutako emaitza akademikoekin erkatu zituen. Erkaketa geruzen arabera egin zen, eta batezbesteko puntuazioarekiko desbideratzerik handiena A eredu publikoaren geruzan gertatzen zela erakutsi zuen. Aurreko ikasturtean ikastetxeko kalifikazio jakin bat –nahiko, ongi, bikain...– izan zuten ikasle guztien artean, A eredu publikoaren geruzako ikasleek ebaluazio diagnostikoan gainerako geruzetakoek baino puntuazio apalagoa lortzen zuten. B eredu publikoan ere antzeko zerbait gertatzen zen, baina hein apalagoan. Gainerako lau geruzetan aldeak txikiagoak ziren.

2012-13 ikasturtearen ebaluazio orokorraren barruan ebaluazio diagnostikoa (kanpoko) eta emaitza akademikoak (barneko) bi faktoreen arabera konparatu daitezke: geruzak eta lurraldeak.

DBHko 2. maila aztertzen badugu, Matematikan geruzen artean kidetasun handia dagoela ikus dezakegu, itunpeko A ereduan izan ezik, geruza horretan arloa gainditu duten ikasleen ehunekoa D eredu publikoan baino apur bat altuagoa izanik, ebaluazio diagnostikoko puntuazioa apur bat apalagoa izan baita.

ED 2013 ebaluazioko puntuazioak eta 2012-13 ikasturteko emaitza akademikoak (arloan gainditu duten ikasleen ehunekoa). DBHko 2. maila. Geruzen arabera konparazioa

Geruza	Matematika		Euskera		Gaztelania	
	ED	Emaitza ak.	ED	Emaitza akd.	ED	Emaitza ak.
A publikoa	205	43	178	53	227	56
B publikoa	228	62	226	71	234	71
D publikoa	251	79	264	84	250	83
A itunpekoa	250	82	205	81	260	83
B itunpekoa	254	82	248	87	259	87
D itunpekoa	262	89	275	93	255	93
Euskadi	251	80	256	85	253	84

Euskararen desadostasuna handiagoa da, eskakizun maila A eta B erduetan D ereduaren baino txikiagoa izaten baita. Adibidez, itunpeko B ereduaren geruzan arloan gainditu dutenen ehunekoa D eredu publikoaren geruzan baino handiagoa izan bada ere, ebaluazio diagnostikoko puntuazioa nabarmenki apalagoa izan da.

Gaztelanian, aitzitik, arloan gainditu dutenen ehunekorik altuena itunpeko D ereduaren geruzan gertatu da, baina ebaluazio diagnostikoko puntuaziorik altuena itunpeko A ereduaren geruzan izan da.

Lurraldeen arteko konparazioan, arloan gainditu dutenen ehunekorik handienak Gipuzkoan izan dira hiru konpetentzietan. Ehuneko horiek bat datoz ebaluazio diagnostikoan Matematikan eta Euskararen lortutako puntuazioekin, baina ez Gaztelaniakoekin, konpetentzia horretan puntuaziorik apalena lortu baitu.

ED 2013 ebaluazioko puntuazioak eta 2012-13 ikasturteko emaitza akademikoak (arloan gainditu duten ikasleen ehunekoa). DBHko 2. maila. Lurraldeen arabera konparazioa

Lurraldea	Matematika		Euskera		Gaztelania	
	ED	Emaitza ak.	ED	Emaitza ak.	ED	Emaitza ak.
Araba	247	76	247	82	257	82
Bizkaia	249	79	250	83	255	84
Gipuzkoa	256	83	266	88	250	86
Euskadi	251	80	256	85	253	84

2.4. IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZAREN EBALUAZIOA

Kontseiluaren 2010-2012 txostenean zuzendariaren karguaren ebaluaziorako prozedura deskribatzen da, gaia arautzen duen aginduan (EHAA, 2012/06/15) xedatzen den bezala. Ebaluazioa aldekoa denean, zuzendaria lau urteko kargualdi berri baterako gaiturik geratzen da.

Hezkuntza Ikuskaritzak 2009-2013 aldirako izendatutako zuzendariei egindako ebaluazioaren inguruan egin duen txostenean, emaitza orokorrak jasotzen dira eta, baita ere, emaitzen sailkapena zuzendaritza-lanaren bost dimentsioen arabera eta lau ikastetxe motaren arabera.

2009. urtean 174 zuzendari izendatu ziren lau ikasturteko agintaldirako; haien arteko 139k bukatu dute agintaldia, eta 138k aldeko ebaluazioarekin.

Dimentsio bakoitzerako lau konpetentzia-maila finkatu dira, eta aldeko ebaluazioa lortzeko gutxienez 2. mailara heldu behar da dimentsio guztietan. Emaitzak ondorengo taulan azaltzen dira.

Konpetentzia-maila bakoitzean baloratutako zuzendarien ehunekoa bost dimentsioetan (dezimalik gabe)

<i>Dimentsioak</i>	<i>1 maila</i>	<i>2 maila</i>	<i>3 maila</i>	<i>4 maila</i>
D1. Helburuak eta esku hartze estrategikoen definizioa	-	17	71	9
D2. Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionam.	1	12	66	19
D3. Lidergo pedagogikoa	1	14	70	12
D4. Kanpoko eta barruko agenteen parte hartzea eta lankidetzatza	-	13	60	22
D5. Ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa	1	27	55	15

Balorazio gehienak 3. konpetentzia-mailakoak izan dira, eta beste alde batetik, baloraziorik aldekoenak D4 dimentsioan gertatu dira, parte hartzearen eta lankidetzaren arloan. 2. mailako ehunekorik altuenak izan dituzten dimentsioak D5 dimentsioa (ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa) eta gero D1 dimentsioa (helburuak eta esku hartze estrategikokoak finkatzea) izan dira.

Lau ikastetxe motak honako hauek dira: Haur eta Lehen Hezkuntza; DBH eta Batxilergoa; Lanbide Heziketa; eta beste batzuk. Laugarren mota horretan HHI ikastetxeak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, Kontserbatorioak, EASD eta CEBAD⁶ ikastetxeak sartzen dira. Taulan 3. edo 4. mailan baloratutako zuzendarien ehunekoak jasotzen dira, bost dimentsioak lau ikastetxe motekin konbinaturik.

3. edo 4. mailan baloratutako zuzendarien ehunekoak, dimentsioen eta hezkuntza-etapen arabera (dezimalik gabe)

<i>Dimentsioa</i>	<i>HH+LH</i>	<i>DBH + Batxil.</i>	<i>LH</i>	<i>Beste batzuk</i>
<i>Ikastetxe kopurua →</i>	77	30	18	23
D1. Helburuak eta esku hartze estrategikoen definizioa	87	67	78	60
D2. Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionam.	91	73	74	72
D3. Lidergo pedagogikoa	90	73	63	64
D4. Kanpoko eta barruko agenteen parte hartzea eta lankidetzatza	86	67	63	84
D5. Ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa	74	60	76	52

⁶HHI: Helduen Hezkuntza; EASD: Arte eta Diseinu Goi Mailako Ikastetxea; CEBAD: Urrutiko Batxilergorako Ikastetxea

3. eta 4. mailetan baloratutako zuzendarien ehunekorik altuenak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gertatu dira bost dimentsioetako lautan; D5 dimentsioan ehunekorik altuenak Lanbide Heziketako ikastetxeetan izan dira.

Bost dimentsioak gaitasuna lortzeko eskatzen diren hamar ebaluzio-irizpidetan (“gako-irizpideak”) xehatzen baditugu, ikastetxe mota bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak ikusten dira. Ahulguneak koloretan adierazten dira.

3. edo 4. mailan baloratutako zuzendarien ehunekoak, ebaluazio-irizpideen eta hezkuntza-etapen arabera (dezimalik gabe)

Dim.	Irizpidea		Ikast.guztiak	HH+LH	DBH+Batx.	LH	Beste batzuk
D1	C2	Lerro estrategikoen definizioa eta sustapena	81	88	67	84	74
	C4	Ikastetxean giro eta bizikidetzak positiboak lortzeko mekanismoak	82	90	87	74	57
D2	C7	Zuzendaritza taldearen lidergoa, arduren banaketa	90	92	87	90	87
	C9	Baliabideen kudeaketa eta administrazioa	89	93	80	90	87
D3	C10	Ikaste/irakaste prozesuak hobetzeko curriculum-neurrien sustapena	83	90	77	79	70
	C11	Aniztasunari erantzuteko neurriak	85	96	83	64	65
	C12	Tutoretzarako eta orientaziorako baliabideak	86	90	83	79	83
D4	C14	Ikastetxearen antolamenduan eta funtzionamenduan parte hartzea eta konpromisoa sustatzea	76	83	53	79	74
	C15	Beste ikastetxe eta erakunde batzuekiko lankidetzak	88	92	77	84	91
D5	C18	Kanpoko eta barruko ebaluazioetako emaitzak hobekuntzarako erabiltzea	75	79	63	84	65

2.5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA IKASTETXEETAN

Hezkuntza-sistemako ikastetxeen aniztasunaren barruan, hobekuntza modu batzuetan planifikatu daiteke, adibidez, irakasleen prestakuntzaren bidez, kudeaketa-sistemen bidez eta hezkuntza berritzeko proiektuen bidez.

Atal honetan Sailak 2012-13 ikasturtean gauzatutako ekintzak jasotzen dira: prestakuntza eta ikastetxeen berrikuntza proiektuetarako deialdiak, Berritzeguneen prestakuntza-jarduerak (ikastaroak eta mintegiak) eta Garatu planeko ikastaroak. Berrikuntzaren ebaluazioaren arloan Hezkuntza Marko Hirueleduna (MET) proiektuaren lehen fasea sartzen da.

2.5.1. Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak

Sailak urtero deialdi bat egiten du ikastetxeek prestakuntza eta berrikuntza proiektuak gauzatu ditzaten. 2011-12 aurreko ikasturtean egin zen bezala, itunpeko ikastetxeentzako deialdia agindu baten bidez egin da, eta ikastetxe publikoentzako deialdia ebazpen baten bidez. Ikastetxeek prestakuntza/berrikuntza proiektu bakar bat aurkeztu dezakete, honako baldintza hauek bete behar dituenak:

- Erreferentzia nagusitzat ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntza-plana hartu behar du.
- Arreta bereziki ikaste-irakaste prozesuetan eta oinarrizko konpetentzien garapenean jarri behar du.
- Ikastetxearen planteamendu orokorra eta abian jarritako ekimenak kontuan hartu behar ditu, hala nola, teknologia berrien integrazioa, hizkuntzen trataera integratua, eleaniztasuna, irakasleek atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna eguneratzea, aniztasunaren tratamendua, ikastetxeko bizikidetzak, zientzia-hezkuntza eta genero berdintasuna.
- Guztira klaustrakideen % 60 gutxienez inplikatu behar du.
- Ikasturte batean baino gehiagotan zehar gauzatu ahal izango da.
- Partaide bakoitzari ofizioz 30na prestakuntza-ordu egiaztatuko zaio.
- Proiektua gauzatzea zuzendaritza taldearen ardura da.
- Proiektua Ikastetxearen Urteko Planean sartu behar da.


Baldintza horiekin, 2011-12 ikasturtean 487 ikastetxek gauzatu zuten prestakuntza eta berrikuntza proiektu bat, eta 2012-13 ikasturtean 509 ikastetxek gauzatu dute, 15.189 irakasle parte hartu dutelarik. Proiektu horietatik gutxi gora behera bi heren ikastetxe publikoenak dira.

2012-13 ikasturtean prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartu duten ikastetxeen eta irakasleen kopurua, hezkuntza-sareen arabera. Etapa guztiak

<i>Hezkuntza-sarea</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Ziurtagiria eskuratu duten irakasleen kopurua</i>
Ikastetxe publikoak	343	10.080
Itunpeko ikastetxeak	166	5.109
Ikastetxe guztiak	509	15.189

Oinarrizko Hezkuntzako etapetako bat gutxienez ematen duten ikastetxeak kontuan harturik, 467 proiektu gauzatu dira 671 ikastetxetan. Beraz, Lehen Hezkuntza edota DBH ematen duten ikastetxeen % 70k gauzatu dute prestakuntza eta berrikuntza proiektu orokorra.

15. mapa. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeen artean 2012-13 ikasturtean prestakuntza eta berrikuntza proiektua gauzatu dutenen ehunekoa



2012-13 ikasturtean prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartu duten ikastetxeen eta irakasleen kopurua, hezkuntza-sareen arabera. Oinarrizko Hezkuntza

<i>Red</i>	<i>tipo/agrupación de centros</i>	<i>Nº proyectos</i>	<i>Nº centros</i>	<i>% de centros con proyecto</i>
Centros públicos	Ed. Infantil y Primaria	237	322	% 74
	Ed. Secundaria*	89	138	% 64
	Total públicos	326	460	% 71
Centros itunpekoas	Kristau Eskola	83	120	% 69
	Partaide	34	54	% 63
	Otros itunpekoas	24	37	% 65
	Total itunpekoas	141	212	% 67
Todos los centros		467	671	% 70

* Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH ematen duten Ikastetxe Publiko Integratuak (IPI) ere sartzen dira

Ezaugarri bereko ikastetxeak termino erlatiboetan konparaturik, parte hartzea orekatuagoa izan da, hots, ikastetxe publikoen % 71 eta itunpeko ikastetxeen % 67.

Hezkuntza-sare baoitzaren barruan, sare publikoan proiektua gauzatu duten ikastetxeen ehunekoa Haur eta Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino handiagoa izan da. Itunpeko sarean, ehunekorik altuena duen elkarte Kristau Eskola izan da.

Banaketa geografikoan lurraldeen arteko aldeak nabarmenak izan dira: lehena Araba (% 80), gero Gipuzkoa (% 74) eta Bizkaia (% 64).

Eskola-guneen araberrako analisisan (15. mapa eta 2.7 eranskina), gune multzo batean ikastetxe guztiek gauzatu dute prestakuntza/berrikuntza proiektua: Arabako mendiak, Araba Mendebalde, Bidasoa, Bermeo, Ermua eta Basurtu-Zorrotza. Kontrako muturrean, zazpi gunetan proiektua gauzatu duten ikastetxeen ehunekoa ez da % 50era heldu: Amorebieta, Txorierri, Begoña, Abanto, Elgoibar, Bergara eta Ibaiondo.

2.5.2. Berritzeguneek antolatutako prestakuntza jarduerak

Gutxienez hamar orduko ikastaroak eta mintegiak batera harturik, Berritzeguneek 2012-13 ikasturtean 606 jarduera antolatu dituzte; haien erdia baino apur bat gehiago euskara hutsez gauzatu dira, eta laurdena, bi hizkuntza ofizialetan.

Ondorengo taulan eskualde bakoitzean irakatsitako orduen kopurua, partaideen kopurua eta ziurtagirien kopurua jaso dira.

Berritzeguneen prestakuntza jarduerak 2012-13 ikasturtean

<i>Lurraldea</i>	<i>Prestakuntza jarduerak</i>	<i>Hizkuntza</i>				<i>Ordu kopurua</i>	<i>Partaide kopurua</i>	<i>Ziurtagiri kopurua</i>
		<i>Eusk.</i>	<i>Gazt.</i>	<i>Eus/gazt</i>	<i>Ingel.</i>			
Araba	68	19	16	30	3	1.038	1.476	1.220
Bizkaia	303	124	57	105	17	4.903	6.573	5.944
Gipuzkoa	235	169	31	31	4	2.522	5.997	5.552
Euskadi	606	312	104	166	24	8.463	14.046	12.716

2.5.3. Garatu planeko ikastaroak

Garatu planean eskaini diren ikastaroen kopurua etengabe hazi da 2009-10 ikasturtetik 2012-13 ikasturtera (332tik 430era), baina azken ikasturtean ikastaro kopurua (341) apur bat jaitsi da aurreko ikasturtearekiko (357).

Garatu planeko ikastaroak 2009-10etik 2012-13ra

	<i>2009-10</i>	<i>2010-11</i>	<i>2011-12</i>	<i>2012-13</i>
Eskainitako ikastaroak	332	374	435	430
Egindako ikastaroak	287	332	357	341

Beraz, eskainitako ikastaroen % 79 gauzatu dira, on-line ikastaroen kasuan % 93ra heldu delarik. Betetako plazak (6.930) eskainitako plazen % 66 izan dira.

Garatu planean eskainitako eta gauzatutako ikastaroak modalitateen arabera. 2012-13

<i>Ikastaro mota</i>	<i>Ikastaroak</i>			<i>Plazak</i>		
	<i>Eskainitakoak</i>	<i>Egindakoak</i>	<i>Egindakoak %</i>	<i>Eskainitakoak</i>	<i>Betetakoak</i>	<i>Betetakoak %</i>
Presentzialak	282	221	% 78	7.766	4.899	% 63
Hizkuntzakoak	97	72	% 74	1.470	976	% 66
On-line ikastaroak	51	48	% 94	1.261	1.055	% 84
Gztira	430	341	% 79	10.497	6.930	% 66

Ikastaroen % 60 inguru orokorrak izan dira, irekiak irakasle guztientzako. Hezkuntza-etapa baterako edo birako eskainitako ikastaroen artean Haur eta Lehen Hezkuntzarakoek harrera hobea izan dute bereziki Bigarren Hezkuntzarako eskainitakoek baino, bai gauzatutako ikastaroen kopuruaren aldetik bai eta betetako plazen kopuruaren aldetik.

Garatu planean eskainitako eta gauzatutako ikastaroak etapen arabera. 2012-13 ikasturtea

Etapia	Ikastaroak			Plazak		
	Eskain.	Egind.	Egind. %.	Eskain.	Betetakoak.	Betet. %
Haur Hezkuntza	18	17	% 94	415	291	% 70
Haur eta lehen Hezkuntza	39	37	% 95	1.275	998	% 78
Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. zikloa	36	33	% 92	784	589	% 75
DBH eta Lanbide Heziketa	71	45	% 63	1.641	981	% 60
HHI	1	1	%100	30	30	%100
Orokorrak	246	193	% 78	5.831	3.663	% 63
Hizkuntza Eskola Ofizialak	14	12	% 86	425	335	% 79
Musika eta arte iraakaskuntza	5	3	% 60	96	43	% 45
Guztira	430	341	% 79	10.497	6.930	% 66

Eskainitako ikastaroak emateko erabilitako hizkuntzari dagokionez, hizkuntzarik erabiliena euskara izan da (% 33 gehi ikastaro elebidunei dagozkien % 12), baina aipatu beharrekoa da ingelesez eskainitako ikastaroen kopurua, 100etik gora, ikastaro guztien % 23ra heldu dela.

Garatu planean eskainitako ikastaroak emateko erabilitako hizkuntza modalitateen arabera. 2012-13 ikasturtea

Hizkuntza	Presentzialak	Hizkuntzak	On-line	Guztira	%
Euskara	114	0	26	140	% 33
Gaztelania	106	0	17	123	% 29
Euskara / Gaztelania	48	0	5	53	% 12
Ingelesa	10	88	3	101	% 23
Frantsesa	2	7	0	9	%100
Alemana	2	2	0	4	% 1
Guztira	282	97	51	430	%100

2.5.4. Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioa

Aurreko 2010-2012 Txostenean Sailaren hiru proiekturik garrantzitsuenen berri ematen zen: Eskola 2.0, Hezkuntza Marko Hirueleduna (HMH) eta Bizikidetza Plana.

Hezkuntza Marko Hirueledunak (HMH) berezko ebaluazio sistema bat zuen bere diseinuan, eta lehen emaitzak dagoeneko argitaratuta daude. Deialdiaren inguruko datuak berraztertutik, HMH proiektuaren lehen fasea 2010-11 ikasturtean hasi zen 40 ikastetxetan; hurrengo ikasturtean, 78 ikastetxe berrirekin, 118 ikastetxetan jarraitu zuen. Proiektuaren fase bakoitza hiru ikasturtetan zehar luzatzen da; Lehen Hezkuntzaren kasuan 4. mailako ikastaldeekin hasten da eta 6. mailara arte irauten du, eta DBHren kasuan, 1. mailatik 3. mailara. Lehen fasean parte hartu zuten ikasleen % 71 itunpeko ikastetxeetan eskolaturik zegoen.

HMH proiektuaren lehen fasean parte hartu zuten ikastetxe, ikastalde eta ikasle kopurua (2010-11tik 2012-13ra)

		<i>Ikastetxeak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>
Publikoak	Lehen Hezkuntza	9	31	620
	Bigarren Hezkuntza	7	19	380
Itunpekoak		24	91	2.457
Guztira		40	141	3.457

Hartara, 2012-13 ikasturtearen bukaeran lehen faseko ikasleen ebaluazioa egin zen, eta txostena ISEI-IVEIren web gunean eskuratu daiteke⁷.

Proiektuan parte hartu duten ikastetxeen ezaugarrietako bat ikasleen maila akademiko altua da. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako bukaerako ebaluazioan ikus daitekeen bezala, ikasleek DBHko 3. mailaren bukaeran Ingelesez bestelako konpetentzietan (Irakurketa, Matematika eta Zientzia) duten konpetentzia-maila 15 urteko ikasleentzako PISA ebaluazioko batezbesteko maila baino nahiko altuagoa da. Beraz, euren adinarekiko urtebete baino gehiago aurreraturik daude.

Kontrol-taldeak ere hein batean maila akademiko altua du, bukaerako ebaluazioan urtebeteko aurrerapena baitu PISA ebaluazioko batez besteko mailarekiko Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan.

HMH proiektuaren lehen fasean parte hartu duten DBHko 3. mailako ikasleei eta kontrol-taldeari egindako probetako emaitzak (PISA ebaluazioko 15 urteko ikasleen batez besteko puntuazioa: 500 puntu)

<i>Konpetentzia</i>	<i>HMH taldea</i>	<i>Kontrol-taldea</i>
Irakurketa euskaraz	536	534
Irakurketa gaztelaniaz	545	509
Matematika	511	469

Proiektuan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako ikastaldeen ere kontrol-taldeak baino aurrerapen apur bat handiagoa izan dute Ingelesez bestelako konpetentzietan: Euskara, Gaztelania, Matematika eta Zientzia.

Beraz, HMH proiektuaren lehen faseko ikastaldea analisiaren oinarritzat harturik, esan dezakegu ingeleseko eskola-ordu gehiago emateak ez duela oztopatzen, ezta atzeratzen ere, gainerako konpetentzietako ikaskuntza.

Ingeleseko emaitzei dagokienez, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko (EHEMB) mailak erabiliz, begi bistakoa da bai Lehen Hezkuntzako taldeak bai DBHko taldeak egindako aurrerapena, kasuan kasuko kontrol-taldeen egindakoa baino nabarmenki handiagoa.

⁷http://www.isei-ivei.net/cast/pub/MET/MET_2014_informe_ejecutivo.pdf

Ingeleseko emaitzak HMH proiektuaren lehen fasean. Ikasleen ehunekoaren bilakaera EHEMBko maila bakoitzean (hasierakoa, bukaerakoa eta gehikuntza). 2012-13 ikasturtea

		< A1			A1			A2			B1			B2		
		Has.	Buk.	Δ	Has.	Buk.	Δ	Has.	Buk.	Δ	Has.	Buk.	Δ	Has.	Buk.	Δ
Lehen Hezk.	HMH taldea	57	32	-25	34	31	-3	9	28	19	0	9	9	-	-	-
	Kontrol-taldea	69	42	-27	29	44	15	2	13	11	0	1	1	-	-	-
DBH	HMH taldea	-	-	-	48	3	-45	7	29	22	26	41	15	0	27	27
	Kontrol-taldea	-	-	-	89	20	-69	10	61	51	3	16	13	0	3	3

Lehen Hezkuntzan HMH proiektuko taldeak aurrerapenik handiena (19 puntu) A2 mailan egin du, baina kontrol-taldeak A1 mailan egin du (15 puntu).

DBHn HMH proiektuko taldean gehikuntzarik handiena (27 puntu) B2 mailan izan da, eta B1 eta B2 mailetan batera ikasleen % 68 kokatu da.

Kontrol-taldearen kasuan, ehunekoa % 19ra jaitsi da (% 16 B1 mailan, eta % 3 B2 mailan). Aurrerapenik handiena (51 puntu) A2 mailan gertatu da.

Azkenik, hizkuntza bat irakas-hizkuntza bezala erabiltzen deneko ordu kopuruak hizkuntza-konpetentzia horretako emaitzetan duen eraginari dagokionez, eragina Ingelesaren eta Euskararen kasuetan positiboa dela ikus daiteke, baina ez, aitzitik, Gaztelaniaren kasuan.

2.6 ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Hamabost urteko ikasleek egin zuten PISA 2012 nazioarteko ebaluazioak oro har iritzi positiboa utzi zuen, ELGAko batez bestekoa lehenengoz gainditu baitzen ebaluatutako hiru konpetentzietan; PISA 2009 aurreko ebaluazioarekin konparaturik, aurrerapenik garrantzitsuena Zientziarako konpetentzian izan zen. Hobekuntza hori, eta gure hezkuntza-sistema oro har ekitatiboa dela egiaztatu izana izan dira bi alderdi positibo nagusiak.

Hala eta guztiz ere, ikasle etorkinek (lagineko ikasleen % 9) oso emaitza apalak lortu dituzte, batez bestekotik gure ingurunekeo herrialdeetan baino aldenduagoak. Oso kezkarria da, bestalde, A eredu publikoaren geruzan gero eta emaitza apalagoak izatea. Geruza horrek ikasle guztien % 5 hartzen du, erdia baino gehiago etorkinak. Geruzen sailkapenean kontrako muturrean itunpeko D eredua nabarmendu da Matematikan.

Beste alde batetik, ebaluazio-probak bazuen bigarren atal bat Problemen ebazpenerako, Matematikarako eta Irakurketarako konpetentzia digitala neurtzeko diseinatu. Emaitzak ELGAko batez bestekoa baino apalagoak izan dira, eta horrek adierazten du defizit bat dagoela ekuratutako konpetentziak eguneroko bizitzako

egoera praktikoetara transferitzerakoan. Espainiako hezkuntza-sistemak, oro har, defizit berdina du.

Ebaluazio diagnostikoari dagokionez, ED 2013 ebaluazioko emaitzek geldialdi bat adierazten dute 2011ko ebaluazioarekiko; Zientziarako konpetentziako emaitzak bereziki apalak izan dira ebaluatutako bi irakasmailetan, hots, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan. ED 2013 ebaluazioaren kasuan, agian, emaitzei bi faktorek eragin ahal izan zieten: alde batetik, ikasleen erantzunak jasotzeko erabilitako euskarri digitala; eta bestetik, Zientziaren kasuan, probaren formatuan aurreko ebaluazioetatik egindako aldaketa.

2009ko ebaluaziotik hona izandako bilakaera aztertzen bada, hobekuntza nabaria Lehen hezkuntzako 4. mailako Gaztelanian eta DBHko 2. mailako Euskarari bakarrik ikusten da.

Ondorioz, 2009ko ebaluazioan hasierako edo behe mailan zeuden ikasleen ehunekoa 5 puntuz jaitea helburutzat hartu zen, baina Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian bakarrik lortu da Lehen Hezkuntzako 4. mailan. Gainerako konpetentzietan jaitsiera txikiagoak gertatu dira, eta Zientziarako konpetentziaren kasuan, ehunekoa igo egin da.

Hasierako mailako ikasleen ehunekorik altuenak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian gertatu dira (Lehen Hezkuntzako 4. mailan, % 31; DBHko 2. mailan, % 38). A ereduan irakasmaita horietan, hurrenez hurren, ikasleen % 6 eta % 12 matrikulatzen direnez, eta B eta D ereduetan irakas-hizkuntza bezala euskara erabiltzen denez, ikasle guztien % 25ek zenbait arlo edo irakasgai euskaraz ikasten dituzte, baina Euskarari hasierako konpetentzia-mailan daude, eta horrek ikasketetako emaitzei eragiten die.

Beste alde batetik, ED 2013 ebaluazio diagnostikoaren txostenek ez dute daturik ematen ikasle etorkinen emaitzei buruz. 2011ko ebaluazioan hobekuntza txiki bat egon zen, baina orain ezin da egiaztatu, ikasle etorkinei buruz dagoen informazio gaurkotu bakarra PISA ebaluazioak ematen duena baita.

Ebaluazio diagnostikoaren faktore garrantzitsu bat ikasleen etxeko hizkuntza da. Normala denez, etxean euskara erabiltzen duten ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte hizkuntza horretan, eta, alderantziz, familian gaztelania erabiltzen dutenek emaitza hobeak lortzen dituzte euren lehen hizkuntza horretan. Dena den, gaztelaniari dagozkion aldeak euskarari dagozkionak baino txikiagoak izan dira.

Ebaluatutako gainerako hiru konpetentzietan —Matematika, Zientzia eta Gizartea— etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleen puntuazioak gainerako ikasleek baino nabarmenki altuagoak izan dira, batez ere Matematikaren kasuan. Geruzen arteko konparazioan, konpetentzia horretan itunpeko D eredua nabarmendu da, jatorrizko ikasle euskaldunen ehunekorik altuena duen geruza.

Familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleei dagokienez —ia guztiak A eta B ereduetan eta erdia baino gehiago D ereduan—, irakas-hizkuntzak eragina izan du

emaitzetan: emaitzak hobeak izan dira irakas-hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera direnean, Zientzian eta Gizartean A eta B ereduaren arteko konparazioan agerian geratu den bezala.

Emaitzen banaketa geografikoa aztertzeko bi hizkuntza-konpetentzietako eta Matematikako datuak erabili dira. Hiru lurraldeetako datuak konparaturik, Gipuzkoa lehen postuan dago Euskaran eta Matematikan, eta hirugarren postuan Gaztelanian.

Eskola-barrutien araberrako banaketan, Matematikarako konpetentzian Tolosaldea, Deba Garaia eta Goierri dira, Gipuzkoako beste zenbaiten artean, ebaluatutako bi irakasmailetan balio erantsirik handiena izan duten barrutiak. Kontrako muturrean, daturik apalenak barrutirik mendealdekoenetan (Enkarterri eta Meatzaldea) izan dira. Datuak biltzeko sistemak ez du aukerarik ematen barruti bateko guneen arteko konparazioak egiteko, Bilboren kasuan bezala. Bilboko emaitzak Vitoria-Gasteizekoak baino apalagoak dira, adierazle sozio-ekonomikoak eta hizkuntzakoak antzerakoak badira ere.

Emaitzak hobetzeari begira Sailak planifikatutako ekintzei dagokienez, 2009ko lehen ebaluazioaren ondorioz abian jarri ziren ikastetxeetako hobekuntza-planak, kasu bakoitzean gutxien garatutako konpetentziak hobetzera bideratuak. Ikastetxeek horretarako Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen laguntza izaten dute, gure aurreko txostenean azaltzen zen bezala.

Horrekin batera, Sailak ikerlan bat jarri du abian ISEI-IVEIren bitartez: Ikerlanaren lehen fasearen helburua ikasleei balio erantsirik handiena ematen dieten ikastetxeak identifikatzea da, eta behin identifikatu ondoren, ikastetxe horiek bereizten dituzten faktore pedagogikoak eta antolamenduzkoak aztertzea, jardunbide egokien katalogoa horren premia duten beste ikastetxeetara eramanez ahal izateko. Ikastetxe horiek euren jardunbideen bidez erakusten dute emaitzak, faktore batzuen eragin estatistikotik haratago, kalitate handiko pedagogia eta antolamendu-jardunbideen bitartez hobetu ditzaketela.

Ikastetxeen kanpoko eta barruko ebaluazioei –PISA eta ebaluazio diagnostikoa– buruzko aurreko ondorioak kontuan harturik, Euskadiko Eskola Kontseiluak honako gomendioak edo proposamenak egiten dizkio Sailari:

(P3) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak hobetzeko plangintza bat finkatzea, hasierako konpetentzia-mailan ikasleen ehunekorik altuenak biltzen baitu, eta, ikas-hizkuntza izanik, gainerako arloetako ikasketei eragiten baitie. Plangintzak eskolatik kanpoko beste baliabide batzuk ere barne hartu beharko lituzke, batez ere euskararen gizarte-erabilera urria deneko lekuetan.

(P4) Ikasle etorkinen eskolatzeko-prozesuan arreta berezia jartzea, gure hezkuntza-sistemaren bereizgarria den ekitatera gehiago hurbiltzen diren emaitzak lortzeko, eta emaitza horien jarraipen publikoa egiteko.

(P5) ISEI-IVEIk egiten dituen ikerketei eta ebaluazioari dagokienez, Kontseiluak aintzat hartzen du abian jarritako prozesuen garrantzia eta egindako txostenena, eta lana hobetzen jarraitzeari begira, lau iradokizun egin nahi ditu:

- PISA 2012 ebaluazioko konpetentzia digitalei (Problemen ebazpena, Matematika eta Irakurketa) buruzko txostena argitaratzea, eta konpetentzia horietako emaitza konparatiboki apalak azaltzeko hipotesiak formulatzea. Halaber, ikasle etorkinek 2013ko ebaluazio diagnostikoan lortutako emaitzak argitaratzea.*
- Emaitza apalak eta balio erantsi txikia dituzten ikastetxeetan analisi eta ebaluazio sakonagoak egitea, emaitza hobeak lortu nahi baldin badira, ikastetxe horiek aldaketaren helburua direlako..*
- Txostenak egiteko irizpide orokor gisa, Kontseiluak irizten du hobekuntzarako proposamenak edo neurriak ere sartu behar direla, arauetan xedatzen den bezala.*
- Ikasleen ebaluazioaren esparruak hedatzea, ebaluazioa oinarrizko konpetentzien multzora gero eta gehiago zabalduz.*

(P6) Kontseiluaren iritziz, Sailak gauzatzen dituen plagintza-prozesuetan —bai atal honetan aztertu diren ebaluazioaren, prestakuntzaren eta berrikuntzaren arloan, baita eskola-matrikularen eta ikastetxeentzako baliabideen arloan ere— aldagai geografikoa sistematikoki hartu beharko litzateke kontuan, zeren, atal honetan adibide gisa egiaztatu den bezala, diagnosia eskola-mapak definitzen dituen gunetara hurbiltzeko aukera ematen baitu. Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen hezkuntza-zerbitzuak eta hezkuntzaz kanpoko beste zerbitzu batzuk, osasun eta asistentzia zerbitzuak kasu, ardazteko eta lehenesteko aukera ere eskainiko luke.

Ikuspegi hori bateragarria da ikastetxeen banakako ikerketarekin, eta ikerketa indartu ere egiten du, gaur egun ditugun adierazleen bidez ekintza planifikatuak eta ebaluagarriak gauzatu baitaitezke.

Ikasleek ikastetxeetako ebaluazioetan lortzen dituzten emaitza akademikoak, bestalde, erlazionaturik daude adierazle sozio-ekonomikoekin eta hezkuntza-adierazleekin. Lurraldeen araberrako banaketan, Gipuzkoak emaitzarik altuenak lortu ditu hurrengo irakasmalara igarotzen diren (edo, DBHko 4. mailan, titulua eskuratzen duten) ikasleen ehunekoaren adierazlean eta arlo guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoaren adierazlean ere.

Analisia eskola-guneetara hurbiltzen denean, alde handiak ikusten dira haien artean. DBHko 4. mailan arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoaren adierazlean, batez bestekoa % 70 izanik, lehen eta azken postuetako guneetako ehunekoen arteko aldea 25 puntukoa baino handiagoa izan da. Eta horrek gogoeta sakon bat ekarri beharko luke hezkuntza-sistemak ekitatea emaitzetara eramateko duen ahalmen praktikoaz, eta agerian jartzen du formulatutako azken proposamenaren garrantzia.

Ikastetxeek orain ikasleen ebaluazioaren datu sistematikoak dituzte —diagnostikoa, kanpokoa, eta ikastetxeetako ebaluazio akademikoa, barrukoa—, eta, beraz, komenigarria litzateke ikasleen ikaskuntzaren emaitzen analisisian biak integratzea.

(P7) Hori dela eta, Kontseiluak proposatzen du ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntza-planetan ikastetxeko emaitza akademikoak ere kontuan har daitezen.

Hezkuntza Marko Hirueleduna (HMH) proiektuari dagokionez, lehen faseko ebaluazioak oso emaitza onak izan ditu parte hartu duten ikastetxeetan, ingelesezko berariazko konpetentzia eta gainerako konpetentziak hobetu egin baitituzte. Aipatu behar da lehen fasean parte hartu duten ikastetxeak emaitza onengatik eta aurreratze-erritmo altuagatik bereizten direla. Itxaron egin beharko dugu, beraz, bigarren faseko emaitzak ezagutu arte, ikastetxeen kopurua eta aniztasuna handiagoa izango baitira.

Nolanahi ere, Kontseiluak berriro adierazi nahi du, bere iritziz, hirueletasuna zabaltzeko baldintzarik garrantzitsuena arloak ingelesez irakasteko gai diren irakasle nahikorik egotea da.

(P8) Hori dela eta, hirueletasuna garatzeko esperientziak zabaltzeari begira, Kontseiluak espero du Sailak ingelesez irakasteko plazen beharra hezkuntza-sistema osoan planifika dezan, eta behar horiei erantzun diezaieketen neurriak har ditzan, bai prestakuntzaren arloan baita pertsonalaren kudeaketaren arloan ere.

Hezkuntza-sare publikoan, Sailak 2009-10 ikasturtean lau urteko agintaldia hartu zuten zuzendariak karguan jarraitzearen egokitasuna ebaluatu du. Emaitzak oro har positiboak izan dira, zuzendari guztiek, bat izan ezik, balorazio positiboa izan baitute, eta horrek zuzendaritzan, aukeraketa-prozesurik egin gabe, beste lau urtez jarraitzeko aukera ematen die.

Emaitzen txostenak zuzendaritza lanaren dimentsioak zehazten ditu, konpetentzia mailarik altuenarekin landu direnak, parte hartzea eta ikastetxetik kanpoko zein ikastetxe barruko agenteekiko elkarlana alegia, eta hobetu beharreko dimentsioak, adibidez, ebaluazioaren sustapena eta aldaketaren kudeaketa.

Gainera, emaitzak ikastetxe motaren arabera sailkatu dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak bost dimentsioetako lautan nabarmendu dira, baina batez ere bitan: ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua; eta lidergo pedagogikoa. Emaitza horiek Kontseiluak 2000n eta 2009an ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren inguruan egindako ikerlanen emaitzak berretsi dituzte, eta jardunbide egoki horiek gainerako ikastetxeetara transferitzeko behar diren baldintzak ezagutzeko interesa agerian jarri dute.

Prestakuntzari eta berrikuntzari dagokienez, arreta ikastetxeetako prestakuntza eta berrikuntza proiektu integraletan jarri da. Eredua 2011-12 ikasturtean abiarazi zen,

eta oinarritzat azken ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntza-plana hartzen du, plangintza-tresna nagusian –Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)– integratzen delarik.

2012-13 ikasturtean ikastetxeen % 70ek gauzatu du prestakuntza/berrikuntza plana, hezkuntza-sareen artean alde handirik egon gabe, eta sare publikoaren kasuan hezkuntza-etapen artean alde nabaririk egon gabe. Hala ere, alde nabarmenak egon dira lurraldeen arteko banaketan: Araba (% 80) nabarmendu da, gero Gipuzkoa (% 74) eta azkenik, Bizkaia (% 64). Eskola-guneen arabera banaketara jaisten garenean, aldeak handiagoak izan dira: sei eskola-gunetan, ikastetxeen % 100ek gauzatu dute plana, eta beste zazpi eskola-gunetan, ikastetxeen % 50ek baino gutxiagok.

Izan ere, ikastetxeek plangintzarako ordezkotako sistemak eta dokumentu osagarriak izan ditzakete, baina hori horrela dela egiaztatu beharko litzateke, eta, baita ere, ikastetxean ebaluazio diagnostikoan lortu diren emaitzetatik eratorritako hobekuntza-plana ere badutela.

Laburbilduz, Kontseiluak irizten du ikasleek ebaluazioan lortutako emaitzek berez ez dutela aurrerabiderik bermatzen. Ondorioz, aurreko bi faktoreetarako estrategia ahaztu gabe, ikasleen ebaluazioan Euskadin garapen ekonomikoan eta sozialean dauden itxaropenak bezain emaitza altuak lortu nahi badira, arreta plangintza-prozesuetan jarri beharko da, eta baita balio erantsia ekartzen duten faktoreetan ere, atal honetan aipatu den ikerlanak diotenaren arabera.

3. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

SARRERA

Hasierako azpiatalean zenbait adierazle sozio-ekonomiko aztertzen dira, hezkuntzaren aldagai ekonomiko nagusiek Euskadin izan duten bilakaera azaltzeko, Espainiako eta Europako aldagaiekin konparaturik.

Analisirako bi informazio-iturri erabili dira: alde batetik, Eustatek hezkuntzaren gastuari eta finantzaketari buruz egindako estatistika; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak betearazitako aurrekontua, biak 2012. urteari dagozkionak. Bi erreferentzia horiek ematen duten informazioa bi irizpide ezberdinen arabera interpretatu behar da: Eustaten informazioa ikastetxeek beteriko zentsuko-inkesta baten bidez lortu da, eta Sailaren informazioak betearazitako aurrekontua adierazten du.

Inkestak ikastetxeetako gastuak eta diru-sarrerak jasotzen ditu, hezkuntza-zerbitzuak eta hezkuntza-administrazioaren funtzionamendua kontuan hartu gabe. Emandako erantzunei dagokien denbora-erreferentzia kasu batzuetan urte naturala da, eta beste kasu batzuetan ikasturtea. Inkestak gastuen eta diru-sarreraren ikuspegi orokor bat ematen du, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan gastuak kapituluen arabera banaturik, eta diru-sarrerak iturrien arabera ordenaturik. Konparazio-aldia hiru urtekoa da 2009tik 2012ra.

Bestalde, Sailaren betearazitako aurrekontuak aukera ematen du analisia kapituluen arabera eta programen arabera egiteko, analisia hezkuntza-sareen arabera bereiztea ezinezkoa bada ere. Konparazio-aldiak 2011 eta 2012ko ekitaldietako aurrekontuak barne hartzen ditu.

Ondorioz, jasotako datuak nekez izan daitezke elkarrekiko konparagarriak, eta beraz bi puntuak zein bere aldetik irakurtzea gomendatzen da.

Azken azpiatalean ikastetxe publikoetako irakasleen plantilen analisia azaltzen da.

3.1 ALDAGAI SOZIO-EKONOMIKOAK ETA HEZKUNTZAREN FINANTZAKETA


Ekonomiaren bilakaerak eta, baita ere, diru-sarreraren maila nahikoa bermatzeko hartzen diren neurriek eragin zuzena izaten dute hezkuntzaren finantzaketan. Zenbait aldagai ekonomikoren bilakaera jaso dira: Barne Produktu Gordina (BPG), langabezia-tasa, zerga-bilketa eta BPGarekin duen erlazioa, zor publikoa, hezkuntzako gastu publikoa BPGaren ehuneko gisa, gastu pribatuaren osaera eta guztizko gastua ikasleko.

Europaren esparruko konparazioa egin daitekeenean, 2. atalean erreferentzia gisa erabili diren lau herrialdeak hautatu dira —Alemania, Frantzia, Finlandia eta Herbehereak—, eta adierazle bakoitzean muturretako postuetan dauden bi herrialdeak.

3.1.1. Euskadiko aldagai sozio-ekonomikoak

Euskadiko ekonomian, Espainiakoan bezala, 2010eko eta 2011ko igoera txikia izan ondoren, *Barne Produktu Gordinaren (BPG)* hazkunde-tasa negatiboa izan da 2012an eta 2013an, % -1,9koa eta % -1ekoa hurrenez hurren. Europan, guztira, hazkunde-tasa Euskadikoa baino handiagoa izan da 2011tik 2013rako hiru urteetan, 1 eta 1,5 puntu artean handiagoa.

BPGaren bilakaera Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean (27) 2005etik 2013ra




	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Europar Batasuna (28)	2,2	3,5	3,2	0,7	-4,1	2,0	1,7	-0,4	0,1
Espainia	3,6	4,0	3,6	0,9	-3,7	-0,3	0,4	-1,6	-1,2
Euskadi	7,5	7,8	7,6	2,6	-5,0	2,1	0,7	-1,9	-1,0

Iturria: Eurostat eta Eustat

Langabezia-tasa, ekonomiaren atzerapenaren ildotik, modu nabarmenean igo da azken urte hauetan, 2013an % 14,3ra heldu delarik. 27en Europako batez bestekotik (% 10,6) nahiko aldendu da, baina oraindik Espainiako batez bestekotik (% 26, kontinenteko altuenenetan bigarrena, Greziaren atzetik) oso urrun dago.


Langabezia-tasaren bilakaera Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean (27) 2005etik 2013ra



Iturria: Eurostat eta Eustat

Zerga-bilketa apur bat suspertu da, eta 2013an 11.752 milioi eurokoa izatera heldu da, aurreko urtekoa baino % 3 altuagoa.

Zerga-bilketa osoa Euskadin. 2005-2013 bilakaera




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saila

Beste alde batetik, zerbitzu publikoak finantzatzeko **zor publikoa** zerga-bilketaren osagarri gisa erabiltzea oso mugaturik geratu da Aurrekontuen Egonkortasuna eta Finantzen Jasangarritasunaren 2/2012 Lege Organikoaren ondorioz.

Nolanahi ere, Euskadiko **presio fiskala** (% 31,6) Europako batez bestekotik 7,8 puntura dago oraindik ere, bien arteko aldea apur bat murriztu bada ere.

Presio fiskal orokorra, BPGaren ehunekoetan, Europar Batasuneko herrialdeetan (2011, 2012)




Iturria: Eurostat, Eusko Jaurlaritza (ELA sindikatuak jasotako datuak)

3.1.2. Hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak

Hezkuntzako gastu publikoak, BPGaren ehuneko gisa, erakunde publiko guztiek mota guztietako ikastetxeetan eta hezkuntza-zerbitzuetan, publikoetan zein pribatuetan, egindako inbertsioa jasotzen du, eta Europaren esparruan hezkuntzaren finantzaketaren adierazle nagusia da.

Education at a Glance (2014) urtekariko 2011ko datuen arabera, Europako herrialdeetan hezkuntzako gastua batez beste BPGaren % 5,6 izan da, eta Euskadiren kasuan % 4,2 izan dela kalkulatu daiteke⁸. Horrek esan nahi du 2009-2011ra bitartetan hiru hamarren jaitsi dela, Europako batez bestekoa hamarren bat igo den arren.

Hezkuntzako gastu publikoa BPGaren ehunekoetan Europar Batasuneko herrialdeetan. 2009 eta 2011. Irakaskuntza guztiak.




Iturria: *Education at a Glance* (OCDE, 2014), B4.1 taula; Euskadiren kasuan, Kontseiluak Hezkuntzaren Kontuan oinarriturik (Eustat, 2012) egindako kalkulua

Hezkuntzako gastu pribatua, bere aldetik, erakunde pribatu guztiek, funtsean erabiltzaileek edo euren familiak, mota guztietako ikastetxeen eta hezkuntza-zerbitzuen, publikoen zein pribatuen, finantzaketan egindako ekarpena da. Gastu publikoaren eta gastu pribatuaren batura hezkuntzako guztizko gastua da, Euskadiren kasuan 2011n BPGaren % 5,5 izan zelarik.

Irakaskuntza mota guztiak, unibertsitatea barne, kontuan harturik, gastu pribatua Euskadiren kasuan 2011ko guztizko gastuaren % 23,6 izan da, Espainian, % 15,5 eta Europako batez bestekoa, % 10,6.

⁸Eustatek kalkulua berretsi egin du kontsulta baten bidez. Kalkulua egiteko datu hauek erabili dira: 2009 datua (BPGaren % 4,55), BPGaren bilakaera (% 2,1 2010ean eta % 0,7 2011n) eta hezkuntzako aurrekontu betearaziaren bilakaera (% -2,7 eta % -2,4) gastu publikoaren oinarritzko osagai bezala

Hezkuntzako gastu pribatua hezkuntzako guztizko gastuaren ehunekoetan Europar Batasuneko herrialdeetan 2011n. Irakaskuntza guztiak



Iturria: Education at a Glance (OCDE, 2014), B4.1 taula; Euskadiren kasuan, Kontseiluak Hezkuntzaren Kontuan oinarriturik (Eustat, 2012) egindako kalkulua⁹

Euskadin hezkuntzako gastu pribatuak kontzeptu multzo handi bat barne hartzen du: etapa doakoetan edo itunpekoetan, irakaskuntza-kuotak, jarduera osagarriak, garraioa, jantokia eta bestelako zerbitzu osagarriak eta gastuak; matrikulatasak unibertsitate mailako irakaskuntzan eta Haur Hezkuntzako hasierako zikloan; diru-laguntzarik ez duten liburuak eta eskolako materialak etapa guztietan; hizkuntza akademiak, musika eskolak eta abar.

Osagai multzo horren barruan, Euskadiko hezkuntza-sistemaren kasuan aipatu beharrekoa da unibertsitate aurreko etapetan irakaskuntza pribatuaren osagaia, itunpekoa funtsean, % 50etik hurbil dagoela.

Termino absolutuetan, Euskadiko BPG altuari esker finantzaketa-tasa absolutuak ikasleko Europako herrialde gehienetan baino altuagoak izaten dira, nahiz eta, arestian aipatu bezala, hezkuntzara bideratutako BPGaren ehunekoa Europako batez bestekoa baino txikiagoa den. Eustaten Hezkuntzaren Kontuan, dolarretan adierazitako 2009ko datuekin, argi ikus daiteke egoera hori, batez ere unibertsitate aurreko ikasketetan¹⁰.

⁹Kalkulua aurreko kalkulutik ondorioztatu da. Adierazle horren balioak Hezkuntzaren Kontuan 2001etik 2009rako bi urteko segidan % 21,6, % 22,1, % 20,3, % 20,1 eta % 19,1 izan dira.

¹⁰Taulako datuak dolarretan adierazita daude. Taulan ez da sartzen Europako batez bestekoaren datua, eta Lanbide Heziketako Goi Maila hirugarren hezkuntzan sartzen da, unibertsitateko ikasketekin batera

Hezkuntza-erakundeetako oinarrizko zerbitzuetan, zerbitzu osagarrietan eta I+Gan ikasleko egindako urteko gastua zenbait herrialdetan (EAP \$). 2009

	<i>Lehen, Bigarren eta Bigarrenaren osteko Hezkuntza (ez Hirugarrena)</i>	<i>Hirugarren Hezkuntza (I+G barne)</i>
Norvegia	12.971	19.269
Euskadi (1)	10.982	15.860
Holanda	10.030	17.849
Frantzia	8.861	16.569
Espainia	8.818	13.614
Alemania	8.534	14.642
Finlandia	8.314	16.569
Txekiar Errepublika	5.612	8.237

1 Kalkulua ikasle kopuruan oinarriturik egin da, denbora osoko baliokidetzan matrikulatutako ikasle kopurua kontuan hartu gabe

Estatuaren esparruan, Estatuko Eskola Kontseiluak *ikasleko gastu publikoa* neurtzeko estatistika konparatzaile bat gauzatzen du. 2011ko datuen arabera Euskadi lehen postuan dago, Nafarroaren aurretik.

Ikasleko gastu publikoa unibertsitatez kanpoko hezkuntza-erakundeetan, autonomia erkidegoaren arabera. 2011 urtea

	<i>Ikastetxe guztiak</i>
Euskadi	7.112
Nafarroa	6.659
Asturias	6.088
Gaztela eta Leon	5.656
Espainia	5.206
Katalunia	5.071
Madrileko A.E.	4.296

Iturria: Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuetan oinarriturik egindako 2014 Txostena

3.2. HEZKUNTZAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA. EUSTATEN ESTATISTIKAK (2012)

Bai gastuen kasuan bai diru-sarrerenean, datuen irakurketa bikoitza egiten da: alde batetik, kasuan kasuko kontzeptuari bi hezkuntza-sareetan dagokion zenbatekoa aurkezten da; ikasleko edo unitateko gastuen eta diru-sarreraren adierazleen kasuetan, bi hezkuntza-sareen arteko aldea adierazten da. Bestetik, hezkuntza-sareetako gastuen eta diru-sarreraren bilakaera aurkezten da, 2009tik 2012ra.

3.2.1. Ikastetxe publikoen eta pribatuen gastuak

Irakaskuntza mota guztiak kontuan harturik, 2012an ikastetxe publikoen gastuak ikastetxe guztien gastuen % 64 izan dira, eta gainerako % 36, ikastetxe pribatuenak. Unibertsitate aurreko hezkuntza-etapetan ikastetxe publikoen gastuak % 59,6 izan dira, eta ikastetxe pribatuenak, % 40,4.

2009tik 2012rako bilakaeran, irakaskuntza mota guztiak batera harturik, ikastetxe publikoen gastu orokorra % 9,1 jaitsi da, eta ikastetxe pribatuena, berriz, %1,7. Unibertsitate aurreko hezkuntza-etapetan, ikastetxe publikoen gastu orokorraren jaitsiera % 12,4koa izan da, eta ikastetxe pribatuen gastu orokorra ez da ia aldatu (% -0,1). Unibertsitate aurreko hezkuntza-etapetako ikastetxeen gastuaren banaketa zehatza, txosten honen helburua, bi taula geroago jasotzen da.

Guztizko gastuaren banaketa irakaskuntza motetan eta hezkuntza-sareetan milioi (milioi €tan). Gastuaren bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean 2009tik 2012ra

	2009		2012				09-12 bilakaera	
	Publik.	Pribat.	publikoak		pribatuak		Publik.	Pribat.
Unibertsitate aurreko etapak	1.525,1	905,8	1.336,3	% 59,6	904,6	% 40,4	% -12,4	% -0,1
Goi mailako ikasketak	440,5	139,9	446,1	% 79,4	115,5	% 20,6	% 1,3	% -17,4
Arte irakaskuntza	74,2	26,2	71,2	% 74,9	23,8	% 25,1	% -4,1	% -9,2
Irakaskuntza guztiak	2.039,9	1.062,4	1.853,6	% 64,0	1.043,9	% 36,0	% -9,1	% -1,7

Irakaskuntza mota guztiekin jarraiturik, 2012an ikasleko guztizko gastua ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino % 16,8 txikiagoa izan da, eta unitateko guztizko gastua % 10,1 txikiagoa.

2009tik 2012rako bilakaeran, ikasleko guztizko gastua ikastetxe publikoetan % 15,1 jaitsi da, eta ikastetxe pribatuetan, % 5,8. Unitateko gastuari dagokionez, jaitsiera % 12,6koa eta % 3,9koa izan dira hurrenez hurren.

Ikasleko eta unitateko guztizko gastua, irakaskuntza mota guztiak batera harturik, bi hezkuntza-sareetan (€tan). 2012ko aldea eta hezkuntza-sare bakoitzaren bilakaera 2009tik 2012ra

	2009		2012			09-12 bilakaera	
	Publik.	Pribat.	Publik.	Pribat.	Aldea prib.-pub.	Publik.	Pribat.
Ikasleko guztizko gastua	7.159	5.372	6.079	5.058	-16,8%	-15,1%	-5,8%
Unitateko guztizko gastua	129.432	105.936	113.148	101.765	-10,1%	-12,6%	-3,9%

Unibertsitate aurreko etapen esparrura mugatzen bagara, hezkuntza-sareen araberrako banaketan, 2012. urtean langile-gastuak eta zerbitzu osagarrien gastuak gastu orokorren antzera banatu dira, hots, % 60,9 ikastetxe publikoetan eta gainerako % 39,1 ikastetxe pribatuetan. Gastu orokorrak ikastetxe pribatuetan (% 51) apur bat altuagoak izan dira, eta kapital-gastuak, berriz, ikastetxe publikoetan kontzentratu dira.

2009tik 2012rako bilakaeran, aldaketarik nagusienak ikastetxe publikoetan geratu dira, langile-gastuak 110 milioi euro jaitsi baitira (% 9,7), eta kapital-gastuak, inbertsioetarako erabiliak, 90 milioi (2009an erabilitakoaren % 60,3).

Guztizko gastuaren banaketa gastu motaren arabera eta hezkuntza-sarearen arabera (milioi €tan). Unibertsitate aurreko hezkuntza-etapak. 2009-2012 bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean

	2009		2012				09-12 bilakaera	
	Publik.	Pribat.	Publikoak		Pribatuak		Publik.	Pribat.
• Gastu arrunta	1.375,0	858,4	1.276,7	% 59,5	870,5	% 40,5	% -7,2	% 1,4
o Irakas-gastua	1.244,1	765,0	1.135,9	% 59,5	772,2	% 40,5	% -8,7	% 0,9
- Langile-gastua	1.136,1	653,9	1.026,0	% 60,9	657,8	% 39,1	% -9,7	% 0,6
- Gastu orokorrak	108,0	111,0	109,9	% 49,0	114,4	% 51,0	% 1,8	% 3,0
o Jarduera osagarrietako gastua	12,0	10,9	7,9	% 37,8	13	% 62,2	% -34,4	% 18,7
o Zerbitzu osagarrietako gastua	118,9	82,5	132,9	% 60,9	85,4	% 39,1	% 11,8	% 3,6
• Kapitaleko gastua	150,1	47,3	59,6	% 63,7	34	% 36,3	% -60,3	% -28,1
Gastuak guztira	1.525,1	905,8	1.336,3	% 59,6	904,6	% 40,4	% -12,4	% -0,1

Ikasleko irakas-gastua ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino txikiagoa izan da etapa guztietan, Batxilergoan % 19,2 txikiagoa izatetik Lanbide Heziketan % 39,6 izatera heldu delarik.

2009tik 2012rako bilakaeran, ikasleko irakas-gastua bi hezkuntza-sareetan jaitsi da etapa guztietan. Ikastetxe publikoetan jaitsiera Haur Hezkuntzako % 6tik Lanbide Heziketako % 27,8ra joan da; ikastetxe pribatuetan jaitsiera DBHko % 1,1etik Lanbide Heziketako % 9,8ra joan da.

Ikasleko irakas-gastua hezkuntza-sarearen eta etaparen arabera (€tan). 2012ko aldea eta hezkuntza-sare bakoitzeko bilakaera 2009tik 2012ra

	2009		2012			09-12 bilakaera	
	publikoak	pribatuak	publikoak	pribatuak	Aldea prib.-pub.	publikoak	pribatuak
Haur Hezkuntza	5.674	3.873	5.335	3.803	% -28,7	% -6,0	% -1,8
Lehen Hezkuntza	6.101	4.203	5.037	4.014	% -20,3	% -17,4	% -4,5
DBH	9.946	5.223	7.586	5.168	% -31,9	% -23,7	% -1,1
Batxilergoa	8.258	5.523	6.740	5.445	% -19,2	% -18,4	% -1,4
Lanbide Heziketa	12.224	5.912	8.822	5.332	% -39,6	% -27,8	% -9,8

Kontseiluaren 2010-2012 txostenean unibertsitate aurreko etapetan hezkuntza-sareen arteko *gastu-aldea azaltzen duten faktore nagusiak* aztertu ziren (3.3.3 azpiatala), ikasleko guztizko gastuaren adierazle horren inguruan. Honako faktore hauek identifikatu ziren:

- Ikasle/gela ratioa
- Bigarren Hezkuntzako irakasleen irakastordu kopurua

- Hezkuntza-laguntzaren premia bereziak dituzten ikasleen kopurua eta dirulaguntzadun ikasleen kopurua bi hezkuntza-sareetan
- Irakasleen lan-baldintzak eta funtzionamendua
- Irakasle/gela ratioa kokagunea geografikoaren eta curriculumaren aniztasunaren arabera
- Garraio eta jantoki zerbitzu osagarrietako eta bestelako baliabide materialetako gastua
- Plantila-elementu berezi batzuk eta askotariko profileko irakasleak
- Hezkuntza-sare bakoitzaren ezarpena kostu handieneko hezkuntza-etapetan
- Zenbait ikastetxetan irakastordu kopurua handitzea

Unitateko irakas-gastua 2012an ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino txikiagoa izan da etapa guztietan Lehen Hezkuntzan izan ezik. Gastu-alderik handienak Lanbide Heziketan (% -35,8) eta Batxilergoan (% -23,1) izan dira.

2009tik 2012rako bilakaera aztertutik, ikastetxe publikoetan unitateko irakas-gastua jaitsi egin da, % 4,8tik Haur Hezkuntzan % 22,1era DBHn. Ikastetxe pribatuetan irakas-gastua Lanbide Heziketan (% -4,8), Lehen Hezkuntzan (% -2,1) eta Haur Hezkuntzan (% -1,1) jaitsi da, baina Batxilergoan (% 3,9) eta DBHn (% 2,4), berriz, igo egin da.

Unitateko irakas-gastua bi hezkuntza-sareetan, eurotan etapen arabera. 2012ko gastu-aldea eta 2009tik 2012rako bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean

	2009		2012			09-12 bilakaera	
	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>Aldea Prib.-pub.</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>
Haur Hezkuntza	88.935	71.913	84.680	71.132	% -16,0	% -4,8	% -1,1
Lehen Hezkuntza	93.486	86.276	79.251	84.495	% 6,6	% -15,2	% -2,1
DBH	154.587	101.112	120.404	103.496	% -14,0	% -22,1	% 2,4
Batxilergoa	198.909	125.615	169.658	130.474	% -23,1	% -14,7	% 3,9
Lanbide Heziketa	170.724	99.117	146.909	94.357	% -35,8	% -13,9	% -4,8

3.2.2. Diru-sarrerak ikastetxe publikoetan eta pribatuetan

Unibertsitate aurreko etapetako ikastetxeetan 2012an finantzaketa-iturririk nagusia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekarpena diru-sarrera guztien % 82,9 izan da, udalen ekarpena, % 6,2, eta gainerako erakunde publikoen ekarpena, % 0,4. Ikastetxe pribatuen kasuan, ekarpenak % 69,4, % 0,9 eta % 0,4 izan dira, hurrenez hurren. Ikastetxe publikoetan pribatuetan baino pisu handiagoa izan duen beste diru-iturri bat kapital diru-sarrerak (inbertsioak) izan dira, % 4,2 ikastetxe publikoetan eta % 0,7 ikastetxe pribatuetan. Aipatu beharrekoa da ikastetxe publikoetako jarduera osagarriak (bisitak, txangoak, kirol lehiaketak...) kuantifikatu gabe ageri direla.

Horrekin batera, irakas-kuotak handiagoak izan dira ikastetxe pribatuetan (% 6,2) ikastetxe publikoetan (% 1) baino, “bestelako diru-sarrerak” izenburupean zerrendatutako diru-sarreraren kasuan bezala (% 7,4 eta % 0,2 hurrenez hurren).

Guztizko sarrerak diru-iturrien arabera unibertsitate aurreko etapetan(mila €tan). 2012 urtea

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Ikastetxe pribatuak</i>	
Diru-sarrera arrunta	1.286.292	% 95,8	903.883	% 99,1
Diru-laguntzak	1.204.580	% 89,7	662.077	% 72,6
Hezkuntza Saila	1.112.868	% 82,9	632.804	% 69,4
Toki-administrazioa	82.968	% 6,2	7.923	% 0,9
Bestelako publikoak	5.066	% 0,4	3.577	% 0,4
Pribatuak	3.678	% 0,3	17.773	% 1,9
Kuotak	78.383	% 5,8	174.693	% 19,2
Irakaskuntza	13.977	% 1,0	56.382	% 6,2%
Jarduera osagarriak	0	% 0,0	21.850	% 2,4
Garraioa	0	% 0,0	22.943	% 2,5
Jantokia	55.678	% 4,1	66.976	% 7,3
Bestelako zerbitzu osagarriak	8.728	% 0,7	6.543	% 0,7
Bestelako diru-sarrerak	3.329	% 0,2	67.113	% 7,4
Kapitaleko diru-sarrerak	55.997	% 4,2	8.207	% 0,9
Diru-laguntza publikoak	55.997	% 4,2	6.678	% 0,7
Diru-laguntza pribatuak	0	% 0,0	1.039	% 0,1
Bestelako diru-sarrerak	0	% 0,0	490	% 0,1
Diru-sarrerak guztira	1.342.289	% 100,0	912.090	% 100,0

Ikastetxeetako guztizko diru-sarrerak hezkuntza-sareen arabera azterturik, ikastetxe publikoek guztizko sarreraren % 59,5 jaso dute, eta ikastetxe pribatuek, % 40,5. Beste modu batean esanda, ikastetxe pribatuek iturri guztietatik jaso dituzten diru-sarrerak ikastetxe publikoetako diru-sarreraren % 68 izan dira.

Ikastetxe guztien multzoaren bi diru-iturri nagusiak kontuan harturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekarpenaren % 63,8 ikastetxe publikoetara joan da, eta % 36,2 ikastetxe pribatuetara; familiek ordaindutako kuoten artean, % 69 ikastetxe pribatuetara joan da, eta gainerako % 31, ikastetxe publikoetara.

2009tik 2012rako bilakaeran, ikastetxe publikoetako guztizko diru-sarrerak % 12,4 jaitsi dira, baina ikastetxe pribatuetakoak, berriz, % 3,1 igo dira.

Arestian aipatutako finantzaketa-iturri nagusiei dagokienez, ikastetxe publikoek 2012an Sailetik jaso duten diru-sarrera hiru urte lehenago baino % 9,4 txikiagoa izan da, baina ikastetxe pribatuek jasotakoa % 1,2 handiagoa izan da. Kuotak, bestalde, % 25,7 igo dira ikastetxe publikoetan, funtsean jantokikoak (% 29,8). Jantokiko kuotak ikastetxe pribatuetan ere igo dira (% 16,5), baina irakas-kuotak, berriz, jaitsi (% -6,7).

**Guztizko sarrerren banaketa hezkuntza-sareetan, finantzaketa-iturrien arabera (milioi €tan).
Unibertsitate aurreko etapak. 2009tik 2012rako bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean**

	2009		2012				09-12 bilakaera	
	Publik.	Pribat.	Publikoak		Pribatuak		Publik.	Pribat.
Diru-sarrera arrunta	1.385,9	874,0	1.286,3	% 58,7	903,9	% 41,3	% -7,2	% 3,4
Diru-laguntzak	1.320,7	654,4	1.204,6	% 64,5	662,1	% 35,5	% -8,8	% 1,2
Hezkuntza Saila	1.228,3	625,4	1.112,9	% 63,8	632,8	% 36,2	% -9,4	% 1,2
Tokiko administrazioa	81,2	6,6	83,0	% 91,3	7,9	% 8,7	% 2,2	% 20,1
Bestelako publikoak	6,9	6,4	5,1	% 58,6	3,6	% 41,4	% -26,7	% -44,4
Pribatuak	4,4	16,0	3,7	% 17,2	17,8	% 82,8	% -16,0	% 11,0
Kuotak	62,4	175,5	78,4	% 31,0	174,7	% 69,0	% 25,7	% -0,5
Irakaskuntza	10,1	60,4	14,0	% 19,9	56,4	% 80,1	% 38,2	% -6,7
Jarduera osagarriak	0,0	28,2	0,0	% 0,0	21,9	% 100	--	% -22,4
Garraioa	0,0	22,2	0,0	% 0,0	22,9	% 100	--	% 3,4
Jantokia	42,9	57,5	55,7	% 45,4	67	% 54,6	% 29,8	% 16,5
Bestelako zerbitzu osagarriak	9,4	7,2	8,7	% 57,2	6,5	% 42,8	% -6,8	% -9,6
Bestelako diru-sarrerak	3,3	44,1	3,3	% 4,7	67,1	% 95,3	% 2,4	% 52,3
Kapitaleko diru-sarrerak	146,9	10,4	56,0	% 87,2	8,2	% 12,8	% -61,9	% -21,1
Diru-laguntza publikoak	146,9	8,2	56,0	% 89,3	6,7	% 10,7	% -61,9	% -18,1
Diru-laguntza pribatuak	0,0	1,0	0,0	% 0,0	1	% 100	--	% 1,1
Bestelako diru-sarrerak	0,0	1,2	0,0	% 0,0	0,5	% 100	--	% -59,9
Diru-sarrerak guztira	1.532,8	884,4	1.342,3	% 59,5	912,1	% 40,5	% -12,4	% 3,1

Ikasleko guztizko diru-sarrerari dagokionez, Eustaten estatistikak modu ezberdinean sailkatzen ditu hezkuntza-etapak ikastetxe pribatuetan eta ikastetxe publikoetan, eta beraz ezin da konparaziorik egin etapa bakoitzean, baina bai bi etapa-multzotan: alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntza, eta bestetik Bigarren Hezkuntza osatzen duten etapa guztiak.

Txostenaren 1. atalean (1.5 eranskineko taula) jasotzen den 2011-12 ikasturteko ikasle kopurua haztatuz gero, Haur eta Lehen Hezkuntzaren multzoan ikasleko guztizko diru-sarrera ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino % 20,5 txikiagoa izan da, eta aldea % 28raino heldu da Bigarren Hezkuntzaren multzoan.

2009tik 2012rako bilakaeran, ikastetxe publikoetan ikasleko guztizko diru-sarrera % 21 jaitsi da Bigarren hezkuntzaren multzoan eta % 11,7 Haur eta Lehen hezkuntzaren multzoan. Ikastetxe pribatuetan ikasleko guztizko diru-sarrera % 6,8 igo da Batxilergoan eta % 5,1 Haur Hezkuntzan, baina gainerako etapetan jaitsi da, Lanbide Heziketako Goi Mailan (%-9,2), Erdi Mailan (% -5,3), DBHn (% -4,1) eta Lehen Hezkuntzan (% -2,7).

Ikasleko guztizko diru-sarrera bi hezkuntza-sareetan hezkuntza-etapen arabera (€tan). 2012ko aldea eta 2009tik 2012rako bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean

	2009		2012		09-12 bilakaera	
	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>
Haur Hezkuntza	6.569	4.004	5.798	4.209	% -11,7	% 5,1
Lehen Hezkuntza		5.046		4.908		% -2,7
DBH	10.809	6.374	8.538	6.111	% -21,0	% -4,1
Batxilergoa		5.811		6.207		% 6,8
LH Erdi Maila		6.685		6.330		% -5,3
LH Goi Maila		6.746		6.128		% -9,2

Aurreko kasuan erabilitako haztatze sistema bera jarraituz, Haur eta Lehen hezkuntzaren multzoan *unitateko guztizko diru-sarrera* ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino % 5,5 txikiagoa izan da, eta Bigarren Hezkuntzaren kasuan, % 15 txikiagoa.

2009tik 2012rako bilakaeran, unitateko guztizko diru-sarrera ikastetxe publikoetan aldi horretan % 16,9 jaitsi da Bigarren Hezkuntzaren multzoan, eta % 10,2 Haur eta Lehen Hezkuntzarenean. Ikastetxe pribatuetan diru-sarrera igo egin da Batxilergoan (% 11,9) eta Haur Hezkuntzan (% 5,9), gainerako etapa guztietan % 1 baino gutxiago jaitsi delarik.

Unitateko guztizko diru-sarrera bi hezkuntza-sareetan hezkuntza-etapen arabera (€tan). 2012ko aldea eta 2009tik 2012rako bilakaera hezkuntza-sare bakoitzean

	2009		2012		09-12 bilakaera	
	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>	<i>publikoak</i>	<i>pribatuak</i>
Haur Hezkuntza	106.978	74.468	96.119	78.897	% -10,2	% 5,9
Lehen Hezkuntza		103.132		102.353		% -0,8
DBH	177.244	122.770	147.210	121.596	% -16,9	% -1,0
Batxilergoa		131.642		147.363		% 11,9
LH Erdi Maila		113.803		113.214		% -0,5
LH Goi Maila		116.477		116.032		% -0,4

3.3. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN AURREKONTUA

Sailak betearazitako aurrekontuaren bilakaeran 2012ko datu orokorrak aurkezten dira, eta baita emaitzak ere kapituluaren, programen eta azpi-programen arabera zehazturik. Arreta berezia jarri da 1. eta 6. kapituluaren analisisian: langile-gastuak eta ikastetxe publikoetako inbertsioak. Azkenik, itunaren inguruko datuak ematen dira.

3.3.1. Hasierako aurrekontua eta betearazitako aurrekontua.

Eusko Jaurlaritzaren 2012ko hasierako aurrekontua apur bat murriztu da (% -0,9), baina bere betearazpenean % 0,7ko igoera izan du. Urte hartan funtzionarioei aparteko ordainsaria ez zitzaiela ordaindu kontuan hartzen badugu, ordainketa hori kenduz gero, 2012ko benetako igoera handiagoa izan da.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua (milioi €tan) eta 2011-2012 urteko gehikuntza

	2011	2012	Δ 12/11
Hasierako aurrekontua	10.549	10.449	% -0,9
Betearazitako aurrekontua	10.173	10.246	% 0,7
Betearazpena (%)	% 97,4	% 98,1	

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokionez, 2012an betearazitako aurrekontua % 3,3 jaitsi zen aurreko urtekoarekiko. Kendutako aparteko ordainsariaren zenbatekoa 53 milioi eurokoa izan da, hau da, urte hartan betearazitako aurrekontuaren % 2¹¹. Ondorioz, faktore hori kenduz gero, jaitsiera % 1,3koa izango litzateke

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontua (milioi €tan) eta 2011-2012 urteko gehikuntza


	2011	2012	Δ 12/11
Hasierako aurrekontua	2.670	2.648	% -0,8
Betearazitako aurrekontua	2.716	2.625	% -3,3
Betearazpena (%)	% 101,7	% 99,1	

Hezkuntzaren aurrekontua gutxi gora behera Gobernuaren aurrekontuaren laurdena da, 2008tik 2012ra oro har bi puntu inguru jaitsi da. Zorren ordainketa kontuan hartzen bada, 2011tik 2012ra % 1,1 jaitsi da, eta zorren ordainketa kontuan hartu gabe, % 0,9.

Sailaren betearazitako aurrekontua Eusko Jaurlaritzaren betearazitako aurrekontuarekiko (milioi €tan). 2008-2012 bilakaera.

	2008	2009	2010	2011	2012
Hezkuntza Saila	2.589	2.860	2.784	2.716	2.625
Eusko Jaurlaritza (osoa)	9.317	10.304	10.327	10.173	10.246
Eusko Jaurlaritza (zorren ordainketa kenduta)	9.119	10.220	10.129	9.861	9.881

¹¹ Faktore hau kontuan hartu behar da langile-gastuen kapituluaren bilakaeran, programa guztien banaketan agertzen delarik. 3.3.5 epigrafean aztertzen da aspektu hau



3.3.2. Aurrekontuaren banaketa kapituluen arabera

Hezkuntzaren 2012ko hasierako aurrekontuan jaitsiera txiki bat (% -0,8) izan da, batez ere funtzionamendu-gastuetan eta ikastetxe publikoetako inbertsioetan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontua kapituluen arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera.

Kapituluak		2011	2012	Δ 12/11
1	Langile-gastuak	1.188.808	1.204.816	% 1,3
2	Funtzionamendu-gastuak	166.920	151.484	% -9,2
3	Finantza-gastuak	100	57	% -43,0
4	Diru-laguntza arruntak	1.146.597	1.128.460	% -1,6
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioak	81.957	77.027	% -6,0
7	Kapitaleko diru-laguntzak	82.462	84.417	% 2,4
8	Maileguak eta langileen aurrerakinak	3.000	2.000	% -33,3
Guztira		2.669.844	2.648.261	% -0,8

Aurrekontuaren betearazpenean, langile-gastuak (1. kapitulua) 101 milioitan murriztu dira (% 8,5), eta ikastetxe publikoetako inbertsioak (6. kapitulua) 22 milioitan murriztu dira (% 27,1). Diru-laguntza arruntak (4. kapitulua) 42,5 milioi igo dira (% 3,8)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren betearazitako aurrekontua kapituluen arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

Kapituluak		2011	2012	Δ12/11
1	Langile-gastuak	1.185.833	1.084.808	% -8,5
2	Funtzionamendu-gastuak	231.751	234.334	% 1,1
3	Finantza-gastuak	201	56	% -72,1
4	Diru-laguntza arruntak	1.108.805	1.151.360	% 3,8
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioak	80.501	58.653	% -27,1
7	Kapitaleko diru-laguntzak	102.682	94.378	% -8,1
8	Finantza-aktiboen igoera	5.865	1.525	% -74,0
Guztira		2.715.639	2.625.112	% -3,3

3.3.3. Aurrekontuaren banaketa programen arabera

Aurrekontuaren programen araberako banaketa aztertzen bada, jaitsierarik handienak Haur eta Lehen Hezkuntzaren programan (54 milioi, % 5,2) eta Bigarren Hezkuntzaren programan (56 milioi, % 4,8) izan direla ikus daiteke, eta Unibertsitateko Hezkuntzaren programan ez dela ia aldaketarik egon.

Hezkuntza Sustapenaren programan izan da % 29ko igoera kontabilitate-prozedurari zor zaio, hurrengo atalean hamar programen banakapenean azalduko den bezala.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren betearazitako aurrekontua urtetik urterako bilakaera kapituluaren arabera (mila €tan).

<i>Programa</i>	<i>2011</i>	<i>2012</i>	<i>Δ12/11</i>
Egitura eta laguntza	37.320	31.942	% -14,4
Haur eta Lehen Hezkuntza	1.036.250	982.157	% -5,2
Bigarren Hezk., Konp. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	958.440	912.668	% -4,8
Unibertsitate Hezkuntza	348.458	347.072	% -0,4
Araubide Bereziko Hezkuntza	60.750	58.078	% -4,4
Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Prestakuntza	39.333	33.431	% -15,0
Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	41.755	36.684	% -12,1
Hezkuntza sustapena	117.220	151.257	% 29,0
Sistemaren euskalduntzea	24.122	18.729	% -22,4
Ikerketa	37.209	37.534	% 0,9
Berriztatzerako fondoa	14.781	15.560	% 5,3
Guztira	2.715.639	2.625.112	% -3,3

3.3.4. Unibertsitatez kanpoko programen banakapena, kapituluaren eta azpi-programen arabera

▪ Egitura eta laguntza programa

Hezkuntza administrazioaren ohiko funtzionamendua eta egitura finantzatzeko programa 2012an % 14,4 jaitsi da 2011koarekiko.

Egitura eta laguntza programaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

<i>Kapituluak</i>	<i>2011</i>	<i>2012</i>	<i>Δ 12/11</i>
1. Langile-gastuak	29.471	26.490	% -10,1
2. Funtzionamendu-gastuak	3.454	3.240	% -6,2
3. Finantza-gastuak	201	56	% -72,1
4. Diru-laguntza arruntak	25	10	% -60,0
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	2.303	621	% -73,0
8. Finantza-aktiboen igoera	1.865	1.525	% -18,2
Betearazitakoa guztira	37.320	31.942	% -14,4
Hasierako aurrekontua	39.653	34.989	
Betearazpena (%)	% 96,3	% 91,3	

▪ **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza programa**

Zenbatekoaren jaitsierarik handiena langile-gastuetan (39,5 milioi, % 7,8) izan da, eta ehunekoetan, ikastetxe publikoetako inbertsioetan (% 51,1, ia 20 milioi).

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza programaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

<i>Kapituluak</i>	<i>2011</i>	<i>2012</i>	<i>Δ 12/11</i>
1. Langile-gastuak	509.635	470.126	% -7,8
2. Funtzionamendu-gastuak	110.698	112.672	% 1,8
4. Diru-laguntza arruntak	363.382	369.082	% 1,6
6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	38.447	18.817	% -51,1
7. Kapitaleko diru-laguntzak	14.088	11.460	% -18,7
Betearazitakoa guztira	1.036.250	982.157	% -5,2
Hasierako aurrekontua	934.323	924.818	% -1,0
Betearazpena (%)	% 110,9	% 106,2	

Bai programa honetan baita Bigarren Hezkuntzarenean ere, jantokirako aurrekontua 2 eta 6 kapituluetan (funtzionamendu-gastuak eta ikastetxe publikoetako inbertsioak, hurrenez hurren) sartuta dago. Haur eta Lehen Hezkuntza programan 81,1 milioi eurokoa izan da, eta Bigarren Hezkuntza programan, 10 milioiokoa. Guztizko 91,1 milioietatik, 55 milioi familien ekarpenak izan dira, eta Sailaren gastu bezala sartuta daude 2 kapituluak.

Sailak jantokiko diru-laguntzetarako egin dituen ekarpenak Hezkuntza Sustapena programan sartuta daude.

- **Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programa**

Programa honetan izandako jaitsiera ia osoa langile-gastuen kapituluaren izan da (44 milioi, % 8,5). Azpi-programaren artean, jaitsiera nagusia Batxilergo azpi-programan izan da (23 milioi, % 6,4).

Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programako aurrekontuaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	520.017	476.059	% -8,5
	2. Funtzionamendu-gastuak	79.482	81.584	% 2,6
	4. Diru-laguntza arruntak	316.332	315.324	% -0,3
	6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	37.817	36.285	% -4,1
	7. Kapitaleko diru-laguntzak	4.792	3.417	% -28,7
Azpi-programak	DBH	320.542	310.628	% -3,1
	Batzilergoa	354.175	331.474	% -6,4
	Lanbide Heziketa	262.277	251.004	% -4,3
	Hezkuntza Konp. eta beste batzuk	21.444	19.561	% -8,8
Betearazitakoa guztira		958.440	912.668	% -4,8
Hasierako aurrekontua		936.774	938.500	% 0,2
Betearazpena (%)		% 102,3	% 97,2	

▪ **Araubide Bereziko Hezkuntza programa**

Araubide Bereziko Hezkuntza programako aurrekontuaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	33.537	31.490	% -6,1
	2. Funtzionamendu-gastuak	3.974	3.962	% -0,3
	4. Diru-laguntza arruntak	21.974	20.142	% -8,3
	6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	1.021	2.445	% 139,5
	7. Kapitaleko diru-laguntzak	240	39	% -83,8
Azpi-programak	Arte irakaskuntza (arte, musika)	35.418	34.256	% -3,3
	Hizkuntzen irakaskuntza	23.731	22.396	% -5,6
	Teknika eta kirol-irakaskuntza	1.600	1.427	% -10,8
Betearazitakoa guztira		60.750	58.078	% -4,4
Hasierako aurrekontua		56.991	61.620	% 8,1
Betearazpena (%)		% 106,6	% 94,3	

▪ **Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programa**

Programako aurrekontuaren betearazpena oso baxua izan da (% 70,2), eta oro har % 15 jaitsi da. Laguntza zerbitzuak (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) azpi-programan izan da jaitsierarik handiena (5 milioi euro, % 15,4).

Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programako aurrekontuaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	29.971	26.086	% -13,0
	2. Funtzionamendu-gastuak	3.751	3.039	% -19,0
	4. Diru-laguntza arruntak	5.085	4.165	% -18,1
	6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	526	140	% -73,4
Azpi-programak	Irakasleen prestakuntza	5.297	4.889	% -7,7
	Laguntza zerbitzuak (ISEI eta Berritzeg)	32.596	27.576	% -15,4
	Berrikuntzaren eta kalitatearen sustap.	1.441	965	% -33,0
Betearazitakoa guztira		39.333	33.430	% -15,0
Hasierako aurrekontua		50.355	47.590	% -5,5
Betearazpena (%)		% 105,6	% 70,2	

▪ **Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programa**

Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programako aurrekontuaren betearazpena kapituluaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	35.760	32.080	% -10,3
	2. Funtzionamendu-gastuak	1.841	1.469	% -20,2
	4. Diru-laguntza arruntak	3.819	2.872	% -24,8
	6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	336	263	% -21,7
Azpi-programak	Etengabeko Ikaskuntza	4.634	3.329	% -28,2
	Helduen Hezkuntza	37.121	33.356	% -10,1
Betearazitakoa guztira		41.755	36.684	% -12,1
Hasierako aurrekontua		39.533	38.515	% -2,6
Betearazpena (%)		% 105,6	% 95,2	

▪ **Hezkuntza Sustapena programa**

Programa honetako aurrekontuaren gehikuntza Diru-laguntza arruntak kapituluaren eta Diru-laguntzak eta laguntzak azpi-programan izan da. Arestian aipatu den bezala, kontabilitate arazoa da, diru-laguntzak ikasturte baterako ematen baitira,

eta beraz baliteke Sailak bi urte natural ezberdinetan ordaintzea, hau da, ikasturtearen lehen hiruhilekoan edo bigarrenetik aurrera.

2012-13 ikasturtearen kasuan, aurrekoan ez bezala, diru-laguntzak gehienbat lehen hiruhilekoan ordaindu ziren. Ondorioz 2012an betearazitako gastu bezala kontabilizatu dira, eta horrek % 51,4ko gehikuntza ekarri du.

Hezkuntza Sustapena programako aurrekontuaren betearazpena kapituluenetan azpi-programen arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	14.192	13.091	% -7,8
	2. Funtzionamendu-gastuak	25.293	25.638	% 1,4
	4. Diru-laguntza arruntak	77.735	112.529	% 44,8
Azpi-programak	Garraioa eta jantokia	42.535	39.240	% -7,7
	Diru-laguntzak eta laguntzak	72.979	110.495	% 51,4
	Jardueren sustapena (Guraso elk.)	1.706	1.523	% -10,7
Betearazitakoa guztira		117.220	151.257	% 29,0
Hasierako aurrekontua		177.160	172.587	% -2,6
Betearazpena (%)		% 66,2	% 87,6	

Orain, urte naturalez urte naturaleko bilakaeraren orde, ikasturtez ikasturteko bilakaera kontuan hartzen badugu, unibertsitateko diru-laguntzak kendurik, unibertsitatez kanpoko etapetako diru-laguntzetan, jantokiko diru-laguntzak barne, % 3,5eko murrizketa egon dela ikus daiteke.

Diru-laguntzatarako, jantokietarako eta eskola-garraiorako aurrekontuen betearazpena unibertsitatez kanpoko etapetan. 2011-12 eta 2012-13 ikasturteen arteko bilakaera (mila €tan)

	2011-12	2012-13	Δ
Unibertsitatez kanpoko eskola-garraioa	25.574	25.668	% 0,4
Unibertsitatez kanpoko etapetarako diru-laguntzak (jantokikoak barne)	52.133	50.336	% -3,5
Ikastetxe publikoetako jantokien finantzaketa	32.169	33.789	% 5,0

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzei dagokienez, hiru modalitateetan antzerako jaitsiera izan da, % 10 ingurukoa.

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzak (mila €tan)

	2010-11	2011-12	Δ12/11
Elkarteen federazioak (publikoak eta itunpekoak)	579	519	% -10,4
Elkarteen eskolaz kanpoko jarduerak (publikoak eta itunpekoak)	781	702	% -10,1
Irakaskuntza kooperatiben eskolaz kanpoko jarduerak	53	48	% -9,4

▪ **Euskalduntze programa**

Euskalduntze programako aurrekontuaren betearazpen maila oso apala izan da urtetik urtera, eta 2012an aurrekontuaren % 39,4koa baino ez da izan. Aurreko urtetik gehien murriztu den programa izan da (% -22,4)

Euskalduntze programako aurrekontuaren betearazpena kapituluaren eta azpi-programaren arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

		2011	2012	Δ 12/11
Kapituluak	1. Langile-gastuak	13.249	9.387	% -29,1
	2. Funtzionamendu-gastuak	2.854	2.306	% -19,2
	4. Diru-laguntza arruntak	7.989	6.975	% -12,7
	6. Ikastetxe publikoetako inbertsioak	39	61	% 56,4
Azpi-programak	Irale	16.876	12.997	% -23,0
	EGA/EIMA	856	918	% 7,2
	Nolega	5.936	4.401	% -25,9
	Glottodidaktika/EGB	454	413	% -9,0
Betearazitakoa guztira		24.122	18.729	% -22,4
Hasierako aurrekontua		48.447	47.479	% -2,0
Betearazpena (%)		% 49,8	% 39,4	

3.3.5. 1. eta 6. kapituluaren analisia: langile-gastuak eta ikastetxe publikoetako inbertsioak

Langile-gastuak (1. kapitulua) 3. eranskinean banakatu dira hamabi kontzeptutan programa bakoitzean. Ondorengo taulan hamabi kontzeptuak seitan multzokatu dira programa guztietarako.

Aurrekontuaren 1. kapituluaren banaketa kontzeptuen arabera (mila €tan). 2011-2012 bilakaera

	2011	2012	Δ 12/11
Langile finkoak: funtzionarioak, lan-legepekoak edo goi-karguak	862.940	816.797	% -5,3
Aldi-baterako, bitarteko edo behin-behineko langileak	8.926	8.015	% -10,2
Ordezkapenak	82.178	68.699	% -16,4
Indemnizazioak	33.421	6.428	% -80,8
Pentsioen sistema osagarriko ekarpenak eta bestelako gastu sozialak	16.352	1.629	% -90,0
Kotizazio sozialak	182.015	183.241	% 0,7
1. kapitulua guztira	1.185.832	1.084.809	% -8,5

Aipatu beharreko lehen datua kalte-ordainen 27 milioiko jaitsiera da (% -80,8), lehen 60 urtekoei aurretiko erretiroarekin batera ematen zitzairen diru-saria 2012an desagertzearen ondorioa.

Bigarren datua azpi-atal honen hasieran aipatutako da, hots, 2012ko abenduko aparteko ordain-saria kendu izana eta 2013ko ekainekoa 2013ko urtarrilera atzeratu izana. Atzerapenak ez du ondorio praktikorik izan langileentzat, baina 53 milioi euroko kontabilitate-aldea sortu du. Alde horrek azalduko luke langile finkoen gastuen % 5,3ko jaitsiera eta, eta baita ere, behin behineko langileen beste bi kategorietan izandako antzeko ehunekoa. Ordezkapenetan jaitsiera handiagoa izan da, eta horrek esan nahi du baliabide horietan jaitsiera benetakoa izan dela.

Langile-gastuetako aurrekontuaren jaitsiera batez ere aparteko ordain-sariaren ondorio izan dela berresten duen beste elementu bat kontratazioak islatzen dituzten kotizazio sozialen kontzeptua ez jaitea da.

Ikastetxe publikoetako inbertsioei dagokien **6. kapitulu**an, eraikuntzak (17 milioi euro, % 33,1) hornikuntzak (5 milioi, % 16,9) baino gehiago jaitsi dira.

Ikastetxe publikoetako inbertsioei dagokien 6. kapituluaren banaketa bere bi kontzeptuen eta programa nagusien arabera (mila €tan)

		2011	2012	Δ12/11
Eraikuntzak	Haur eta Lehen Hezkuntza	33.226	13.512	% -59,3
	Bigarren Hezk., Konpens. Hezk. eta LH	16.730	18.338	% 9,6
	Gainerako programak	614	1.996	% 225,1
	Eraikuntzak guztira	50.570	33.846	% -33,1
Hornikuntzak	Haur eta Lehen Hezkuntza	5.221	6.108	% 17,0
	Bigarren Hezk., Konpens. Hezk. eta LH	21.088	17.007	% -19,4
	Gainerako programak	3.622	1.764	% -51,3
	Hornikuntzak guztira	29.931	24.879	% -16,9
	Inbertsioak guztira	80.501	58.726	% -27,0
	Hasierako aurrekontua	81.957	77.027	% -6,0
	Betearazpena (%)	% 98,2	% 76,2	

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako lanen kasuan, udalek ere finantzatzen dituzte eraikuntzen konponketa-lanak, EHAA-n argitaratutako laguntzetarako aginduek xedatzen dutenaren arabera. Laguntzetarako deialdi arruntetan, Sailak laguntzen % 60 finantzatzen du, gainerako inbertsioen gastuak udalek finantzatzen dituztelarik.

2012an programaren betearazpena % 19ko murrizketa egon da, deialdiaren baldintzak betetzen zituzten udalen eskabide guztiak onartu badira ere (2012ko azaroaren 5eko Ebazpena, EHAA 2012/12/18).

Sailak eta udalek elkarrekin finantzatutako lan txikiak. 2011 eta 2012

	2011	2012	Δ12/11
EHAako ebazpenaren data	29/12/11	28/12/12	
Udal kopurua	91	110	% 21
Ikastetxe kopurua	175	171	% -2
Lan kopurua	326	292	% -10
Sailaren ekarpena	10.305	8.299	% -19
Udalen ekarpena	6.869	5.533	% -19

Horrez gain, eskola eraikuntzen mantentze, zaintze eta jagoletza gastuak udalek ordaintzen dituzte.

3.3.6. Ikastetxe pribatuekiko ituna

Sare pribatuaren finantzaketa batez ere hezkuntza-itunen bidez gauzatzen da, kontzeptu batzuk laguntzen edo diru-laguntzen bidez finantzatzen diren arren, hala nola, 0-3 tartearen irakasten duten haurreskolak, plantilak osatzen dituzten irakasle bereziak, hornikuntzak, proiektuak, prestakuntza edo inbertsioak.

▪ Itunaren modulua

Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua Eusko Legebiltzarrak urtero onesten dituen Aurrekontu Orokorretan finkatzen da. Ikasgela edo unitate bakoitzaren finantzaketa publikoa honako kontzeptu hauek osatzen dute:

- Langile irakasle eta ez-irakasleen gastuak, Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak barne.
- Funtzionamendu-gastuak.
- Mantentze eta zaintze gastu arruntak.
- Inbertsio errealak berritzea.

Kontzeptu nagusietako guztizko zenbatekoak, hezkuntza-etapetan, ez dute aldaketarik izan aurreko urtekoekiko.

Ekonomia moduluaren zenbatekoa ikasgela edo unitate bakoitzeko 2012an (€tan)

	2012
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	62.688
Lehen Hezkuntza	65.710
DBH (1. zikloa)	83.353
DBH (2. zikloa)	101.296
LOGSE Batxilergoa	104.008

- **Itunpeko ikastetxeetako ikasgelen kopuruaren bilakaera**

2012-13 ikasturtean itun osoa izan duten ikasgelen kopurua 39 unitatetan murriztu da aurreko ikasturtearekiko, eta itun partzialeko ikastetxeen kopurua 9 unitatetan murriztu da.

Murrizketa batez ere Batxilergoan (-39) izan da, Lehen Hezkuntzako Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorretan (-16) eta Haur Hezkuntzan (-11). Lehen Hezkuntzan, berriz, aurreko ikasturtean baino itunpeko 17 ikasgela gehiago egon dira.

Itunpeko ikasgelen kopuruaren bilakaera 2010-11 ikasturtetik 2012-13 ikasturtera(modulu osoa edo partziala)

	2011-12		2012-13		Δ azken ikasturtean	
	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	1.283	0	1.272	0	-11	0
Lehen Hezkuntza	2.510	0	2.527	0	17	0
Hezkuntza Berezia (Lehen H., irekiak)	216	0	219	0	3	0
Hezkuntza Berezia (Lehen H., itxiak)	114	0	98	0	-16	0
DBH 1. zikloa	815	0	816	0	1	0
DBH 2. zikloa	809	0	802	0	-7	0
Hezkuntza Berezia (Bigarren H., irekiak)	214	0	212	0	-2	0
Batxilergoa	552	0	513	0	-39	0
Lanbide Heziketa Erdi Maila	43	187	44	193	1	6
Lanbide Heziketa Goi Maila	94	327	105	312	11	-15
Hezkuntza Berezia (Lanbide Hez., itxiak)	20	0	21	0	1	0
HLPP	62	0	64	0	2	0
Itunpeko ikasgelen kopurua guztira	6.732	514	6.693	505	-39	-9

- **Hezkuntzaren adierazleen analisia Eusko Legebiltzarrean**

Gure aurreko 2010-2012 txostenean jasotzen zen bezala, 2012ko ekainaren 14ko osoko bilkuran Eusko Legebiltzarrak txosten bat egiteko erabakia hartu zuen, “euskal hezkuntza-sistemari buruzko analisi objektibo eta gardena egiteko balio duten adierazle batzuk finkatzeko”.

Legebiltzarrerako proposamenaren justifikazioak honela zioen: “euskal hezkuntza-sistemako zenbait erakundek eta agentek behin baino gehiagotan adierazi dute hezkuntza-akordio baten beharra, euskal hezkuntza-sistemari egonkortasuna, jasangarritasuna eta emaitza hobeak emango dizkiona, sistema osatzen duten bi hezkuntza-sareen elkarren laguntzaren bidez”.

Onetsitako legez besteko proposamenak honela zioen:

“1. Eusko Legebiltzarrak erabaki du lantaldea sortzea Hezkuntza Batzordean, euskal hezkuntza-sistemari buruzko azterlan objektibo eta gardena egiteko erabili beharreko

adierazle sorta finka dezan hilabeteko epean, konponbide adostuak, jasangarriak eta iraunkorrak ekarriko dituen akordio zabal bat lortze aldera.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lantaldearen lana amaitzen denetik aurrera hilabete biko epean azterlan hori burutu eta aurkez dezala Hezkuntza Batzordean, legebiltzar-taldeek dagozkion ekarpenak egin ditzaten"

Kontseiluak jakinarazi nahi du proposamena ez dela gauzatu.

3.4. IKASTETXE PUBLIKOETAKO IRAKASLEEN PLANTILEN ANALISIA

Sailak ikastetxe publikoetako irakasleen plantilari buruzko informazio zehatza, bai plantila organikoa bai funtzionamendukoa, ikastetxez ikastetxekoa, eman ohi dio Kontseiluari, Lanpostu-zerrendaren (LZ) inguruko irizpenak egiteko.

Gainera, txosten hau egin ahal izateko ikastetxe publikoen inguruko hainbat datu orokor ere eman dizkio, hala nola lanpostuen egonkortasuna, adin-piramidea, bajak eta ordezkapenak.

3.4.1. Plantilen bilakaera eta irakasle/gela eta ikasle/irakasle ratioen bilakaera

Kontseiluak 2008-10 txostenean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasle/gela ratioari buruzko ikerlan bat egin zuen, 2009-10 eta 2010-11 ikasturteetan ratioa 1,75 tik 1,71ra jaitsi zela ondorioztatu zuelarik. Ratioan eskolaz kanpoko lanak, zuzendaritza eta administrazio lanak (zuzendaritza taldea, administrazio laguntza eta jantokiko ardura) egiten dituzten irakasleak ere sartzen dira.

Oraingo txostenean, ratioak 2010-11tik 2012-13ra (bi ikasturte) izandako bilakaera aztertzean, ia aldaketarik ez dela egon ikus daiteke, 1,71tik 1,70era jaitsi baita. Ikasle/gela ratioa 18,5eraino igo da. Lehen Hezkuntzan ikastaldeko gehieneko ikasle kopurua 25 da, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, 23, eta bi urtekoen irakasmailan, 18.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantila osoaren bilakaera 2010-11 ikasturtetik 2012-13 ikasturtera

	2010-11	2012-13	Δ bi ikasturtetan
LZko irakasleak	8.729	8.751	22
Plantila osagarria	803	855	52
Plantila osoa	9.532	9.606	74
Unitateak	5.586	5.659	73
Ikasleak	100.607	104.960	4.353
Irakasle/gela ratioa	1,71	1,70	-0,01
Ikasle/gela ratioa	18,0	18,5	0,5
Ikasle/irakasle ratioa	10,6	10,9	0,3

“Plantila osagarria” deitutakoan (LZ) lanpostu-zerrendaren dekretuan ikastetxe jakin bati esleiturik ageri ez diren plazak sartzen dira. Plaza horiek, berez, irakasgai berezi bat, adibidez, hizkuntza sendotzea (171 plaza) edo erlijio katolikoa (140), ikasi behar duten ikasleen matrikularen arabekoak dira. Jantokiko arduradunak (203) eta eskolaz kanpoko jardueren arduradunak (155), gehienetan liburutegiko arduradunak, ere multzo garrantzitsuak dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantila osagarriaren banaketa. 2012-13 ikasturtea

Jarduera	Ikrakasle kopurua
Jantokiko ardura	203
Hizkuntza Indartzeko Programa (HIP)	171
Eskolaz kanpoko jarduerak	155
Erlijio katolikoa	140
Bestelakoak	186
Plantila osagarria guztira	855

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, irakasle/gela ratioa 2,60tik 2,53ra jaitsi zen 2009-10etik 2010-11ra, baina hurrengo bi ikasturteetan suspertu egin da, 2012-13 ikasturtean 2,56ra heldu delarik. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan administrazioako langileak plantila berezi batekoak dira.

Ikasle/gela ratioa 19,1etik 20,6ra igo da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen plantila osoaren bilakaera 2010-11 ikasturtetik 2012-13 ikasturtera

	2010-11	2012-13	Δ dos cursos
Bigarren Hezkuntzako kidegoko irakasleak	7.251	7.338	87
Maisu-maistren kidegoko irakasleak	1.402	1.279	-123
Plantila osoa	8.653	8.617	-36
Unitateak	3.424	3.360	-64
Ikasleak	65.383	69.127	3.744
Irakasle/gela ratioa	2,53	2,56	0,03
Ikasle/gela ratioa	19,1	20,6	1,5
Ikasle/irakasle ratioa	7,6	8,0	0,4

3.4.2. Irakasle/gela eta ikasle/irakasle ratioen banaketa zenbait aldagaien arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko ia guztiek, Bigarren Hezkuntzakoek ez bezala, hezkuntza-etapen egitura bera dute, eta irakasleen plantilak irizpide berekin hornitzen dira. Horri esker, irakasle/gela ratioaren aldaketak ikastetxearen tamainaren eta kokagune geografikoaren irizpideekin azter daitezke, txostenean lehenago aipatu den bezala, kokagune geografikoaren arabera ikasleen jatorri sozio-ekonomikoa, kulturala eta hizkuntzakoa anitza izan baitaiteke.

- **Ikastetxearen tamainaren arabera**

Ikastetxe txikietan ratioa handiagoa izaten da, irakasle espezialisten gutxieneko kopurua behar dutelako. Tamaina txikiko (hamar unitate edo lerro oso bat baino gutxiago) eta tamaina handiko (hamar unitateko hiru lerro baino gehiago) ikastetxeen arteko ratio-aldea bi hamarrenekoa izatera hel daiteke, eta horrek lerro oso bakoitzeko bi irakasle gehiago izatea esan nahi du.

Irakasle/gela eta ikasle/gela ratioa ikastetxearen tamainaren arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. 2012-13 ikasturtea

Ikastetxearen tamaina	Ikastetxeak K	Unitateak K	Ikasleak K	Plantila osoa	Irakasle/gela ratioa	Ikasle/gela ratioa	Ikasle/irak. ratioa
1-10 unitate	108	747	10.845	1.334	1,79	14,5	8,1
11-20 unitate	118	1.918	33.961	3.310	1,73	17,7	10,3
21-30 unitate	77	1.908	37.985	3.217	1,69	19,9	11,8
> 30 unitate	29	1.086	22.169	1.734	1,60	20,4	12,8
Ikastetxeak guztira	332	5.659	104.960	9.595*	1,70	18,5	11,1

(*) Ez daude sartuta Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako unitateetan, lanean diharduten hamar maisu-maistra

Tamaina handiagoko ikastetxeetan, gehienak hiriguneetan kokatuak, ikasle/gela ratio handiagoa izaten dute, eta, beraz, aurreko bi faktoreak konbinaturik, ikasle/irakasle ratioa ere handiagoa izaten dute.

▪ Lurraldeen eta eskola-guneen arabera

Hiru lurraldeak konparaturik, ikasle/gela ratorik txikiena (1,64) Gipuzkoak du, eta handiena (1,73), Bizkaia. Horrek esan nahi du, plantilak finkatzeko irizpide berak erabiliz, Bizkaiko ikastetxeek lerro bakoitzeko, batez beste, Gipuzkoako ikastetxeek baino ia irakasle bat gehiago dutela.

Irakasle/gela eta ikasle/gela ratioa lurraldearen arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. 2012-13 ikasturtea.

	<i>Ikastetxeak K</i>	<i>Unitateak K</i>	<i>Ikasleak K</i>	<i>Plantila osoa</i>	<i>Irak./gela ratioa</i>	<i>Ikasle/gela ratioa</i>	<i>Ikasle/irak. ratioa</i>
Araba	57	949	18.092	1.623,4	1,71	19,1	11,1
Bizkaia	167	2.806	51.605	4.841,8	1,73	18,4	10,7
Gipuzkoa	108	1.904	35.263	3.130,2	1,64	18,5	11,3
Euskadi	332	5.659	104.960	9.595,40	1,70	18,5	10,9

Ikasle/gela ratioa handiagoa izan da Araban (19,1), eta ondorioz ikasle/irakasle ratioan lurraldeen arteko aldeak (10,7 Bizkaian; 11,3 Gipuzkoan) moteldu egin dira.


Irakasle/gela ratioa eskola-mapako guneen arabera aztertzen badugu (16. mapa eta 3.2 eranskina), batez bestekoa 1,70 izanik, aldaketa handiak gertatu direla ikus daiteke Kostaldeko 1,57tik Txurdinaga-Otxarkoagako 1,90era, eta horrek hamar unitateko lerro bakoitzeko hiru irakasle gehiago izatea esan nahi du.

Ikasleen ezaugarriak eta ebaluazioko emaitzak aintzat hartzen baditugu, erraz uler daiteke, oro har, irakasle/gela ratio handia duten eskola-guneen egoera: Bilbon, Txurdinaga-Otxarkoaga, arestian aipatutakoa, Errekalde (1,85), Ibaiondo (1,81), Abando (1,79) eta Basurtu (1,78) barrutiak; Nerbioiaren ezker aldean, Sestao (1,83), Portugalete (1,82), Santurtzi (1,82) eta Barakaldo (1,78); Arabaren hegoaldean, Arabako mendiak (1,77) edo Arabako Errioxa (1,76); Andoain (1,86) eta Trapaga (1,77).


Aipatu beharrekoa da, beste muturrean, irakasle/gela ratorik txikiena duten hiru eskola-gunetarik bik, Kostaldea (1,57) eta Urola Erdia (1,59) alegia, ebaluazio diagnostikoko Matematika proban Euskadiko balio erantsirik handiena lortu zutela, eta horrez gain euskarazko konpetentzian balio absoluturik altuena lortu zutela. Ebaluazioaren kasuan, bi hezkuntza-sareetako ikastetxeek parte hartu zuten, % 50ean ia.

Zerrenda horretako posturik baxuenetako eskola-guneak ez dira nabarmentzen euren ikasleen ISEK indize altuagatik ezta ere ebaluazioan emaitza onak lortzeagatik, hala nola, Hernani (1,60), Lasartealdea (1,61), Ekialdeko lautada (1,61) eta Uribe Kosta (1,63).

16. mapa.Irakasle/gela ratioa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetaneskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea



17. mapa. Ikasle/irakasle ratioa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetaneskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea



Ikasle/irakasle ratioa (17. mapa eta 3.2 eranskina) inbertsioarekin edo eskola-plazaren kostuarekin erlaziorik handiena duen ratioa da. Ratioaren batez besteko balioa 10,9 izan da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan; baliorik txikiena (7,6) Arabako mendietakoa izan da eta handiena (13,2), Hernanikoa.

Ikasle/irakasle ratioa txikienera postuetan, hau da arreta pertsonalizatuena den lekuetan, ISEK indize apaleko edo nekazal biztanleriako eskola-guneak daude. Lehen kasuan Txurdinaga-Otxarkoaga (8,6), Andoain (8,9), Basurtu (9,4) eta Donostia-Ekialdea (9,6) daude; bigarren kasuan, Arabako mendiak (7,6), Arabako Errioxa (8,3) eta Amurrio (9,1) daude.


Beste muturrean, aurreko adierazlearekin gertatu den egoera bera gertatzen da hemen ere, eta ikasle/irakasle ratioa handiena duten lau eskola-guneetatik hiru ez dira nabarmentzen euren ISEK indize altuagatik ezta ere emaitza onak lortzeagatik: Hernani (13,2), Lasartealdea (12,9) eta Bidasoa (12,4).

3.4.3. Irakasleen egonkortasuna

Lan Eskaintza Publikoetarako (LEP) deialdien ondorioz irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionarioen kopurua handitu egin da, behin-behineko irakasleen kopurua murrizteaz batera.


Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiak kontuan izanik, 2008-09 ikasturtetik 2013-14ra karrerako funtzionarioen kopurua 1.568 hazi da, eta behin-behineko irakasleak 888 gutxiago dira. Hezkuntza-etapetako banaketa 3.3 eranskinean azaltzen da.

Hiru motetako irakasleen (karrerako funtzionarioak, praktiketako funtzionarioak eta behin-behinekoak) kopuruaren bilakaera 2008-09 ikasturtetik 2013-14ra. Ikastetxe publikoak.



Bilakaera ez da berdina izan hezkuntza-etapa guztietan. Haur eta Lehen Hezkuntzan behin-behineko irakasleen kopurua milatan murriztu da bost urte horietan, eta Bigarren Hezkuntzakoa apur bat igo da.

Behin-behineko irakasleen kopurua ikastetxe publikoetan hezkuntza-etapen arabera. 2008-09 ikasturtetik 2013-14rako bilakaera



Behin-behineko irakasleek betetzen dituzten plazak lekualdatze-lehiaketa batean ateratzeko hiru eragozpen nagusi daude: plazen izaera koiunturala, plazak definitzeko zailtasuna eta plaza bat sortzeko ordu kopuru nahikorik ez egotea. Beste alde batetik, behin-behineko plazak ez dira beti izaten lanaldi osokoak. Hiru motatakoak bereizi daitezke:

- LZ ofizialetik kanpo geratzen diren plazak, “plantila osagarria” deituak; 3.4.1. azpiatalean deskribatu dira. 965 plaza dira, ikastetxe guztietako lanaldi osoko behin-behineko 4.910 plazen % 20, eta, ondorengo taulan ikus daitekeenez, ugariagoak dira Haur eta Lehen Hezkuntzan.
- “Ikastetxeak moldatu beharreko plazak” (2.471) LZ barruan sartzen dira. Multzorik handiena osatzen dute eta behin-behineko plaza guztien % 50 dira. Bi hezkuntza-etapetan zenbait plaza zuzendaritzari esleitutako ordu-kreditoekin osatzen dira.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, kasu askotan, zenbait irakasgaietako ordu-hondarrekin osatzen dira (LZn plaza bat ateratzeko 12 ordu behar dira), etapa horretan, batez ere Lanbide Heziketan, hainbat espezialitate baitaude, eta hainbat programa eta proiektutarako ordu-kredituak ugariak baitira, Batxilergoko hautazko irakasgaiak bezala.

Behin-behineko irakasleek betetako plazen kopurua, plaza eta ikastetxe motaren arabera. 2012-13 ikaturtea

	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Guztira	(%)
LZtik kanpoko plazak (plantila osagarria)	855	110	965	% 20
Ikastetxeak moldatu beharreko plazak	549	1.922	2.471	% 50
Behin-behineko irakasleek betetako bestelako plazak	647	794	1.474	% 30
Guztira	2.051	2.826	4.910	% 100

Ondorioz, bi multzo horiek –plantila osagarria eta ikastetxeak moldatu beharreko plazak– kentzen badira, behin-behineko irakasleek betetzeko, gehienez, 1.474 plaza geratuko lirateke, plaza guztien % 30.

- c) Administrazioko beste lanpostuetarako zerbitzu eginkizunak (Irale, Berritzeguneak...), zenbatu gabeak. Taulan hirugarren multzoan sartuta daude (“Behin-behineko irakasleek betetako bestelako plazak”).

Bitarteko irakasleek betetzen dituzten plaza horiez gain, behin-behinekotasunaren auzia ere kontuan hartu behar da: behin-behineko karrerako funtzionarioek betetzen dituzten plazak, hau da, karrerako funtzionario izendatuak, baina oraindik lehen behin-betirako plaza lortu ez dutenak, edo behin-betirako plaza izan zuten arren orain lekuz aldarazita daudenak edo plaza kenduta dutenak. Kontseiluak ezin izan du kuantifikatu plantilen egonkortasun faltari eragiten dion irakasle-talde hori.

Beste alde batetik, urtero lanari uzten dioten irakasleen kopuruaren –gehienak, erretiroak– eta zerbitzura itzultzen direnen kopuruaren arteko diferentzia *Lan-eskaintza Publikoen bidez (LEP)* ehuneko jakin batean bakarrik hornitu daiteke. Ehuneko hori “berriztapen-tasa” deitzen da, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak finkatzen du.


Euskadin irakasleentzako oposizioetarako azken deialdia 2012an izan zen, eta berriztapen tasa % 30ekoa izan zen, 2013an % 10era jaitsi delarik.

3.4.4. Irakasleen adin-piramidea

Hezkuntza-sare publikoko 23.310 irakasleak bost urteko tarteetan banatzen baditugu, maiztasunik handieneko tartea 51-55 urte artekoa da (6.081), eta gero 46-50 eta 56-60 urteko tarteak.

Irakasleen plantilaren % 67 45 urtetik gorakoa da, eta erdia baino gehiago erretiroa hartzeko moduan egongo da 15 urte pasa baino lehen. Hezkuntza-etapen arabera banaketa 3.4 eranskinean eta ondorengo grafikoan azaltzen da.


Hezkuntza-sare publikoko irakasleen adin-piramidea bost urteko tarteetan. 2013. urtea.



3.4.5. Irakasleen bajak


Hezkuntza-sare publikoko irakasleen artean, gaixotasunagatiko baja kopuruak gehieneko balioa 2011n izan zuen eta 2012an nabarmen jaitsi dela ikus daiteke. "Bestelakoak" multzoan laguntza zerbitzuak eta irakaskuntza bereziak sartzen dira.

Gaixotasunagatiko baja kopurua hezkuntza-sare publikoko irakasleen artean. 2008-2012 bilakaera



Gaixotasun edo istripuengatiko ordezkapenei dagokienez, jaitsiera 2009tik aurrera gertatu da, ordezkapenak onesteko irizpide mugatzaileagoak erabili baitira. Jaitsiera mantendu egin da, 2012tik aurrera baja kopurua murriztu baita.

Gaixotasun edo istripuengatiko ordezkapen kopurua hezkuntza-sare publikoko irakasleen artean. 2008-2013 bilakaera



3.5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Nazioarteko krisialdi ekonomikoa 2008an hasi zen, baina eraginik handienak Euskadin hurrengo urtetik aurrera nabaritu ziren: ekonomian, ekoiztutako aberastasunaren murrizketa, eta gizartean, langabeziaren igoera. Horren ondorioz, zerbitzu publikoei eusten dien zerga-bilketa hein handian murriztu zen.

Hezkuntzaren finantzaketak, hain zuzen ere, eta bereziki Saitetik datorrena, beheranzko joera izan du 2009. urteaz geroztik. Hezkuntzako inbertsio edo gastuaren murrizketa handiagoa izan da autonomia erkidegoko aurrekontu orokorrarena baino, eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan duen ehunekoa puntu bat jaitsi da 2011tik 2012ra.

Beste alde batetik, Eustaten informazio estatistikotik ondorioztatu daiteke aipatutako murrizketa ia osoa ikastetxe publikoetan gertatu dela, itunpeko ikastetxeen finantzaketaren oinarria, hezkuntza-etapa bakoitzeko moduluak, egonkor mantendu baita. Ikastetxe publikoetan eta pribatuetan unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetan egindako gastua erreferentziazat hartzen badugu, 2012an % 59,6 ikastetxe publikoei dagokie, eta gainerako % 40,4, ikastetxe pribatuei.

2009-2012 aldian ikastetxe publikoetako gastua % 12,4 jaitsi da, baina ikastetxe pribatuetan hamarren bat baino ez da jaitsi. Ikastetxe publikoen finantzaketaren murrizketa langile-gastuetan eta hornikuntza eta eraikuntzarako inbertsioetan islatu da.

Nolanahi ere, Euskadin hezkuntzako gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurrien 14/2012 Errege Dekretuaren kontrako errekustoa jarri da, eta horren ondorioz, ikasle/gela gehieneko ratioak, irakasleen irakastordu kopurua eta irakasleak ordezkatzeko irizpideak orain arte bezala mantendu ahal izan dira.

Europako beste zenbait herrialdetan egiten den inbertsioarekin konparatzen badugu, Euskadiko gastu absolutua ikasleko, batez bestekoan baino handiagoa izan da, baina gehien erabiltzen den adierazleari dagokionez —hezkuntzako gastu publikoan GPBaren ehuneko zenbat inbertitzen den—, Euskadi (% 4,2) azken postuetan dago 2012an (Europako batez bestekoa, % 5,6), Eustaten Hezkuntzaren Kontuan azaltzen den bezala.

Horren ondorioz, Kontseiluak irizten du finantzaketa ezinbesteko baldintza dela hezkuntza-sistemak ikasleen ebaluazioetako emaitzetan, eta beste zenbait adierazletan, egoki aurreratu dezan. Bigarren baldintza eraginkortasunaren hobekuntza da, eta horretarako proposamen batzuk egin dira txosten honen bigarren atalean.

(P9) Euskadiko Eskola Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari hezkuntzako inbertsioa hobetzeko ahaleginak egin beharraz ohartarazi nahi dio.

Kontseiluak inbertsioen arloa azpimarratu nahi du, murrizketarik handiena arlo horretan izan baita, eta ikastetxe publikoetako instalazioetan dauden premiarik larrienek ikerketa bat egitea eskatzen du, premia horiei erantzun bat eman dakien.

Ildo beretik, Eustatek ikastetxe pribatuei buruz emandako datuek, oro har, inbertsioen birjarpena finantzatzeko zailtasuna islatzen dute, eta, beraz, Sailari eskatzen dio itunpeko ikastetxeen egoera azter dezan.

Era berean, hezkuntza-sistemaren euskalduntze programak, urtez urte, oso betearazpen maila apala duela adierazi nahi du. Bigarren atalean aipatzen zen bezala, ikasleen euskara maila hobetzea sistemaren lehentasunezko helburua denez, Kontseiluak Sailari eskatzen dio eskolaren ingurunean euskalduntzea eta euskararen erabileraren normalkuntza sustatzen duten programetako inbertsioa (Nolega, Ulibarri...) handi dezala.

(P10) Lehen helburu horrekin lotuta, eta gure hezkuntza-sistemaren ekitatea mantentzeari eta garatzeari begira, Kontseiluak berriro eskatu nahi dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gizarte edo eskola-bazterketaren arriskuan dauden ikasleei eta maila sozio-ekonomiko apaleko ikastetxeei, publiko zein pribatuei, behar besteko baliabideak eman diezazkien, horien bidez jatorrizko gabeziak konpentsatu ahal izateko eta curriculumean ikasle guztientzat finkatutako konpetentzien garapen maila lortu ahal izateko.

Eraginkortasunari dagokionez, Kontseiluak, hezkuntza-sistemaren aldatzeko bide bezala, oso garrantzitsutzat jotzen ditu ikastetxeek ikasleen ebaluazio diagnostikoaren eraginez gauzatzen dituzten hobekuntza-prozesuak, eta arreta handiz jarraitzen du ikastetxeen balio erantsiaren inguruko ikerlana, bai bikaintasun handiko ikastetxeen kasuan, bai eta espero daitekeen mailara heltzen ez diren ikastetxeen kasuan ere.

(P11) Oro har, Kontseiluak Sailari eskatzen dio ebaluazio diagnostikoaren ondorioz analisia eta kontu-hartzea jasotzen duten ikastetxeei behar bezalako antolamendu-bitartekoak eta baliabide egokiak esleitu diezazkien, ikasleen

ebaluzioko emaitzen adierazleak benetan hobetzeko, eta ikastetxeetako jardunbide egokiak guztien artean aprobetxatu ahal izateko.

- (P12) *Kontseiluak berriro eskatzen die Sailari eta informazio estatistikoaren ardura duten erakunde ofizialei hezkuntzaren alderdi ekonomikoei buruzko informazioa prestatu eta eman dezaten, txosten honetan antzeman diren hutsuneak bete ahal izateko, hala nola, itunpeko ikastetxeetako plantilak, Sailaren aurrekontuaren banaketa hezkuntza-sareetan, eta gastuaren adierazle eguneratuak, autonomia erkidegoekin eta nazioarte mailan konparazioak egiteko aukera edukitzeko.*
- (P13) *Horrekin batera, ikastetxe publikoetako plantilen behin-behinekotasunaren adierazleak kontuan izanik, etorkizun hurbilean ordezkatu beharko diren irakasleen kopuru gero eta handiagoa eta irakasleen profil berriak kontuan izanik, Kontseiluak Sailari eskatzen dio ikerlan bat egin dezan behin-behinekotasunaren zergatiak eta hezkuntza-sistemara irakasle berriak sartu beharra aztertzeke, eta horrez gain, egonkortasuna areagotzeari eta irakaslegoa berriztatzea planifikatzeari begira proposamenak eta konponbideak aztertzeke.*
- (P14) *Adierazle ekonomikoez gain, esparru zabalago batean, Kontseiluak interesgarri irizten du Eusko Legebiltzarrak 2012ko ekainaren 14an hartutako akordioa, "euskal hezkuntza-sistemaren analisi objektiboa eta gardena egiteko balio duen adierazle multzo bat" finkatzeko helburua zuena. Kontseiluak, txostenetan gauzatzen dituen lanen ildotik, aipatutako akordioa burutzearen aldekoa dela adierazi nahi du.*

Bilbon, 2014ko abenduan

1. GEHIGARRIA:

“HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA 2020” EUOPAR ESTRATEGIAREN ADIERAZLEAK

Europar Batasuneko Ministro-kontseiluak, 2009ko maiatzaren 12ko bilkuran, *Hezkuntza eta prestakuntzaren eremuan lankidetzaren europarrerako marko estrategikoa* («ET 2020») onetsi zuen. Markoak lau helburu estrategiko eta zenbait adierazle eta erreferentzia-puntu finkatzen ditu, markoaren garapena 2020an bete arte kontrolatzeko. Helburu estrategiko berriak honako hauek dira:

1. Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna sustatzea.
2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea
3. Zuzentasuna, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea
4. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan sormena eta berriztapena areagotzea, baita enpresa-izpiritua ere.

Lau helburuei loturik, zortzi adierazle finkatu dira. Horietako bi, 2. helburuari dagokionak, bost azpi-adierazletan banatu dira. Euskadiren kasuan, ezin izan da informaziorik lortu bildutako hamaika adierazleetako hiruri buruz. Adierazle bakoitzak 2020an lortu beharreko helburua finkatzen du, eta Europa, Espainia eta Euskadiko datu eguneratuak, azkenak 2013koak, ematen ditu.

Ikuspegi orokor batean, Euskadin hiru egoera ezberdin daude hiru adierazle multzorekiko:

- Finkatutako helburua aurretiaz lortu da Haur Hezkuntzako (4 urte) matrikulatzen, eskola-uzte goiztiarraren tasan eta hirugarren hezkuntzako graduatuen tasan (unibertsitatea eta Lanbide Heziketako Goi Maila).

- Finkatutako helburuaren inguruan dago, edo jadanik gainditurik du, eta Europako batez bestekotik gora, PISA ebaluazioko ikasleen emaitzetan (hasierako konpetentzia-maila), bereziki Zientzian, eta etengabeko ikaskuntzan.

- Helburua oraindik urrun dago, edo informazio egiaztatua falta da, atzerriko hizkuntzetan (bi adierazle), atzerriko ikasketetan eta lan-munduratzean. Atzerriko ikasketei dagokienez, helburua lortzerainoko distantzia handia izan daiteke Europa osoaren kasuan. Lan-munduratzearen inguruko helburuari (5. adierazlea) dagokionez, txosten honetako 1.2.7 azpi-atalean datu partzialak jasotzen dira, eta helburua nahiko urrun dagoela esan daiteke.

“Hezkuntza eta Prestakuntza 2020” europar estrategiaren adierazleen eta erreferentzia-puntuaren zerrenda.

Helb.	Adier.	Adierazleak eta erreferentzia-puntuak	Helburua 2020	Egoera			
				urtea	Europa	Espainia	Euskadi
1	1	25-64 urte bitarteko helduen % 15ek gutxienez parte hartu beharko luke etengabeko ikaskuntzan ()	> %5	2012	% 9,0	% 10,7	% 13,7
1	2	Hirugarren Hezkuntzako graduatuen % 20k eta Lanbide Heziketako hasierako titulua duten 18-34 urte bitarteko gazteen % 6k gutxienez ikasketa edo prestakuntza-aldi bat atzerrian eman beharko luke ¹²	> %20	2010	% 3,6	% 3	¿ ?
2	3a	Irakurketako oinarritzko kompetentzietan errendimendu apala duten 15 urteko ikasleen ehunekoak % 15 baino txikiagoa izan beharko luke	< %15	2012	% 19,7	% 18,3	% 14,4
2	3b	Berdin Matematikan	< %15	2012	% 23,9	% 23,6	% 15,5
2	3c	Berdin Zientzian	< %15	2012	% 18,4	% 15,7	% 11,7
2	4 ^a	15 urteko gazteen % 50ek lehen atzerriko hizkuntza erabiltzaile autonomo bezala (B1 maila gutxienez) erabili ahal izatea	> %50	2011	% 42	% 27	¿ ?
2	4b	Bigarren Hezkuntzako lehen etapako ikasleen % 75 bigarren atzerriko hizkuntzan matrikulaturik egotea	> %75	2011	% 60,8	% 40,2	% 21,0
2	5	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako, Bigarren Hezkuntzaren osteko etapako eta Hirugarren Hezkuntzako titulua (HNSN 3-6) erreferentzia-urtea baino 1-3 urte lehenago eskuratu duten 20-34 urte bitarteko gazteen % 82k gutxienez lana izan beharko luke.	> %82	2012	% 75,7	% 62,4	¿ ?
3	6	Lau urteko adinaren eta Lehen Hezkuntza hasteko adinaren arteko haurren % 95ek gutxienez Haur Hezkuntza ikasi beharko luke.	> %95	2013	% 90,8	% 100	% 99
3	7	Hezkuntzari eta prestakuntzari goiz uzten dioten gazteen ehunekoak % 10 baino gutxiago izan beharko luke.	< %10	2013	% 12	23,5%	% 8
4	8	30-34 urte bitarteko biztanleen artean % 40k gutxienez Hirugarren Hezkuntzako ikasketak bukatuta izan beharko lituzke.	> %40	2013	% 36,8	% 40,7	% 44,2 ¹³

¹² Ez dago unibertsitateko graduatuei buruzko daturik, unibertsitateko ikasleen artean urte jakin batean atzerrian ikasi dutenen ehunekoa baizik. Adierazlea bildutako datuak baino lau aldiz handiagoa izango litzateke.

¹³Eustat-en datua. INE-k % 61,7raino igotzen du adierazle hau.

2. GEHIGARRIA:

2008-2010 ETA 2010-2012 TXOSTENETAKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Kontseiluak txostenari balio erantsia ematen dion elementu berri bat sartzea erabaki du, aurreko txostenetan egindako proposamenen jarraipena egitea, alegia. Lehen aldia denez, bilketa zabala egin nahi izan da, eta aurreko bi txostenak aztertu dira.

2012ko urtarrilean onetsitako 2008-2010 Txostenak lehenengoz zerrendatu zituen proposamenak. Proposamen kopuru handia izan zen, 35, baina 2013ko ekainean onetsitako 2010-2012 Txostenean kopurua 14ra jaitsi zen, 2012-2013 oraingo txostenaren antzera.

Proposamenak formulatu zirenetik igaro den denborak, eta atzera begiratzeko esperientzia honen izaera esperimentalak proposamenen gauzapearen ikuspegi zabal batekin idaztera eraman gaitu, xehetasun guztietan sartu gabe.

Beste alde batetik, proposamen horietan aipatzen diren zenbait gai oraingo txosten honetan jorratzen dira, eta, beraz, proposamen eguneratua aurkeztu da, eta ez du merezi berriro aipatzerik. Beste kasu batzuetan gaiak interesa bere garaian izan zuen eta ez zen gehiago garatu.

Formulatutako proposamenen izaera dela eta, badago kontuan hartu beharreko beste faktore bat. Hasierako txostenetan proposamenak zenbait kasutan oso orokorrak ziren, eta ondorengo txostenetan, analisi zehatzagoak egiteko gaitasuna handitu ahala, atal bakoitzaren bukaeran jasotzen diren proposamenak gero eta zehatzagoak izan dira.

Nolanahi ere, zuzentasunaren izenean, gehigarri labur honen bukaeran aipatutako bi txostenetako 49 proposamenak aurkezten dira, lehenengo eta behin, txostenen gaien arabera sailkaturik —plangintza, ikastetxeetako prozesuak eta baliabideak—. Gero, kapitulu horien barruan, kontzeptu orientagarrien sail batek, letra lodiz idatzirik, erraztu egiten du bukaerako zerrendan jatorrizko testuen jarraipena egitea.

1. Plangintza

Haur Hezkuntzako Hasierako Zikloko plazen nahikotasuna dela eta, 2008-2010 Txostenean beharren analisi bat egin zen. Orain 2014an jaiotza-kopuruaren bilakaeraren ondorioz eta krisialdi ekonomikoa luzatu izanaren ondorioz, hasierako irakasmiletako eskola-plazen eskaria murriztu egin da.

0-2 tartean, Getxoko udalerriko hiru herrietarik bitan ez dago oraindik eskaintza publikoa, udalerrian haurreskola bakar bat baitago. Plazen eskasiarik handiena Bilboko barruti batzuetan (Abando, Basurtu eta Deustu) nabaritzen da

—hirian eskaintza publikoa txikiagoa da—, eta baita inguruko eskola-gune batzuetan ere (Portugalete, Erandio eta Urduliz). Plazen eskasia Donostiaren erdialdean ere nabaritu da.

2 urtekoen irakasmailako eskaintza txosten honetan 1. ataleko eskolatze-tasaren eta ikasgelen okupazio-tasaren adierazleen bidez aztertu da (1. eta 2. mapak).

Eskola-matrikulari lotutako beste bi gai ere aztertu dira:

- Ikastetxe publikoetarako eta itunpekoetarako matrikula-gune berdinak finkatzea dela eta, Vitoria-Gasteizeko barrutian egiten hasi da 2013-14 ikasturtetik aurrera.
- Ikastetxeetako zuzendariei Onarpenak Bermatzeko Batzordean eta Eskola-maparen Jarraipen Batzordean dagozkien ordezkariak zozketaz hautatuak izaten dira oraindik ere, eta ez, eskatu zen bezala, ikastetxeak eta zuzendariak ordezkatzan dituzten erakundeek hautatuak.

Atal honetako hirugarren gaia *ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak* dira, eta haien bilakaeraren analisiaren ondorioz txosteneko lehen proposamena sortu da.

Hain zuzen ere, atzerriko ikasleen banaketa orekatuagoa lortzeko adierazle batzuk finkatzea eskatu zen, baina ratioak aurreko ikasturteetako balioetan mantendu dira.

Dokumentazioari dagokionez, ikasleen emaitzak eskola-guneen arabera aztertzeko aukera ematen duen informazio berria eskuratu du Kontseiluak. Finantzaketaren arloan, berriz, Sailaren aurrekontuaren datuak ez ditu eskuratu hezkuntza-sareen arabera banaturik; ikastetxe pribatuetako, eta horien barruan itunpeko ikastetxeetako, plantilei buruzko informazioa ezin izan da eskaini.

Plangintzaren inguruko gaiekin bukatzeko, helduen hezkuntzako plazen eskaintza handitzea eskatzen zen, eta txostenean adierazi da hizkuntzen irakaskuntzetan plazen eskaintza handitu dela.

Ikastetxeei erlijioa ikasleen eskola-ordutegitik kanpo programatzeko baimena emateko eskaria ez da onartu.

Azkenik, Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programen (HLKP) inguruan egindako proposamenak ez dira bidezkoak, LOMCE legearen aldaketen ondorioz, programa horiek Lanbide Heziketako lehen ziklo bihurtu baitira. Nolanahi ere, zenbait adierazleren bidez antzeman da Euskadiko HLKP programetan eskola-graduatu titulua lortzen duten ikasleen ehunekoa Estatuko beste autonomia erkidego batzuetako HLKP programetan baino handiagoa dela.

2. Ikastetxeetako prozesuak: ebaluazioa, berriztatzea, antolamendua

Aurreko bi txostenetan, Kontseiluak arreta berezia jarri du *ikasleen ebaluazioan* eta ikastetxeek gauzatzen dituzten *hobekuntza-prozesuetan*, eta, baita ere, ekartzen duten balio erantsian, Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen parte-hartze koordinatuan, eta ebaluazioko emaitzetan oinarritutako adierazle-sistema bat sortzean.

Oraingo txosten honetan gaia berriro aztertu da, eta hala geratu da jasota bigarren ataleko proposamenetan. Hobekuntzei dagokionez, 2014-15 ikasturtean hasi den eta ikastetxe publikoak bakarrik hartzen dituen Hamaika Esku programa aipatu behar da.

Irakaslanaren ebaluazioari dagokionez, ikastetxe batzuk gauzatzen ari diren ekimenez gain, oraindik ez dago plangintza instituzionalik abian, lehenengo pausuak emateko Ikuskaritzaren batzorde bat eratu den arren.

Berriztatzearen arloan, hirueletasuna ehundik gora ikastetxetara hedatzeko eta emaitzak ebaluatzeko esperientziaren ondorioz, Kontseiluak proposamen batzuk egin zituen hezkuntza-sistema osorako plangintza zabalago bat egiteko. Hartara, hezkuntza hirueleduna planifikatu ahal izateko ikastetxe bakoitzeko abiatze-maila ezagutzea derrigorrezkoa zela esaten zen, eta horretarako ikastetxe guztietarako erreferentzia-maila komunak hizkuntza bakoitzerako finkatzea eskatzen zen. Gaiari oraindik ez zaio heldu, baina DBHko eta Batxilergoko tituluak, behin eskuratu ondoren, a posteriori, hizkuntzen europar marko bateratuko euskarazko eta ingelesezko maila jakin batzuen baliokidetzat aitortzen dira.

Beste alde batetik, hizkuntzek ikaskuntzaren euskarri bezala duten zeregina eta hizkuntza batetik besterako ikaskuntza-transferentzia aztertzeke ikerlan bat egitea eskatu zen, gure hezkuntza-sistemara aplikatua, baina, dirudienez, aspaldi honetan ez da horrelako ikerlanik egin.

Kontseiluak txosten honetako 2. atalean azaltzen du, euskararen eta ingelesaren kasuan, bere ustez behar estrategikoak zeintzuk diren.

Teknologia berrien (IKT) arloan, ikastetxe publikoetan konexioen kalitate apalak oraindik ere arazoak sortzen ditu, arloko koordinatzailearen irakastordu kopurua izaera esperimantalagatik teknologia-heldutasuneko ikastetxetzat hartzen direnetan bakarrik finkatu da.

Unibertsitateko hezkuntzako curriculum berriak abian jarri zirenean, Kontseiluak 2008-2010 Txostenean arreta berezia jarri zuen *irakasleen hasierako prestakuntzan eta hasierako lan-praktiketan*, eta hezkuntzako gradu eta masterretako ikasleen praktikak eta hasierako lan-praktikak koordinatzeko egitura bat eratu beharra azpimarratu zuen. Beste proposamen bat egin zuen ikastetxeak jardunbide egokikotzat aitortzeko, bi adierazle kontuan harturik: ebaluazio diagnostikoko emaitzak eta berriztatzearen arloko ibilbidea. Ikastetxe horiek, esperimentu moduan, lagundu egingo lukete irakasleen hasierako prestakuntzan.

Sailak 2014-15 ikasturterako finkatutako ekimenen artean, “Partekatuz ikasi” esperientzia aipatu behar da, ikastetxe guztientzako tutoretzapeko elkartruke-proiektua. Sailak aitortutako ikastetxe-elkarteetako (Amara Berri, Ikas Komunitateak, Kalitatea Hezkuntzan, Elkarlaneko Ikaskuntza eta Antzuola ereduak) zenbait ikastetxe publiko jardunbide egokien eredutzat hautatu ondoren, pedagogia edo antolamenduaren arloko aholkularitza gauzatzen da, eta ikastetxeek 30 ikastetxeko eta 11 gaiko katalogo batetik aukeratu dezakete.

3. Hezkuntzaren finantzaketa

Euskadiko Eskola Kontseiluak behin eta berriro azpimarratu ditu *finantzaketaren hiru alderdi orokor*. Lehen 2010etik aurrera izan den beheranzko joera aldatzea da. Helburu hori ez da lortu, txosten honetako finantzaketaren atalean azaltzen den bezala.

Bigarren auzia premiarik handiena duten ikastetxeei lehentasunezko tratua ematea da. Hezkuntza-sare publikoan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako plantilen arteko aldeak eskola-mapako guneen arabera kuantifikatu ahal izan dira, eta hein handi batean bat datoz ikasleen adierazle sozio-ekonomikoekin eta hizkuntzakoekin. Ezin da egiaztatu horrelako loturarik itunpeko ikastetxeetan, plantilei buruzko behar besteko informaziorik ez baitago.

Azkenik, hezkuntzaren benetako doakotasunaren auzia Kontseiluaren kezkabidea da, eta kezkabide horrek ikasleei kuotak kobratzearen ikuskaritzari buruzko agindu bat argitaratzea eskatzera bultzatu zuen. Era berean, 2008-2010 Txostenean duela gutxi heldutako eta baliabide apaletako ikasle etorkinei inongo zerbitzurik ez kobratzea eskatu zuen. Ez da ezagutzen eskari horiei emandako erantzunik.

Aipatutako *lehentasun batzuei dagokienez*, plantilak mantentzeko eskaria funtsean betetzen ari da, ikastetxe publikoetako irakasle/gela ratioen bilakaera kontuan izanik, eta itunpeko ikastetxeen kasuan, itunen baldintza egonkorrak kontuan izanik. Ikastetxe publikoetako irakasleen egonkortasuna ere hobetu dela esan daiteke.

Horrez gain, beste hiru lehentasun aipatzen ziren: inbertsioa hasierako etapetara –Haur eta Lehen Hezkuntza– bideratzea; azpiegituren plan bat; irakaslanean jardunbide egokiak aitorturik dituzten ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea. Eskari horiei ez zaie erantzunik eman.

1. PLANGINTZA

<i>Haur Hezkuntzako Hasierako Zikloko plazen nahikotasuna</i>		
2010-2012	(p1)	Kontseiluak, Haur Hezkuntzako hasierako zikloan eskolatze-tasa altuak erdietsi direla aitortzeaz batera, Sailari eskatzen dio antzemandako eskaintza-urritasunaren arazoari irtenbidea eman diezaion.
2008-2010	(p1)	Euskadiko Eskola Kontseiluak Haurreskola partzuergoak Haur Hezkuntzako hasierako irakasmaitetan egindako ahalegina aitortu nahi du, bai hezkuntza administrazioaren partetik baita Euskadiko udalen partetik, eta ahalegin hori indartu dadin eskatzen du arreta tasa apala duten eskola-zonaldeetan tasa handitu ahal izateko. Kontseiluak 0-2 urte tarteko eskaintza publikoaren planifikazioa lurraldeen arteko egokitze-irizpideekin gauzatzea eskatzen dio hezkuntza administrazioari, eskola-zonalde guztietan bi urtetik beherako biztanleriaren arteko arreta tasa sare publikoan % 20ra, eta oro har, ikastetxe guztiak kontuan izanik, % 40ra heldu ahal izateko.
2008-2010	(p2)	Kontseiluaren iritziz familiek etxetik hurbil dagoen ikastetxe batean –eta hala nahi badute, ikastetxe publiko batean– eskola-plaza bat izateko eskubidea errespetatu egin behar da. Kontseiluak egiaztatu du 12 udalerrietan eskaintza urria edo ez-nahikoa dela, eta Hezkuntza Sailari familien eskaeretan oinarriturik beharren azterketa bat egiteko eskatzen dio eta, horrez gain, oraingo eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko behar diren antolamendu-baliabideak eta baliabide materialak abian jartzeko.

<i>Eskola-matrikulari lotutako beste bi gai</i>		
2008-2010	(p3)	Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio 21/2009 Dekretuaren 3.4. artikulua xedatzen duena nola gauzatu azter dezan eta azkenean abian jar dezan eskatzen dio, familiek haurrak hezkuntza-sare ezberdinetako ikastetxeetan matrikulatzeko baldintzak berdintzeko.
2008-2010	(p4)	Badira zuzendarien eta ikastetxeen elkarte batzuk betebeharrak bikoitza dutenak, hots, alde batetik ikastetxeen arteko komunikazioa eta bestetik hezkuntza administrazioarekiko harremana, eta horregatik uste du Kontseiluak zozketaren mekanismoa ez dela egokia. Administrazioari parte hartze horren ordezkartasuna eta egokitasuna hobetzeko mekanismo bat azter dezan eskatzen dio. <i>(Ikastetxeek onartze-prozesuaren Berme Batzordeetan eta eskola-maparen Tokiko Jarraipen Batzordeetan duten ordezkartasunari dagokio).</i>

<i>Ikasleen adierazle sozio-ekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak</i>		
2010-2012	(p3)	Kontseiluak Sailari ikastetxe horietako ikasleen artean dauden gizarte-jatorriaren aldetiko ezberdintasunak orekatzeko behar diren baliabideak sor ditzan eskatzen dio, ikasle horiek guztiek emaitza hobeak lortu ahal izateko. Bereziki, Kontseiluak eskatzen du ikasle atzerritarrek modu orekatuagoan banatzeko adierazle batzuk finka daitezten.

<i>Dokumentazioa, informazioa</i>		
2010-2012	(p14)	Euskadiko hezkuntzaren alderdi ekonomikoei buruzko datuak, adierazleak eta txostenak egiten, aztertzen eta hedatzen arduratzen diren Euskadiko erakunde ofizialei eskatzen die euren ekarpenak hezkuntza munduari eta Euskadiko gizarteari egin diezazkieten, guztiok errealitatea hobeto ezagutzeko eta gaur egun ezinbestekoak diren hitzarmenak lortzeko.
2008-2010	(p34)	Kontseiluak berriro eskatzen dio Hezkuntza Sailari hurrengo txostenari begira informazio osoagoa eta zehatzagoa.

<i>Plangintzako beste gaiak</i>		
2010-2012	(p2)	Kontseiluak irizten du Helduen Hezkuntza —hezkuntza-premiarik handiena duen biztanleriari bideratua—, arte eta hizkuntzen irakaskuntza, eta bizialdi osoko ikaskuntzarako Europako programen barruan sartzen diren gainerako irakaskuntzak indartu egin behar direla, hezkuntza sistemaren emaitzen hobekuntza iraunkorrerako oinarri gisa harturik, Euskadiko biztanleriaren kultura-gaitasuna hobetu dadin.
2010-2012	(p4)	Kontseiluak proposamen bat egin nahi dio Sailari ikastetxeetako eskola kontseiluei erlijio arloa edo irakasgaia ikasleen derrigorrezko eskola-ordutegitik kanpo —ordutegi aukera bat baino gehiagorekin, eguerdian edo arratsaldean— programatzeko baimena eman diezaien.
2008-2010	(p7)	Kontseiluak Hezkuntza Sailari graduatu titulua lortzeko prozesuan HLPP programetako ikasleen jarraipena egin dezan eskatzen dio, bai berariazko moduluaren bitartez, baita maila ertaineko Lanbide Heziketara zuzen sartzeko proben bitartez. Lege organikoak, LOEren aplikazioaren ondorioz, HLPP programak behin betirako egituratzen dituenean, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du gaur egun dauden askotariko ereduak bateratzeko arautze orokor bat abian jartzea. Hezkuntza administrazioak erakunde publikoen ikastetxeen ardura hartu beharko luke, alderdiek beren artean adosten duten heinean

2. IKASTETXEETAKO PROZESUAK: EBALUAZIOA, BERRIZTATZEA, ANTOLAMENDUA

<i>Ikasleen ebaluazioa eta hobekuntza-prozesuak</i>		
2010-2012	(p5)	Kontseiluak hezkuntza-sistema osorako hobekuntza-helburu kuantitatiboak finkatzearen komenigarritasuna planteatu nahi du, eta, baita ere, urte bakoitzean ebaluatzen diren konpetentzietako errendimendu-maila baxurako eta errendimendu-maila garaierako, ikastetxeetako hobekuntza iraunkorra eta jarraitua egiteko bide bezala.
2010-2012	(p6)	Kontseiluak Sailari eskatzen dio emaitzarik apalenak lortzen dituzten ikastetxeetarako eta balio erantsirik txikiena ekartzen duten ikastetxeetarako hobekuntza-plan bat abian jar dezan, sistemako antolamendu-baliabideak esleitzerakoan lehentasuna eman diezaien, eta ikastetxe horiek eta Administrazioa inplikatu ditzan hobekuntza-maila ebaluagarriak lortzeko.
1.19 eranskina.Eskola-materialerako (8. mapa) eta jantokirako (9. mapa) dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa eskola-guneen arabera. Hezkuntza-etapa (2-19) eta hezkuntza-sare guztiak. 2012-13 ikasturtea

		Dirulaguntzadun ikasleak		Ikasle guztiak	Dirulaguntzadunen %	
		Eskola-mat.	Jantokirako		Esk.-mat (8.m)	Jantok. (9.m)
111	Amurrio	920	525	2.337	39	22
112	Laudio	1.209	607	3.443	35	18
121	Vitoria-Mendebalde	4.093	1.742	10.815	38	16
122	Vitoria-Iparralde	3.473	1.585	8.944	39	18
123	Vitoria-Hegoekialdea	6.432	2.862	22.453	29	13
124	Arabako mendiak	146	94	257	57	37
125	Araba-Mendebalde	401	311	991	40	31
131	Arabako Errioxa	824	482	1.860	44	26
141	Ekialdeko lautada	550	230	1.175	47	20
211	Arrasate	1.291	444	7.290	18	6
212	Bergara	882	333	3.531	25	9
221	Eibar	1.523	643	4.491	34	14
222	Elgoibar	1.297	566	4.147	31	14
231	Oria Garaia	1.924	776	7.637	25	10
232	Urola Garaia	1.377	365	4.051	34	9
241	Urola Erdia	1.541	331	5.020	31	7
242	Kosta	2.319	771	7.733	30	10
251	Tolosa	2.626	1.039	8.334	32	12
261	Hernani	1.420	752	3.530	40	21
262	Lasartealde	1.040	290	3.071	34	9
263	Andoain	1.380	380	3.588	38	11
271	Donostia-Ezkerraldea	4.211	2.201	19.821	21	11
272	Donostia-Eskuinaldea	2.460	1.100	8.041	31	14
273	Donostia-Ekiald.	2.281	1.250	4.388	52	28
281	Errenteria	4.656	2.345	9.986	47	23
291	Bidasoa	4.815	2.425	12.041	40	20
311	Bermeo	1.098	792	2.672	41	30
312	Urdaibai	1.131	723	3.881	29	19
321	Lea-Artibai	1.296	675	3.994	32	17
331	Amorebieta	1.169	569	4.535	26	13
332	Durango	3.152	1.451	9.786	32	15
333	Ermua	952	364	1.881	51	19
341	Igorre	627	424	1.919	33	22
342	Galdakao	1.251	724	3.476	36	21
351	Arrigorriaga	927	514	2.624	35	20
352	Basauri	2.952	1.542	6.150	48	25
361	Enkarterri	2.111	1.095	4.834	44	23
371	Trapaga	1.378	690	2.667	52	26
372	Abanto	1.738	738	4.274	41	17
381	Txorierrri	1.676	893	11.623	14	8
382	Mungia	1.048	673	3.569	29	19
391-392	Leioa-Getxo	4.110	2.591	17.434	24	15
393	Uribe-Kosta	1.056	750	3.418	31	22
394	Erandio	1.400	798	3.423	41	23
411	Barakaldo	4.345	1.986	9.511	46	21
412	Cruces	1.997	1.115	4.605	43	24
421	Sestao	1.772	1.004	3.112	57	32
422	Portugalete	2.659	1.289	6.884	39	19
423	Santurtzi	2.678	1.190	6.200	43	19
B-1	Deustu	2.288	1.205	7.728	30	16
B-2	Uribarri	2.657	1.701	6.665	40	26
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	2.405	1.449	6.284	38	23
B-4	Begoña	2.069	1.173	3.902	53	30
B-5	Ibaiondo	3.617	2.267	8.274	44	27
B-6	Abando	2.977	1.364	12.154	24	11
B-7	Errekalde	2.030	1.151	2.848	71	40
B-8	Basurtu-Zorrotza	759	602	1.213	63	50
	Euskadi	116.416	57.952	340.515	% 34	% 17

1.20 eranskina (10. maparako).Eskola-materialerako eta jantokirako dirulaguntza hezkuntza-sare bakoitzean jaso duten ikasleen kopuruaren arteko aldea, eskola-guneen arabera. Hezkuntza-etapa guztiak (2-19). 2012-13 ikasturtea.

		Dirulaguntzadunak (esk. materiala) %			Dirulaguntzadunak (jantokia) %		
		Ik. pub. %	Ik. prib. %	Aldea	Ik. pub. %	Ik. prib. %	Aldea (10.m)
111	Amurrio	42	35	7	27	14	13
112	Laudio	35	35	0	19	15	4
121	Vitoria-Mendebaldea	38	38	0	22	5	17
122	Vitoria-Iparralde	39	39	0	24	5	19
123	Vitoria-Hegoekialdea	43	18	25	25	4	21
124	Arabako mendiak	57	--	--	37	--	--
125	Araba-Mendebaldea	40	55	-15	32	20	12
131	Arabako Errioxa	55	30	25	35	14	21
141	Ekialdeko lautada	48	42	6	21	12	9
211	Arrasate	22	15	7	10	4	6
212	Bergara	31	16	15	14	2	12
221	Eibar	35	31	4	18	6	12
222	Elgoibar	34	24	10	15	8	7
231	Oria Garaia	27	22	5	14	5	9
232	Urola Garaia	38	32	6	12	7	5
241	Urola Erdia	29	33	-4	7	6	1
242	Kosta	35	25	10	16	5	11
251	Tolosa	36	28	8	20	6	14
261	Hernani	39	46	-7	20	27	-7
262	Lasartealde	35	31	4	11	5	6
263	Andoain	50	37	13	29	8	21
271	Donostia-Ezkerraldea	29	16	13	19	6	13
272	Donostia-Eskuinaldea	35	27	8	20	10	10
273	Donostia-Ekiald.	57	47	10	37	20	17
281	Errenteria	51	43	8	30	17	13
291	Bidasoa	41	39	2	24	13	11
311	Bermeo	38	44	-6	25	34	-9
312	Urdaibai	30	28	2	18	20	-2
321	Lea-Artibai	33	32	1	16	18	-2
331	Amorebieta	36	20	16	22	8	14
332	Durango	39	24	15	19	9	10
333	Ermua	53	45	8	23	11	12
341	Igorre	33	33	0	24	0	24
342	Galdakao	40	18	22	23	10	13
351	Arrigorriaga	35	38	-3	20	19	1
352	Basauri	49	44	5	27	16	11
361	Enkarterri	45	42	3	31	12	19
371	Trapaga	64	43	21	40	16	24
372	Abanto	46	36	10	28	7	21
381	Txorierrri	36	10	26	22	5	17
382	Mungia	35	23	12	24	13	11
391-392	Leioa-Getxo	36	15	21	25	8	17
393	Uribe-Kosta	34	20	14	25	13	12
394	Erandio	39	49	-10	26	13	13
411	Barakaldo	46	45	1	27	12	15
412	Cruces	60	36	24	39	18	21
421	Sestao	60	51	9	38	22	16
422	Portugalete	50	27	23	29	8	21
423	Santurtzi	49	38	11	28	12	16
B-1	Deustu	32	27	5	19	12	7
B-2	Uribarri	54	35	19	42	20	22
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	59	26	33	43	11	32
B-4	Begoña	58	49	9	42	21	21
B-5	Ibaiondo	50	38	12	38	18	20
B-6	Abando	37	21	16	25	7	18
B-7	Errekalde	58	98	-40	46	29	17
B-8	Basurtu-Zorrotza	63	--	--	50	--	--
	Euskadi	% 40	% 28	12	% 24	% 10	14

1.21 eranskina. Atzerritar ikasleen kopurua Oinarritzko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntza + DBH) eskola-guneen eta hezkuntza-sareen arabera. 2012-13 ikasturtea.

		<i>Atzerritar ikasl. guztira</i>	<i>Ik. pub</i>	<i>Kristau Eskola</i>	<i>Partaide</i>	<i>Gainerako pribatuak</i>
111	Amurrio	112	67	28	17	0
112	Laudio	147	91	51	5	0
121	Vitoria-Mendebaldea	514	441	64	0	9
122	Vitoria-Iparaldea	630	450	180	0	0
123	Vitoria-Hegoekialdea	1.421	1.050	368	3	0
124	Arabako mendiak	36	36	0	0	0
125	Araba-Mendebaldea	75	69	6	0	0
131	Arabako Errioxa	158	157	0	1	0
141	Ekialdeko lautada	107	85	0	22	0
211	Arrasate	225	136	15	74	0
212	Bergara	186	144	20	22	0
221	Eibar	196	165	31	0	0
222	Elgoibar	153	128	11	14	0
231	Oria Garaia	352	230	24	98	0
232	Urola Garaia	157	70	21	66	0
241	Urola Erdia	264	146	106	12	0
242	Kosta	201	124	51	26	0
251	Tolosa	201	82	64	55	0
261	Hernani	127	56	71	0	0
262	Lasartealdea	114	96	0	18	0
263	Andoain	94	52	27	15	0
271	Donostia-Ezkerralde..	510	250	196	0	64
272	Donostia-Eskuinalde..	273	93	177	3	0
273	Donostia-Ekialde.	278	163	82	0	33
281	Errenteria	293	216	49	27	1
291	Bidasoa	539	426	103	0	10
311	Bermeo	163	72	54	37	0
312	Urdaibai	220	90	87	12	31
321	Lea-Artibai	156	97	0	15	44
331	Amorebieta	148	102	28	16	2
332	Durango	369	254	79	36	0
333	Ermua	93	72	0	0	21
341	Igorre	130	130	0	0	0
342	Galdakao	57	49	0	8	0
351	Arrigorriaga	62	48	14	0	0
352	Basauri	193	171	14	0	8
361	Enkarterri	206	168	9	16	13
371	Trapaga	38	19	16	1	2
372	Abanto	65	43	0	0	22
381	Txorierrri	157	70	29	0	58
382	Mungia	188	145	0	16	27
391-2	Leioa-Getxo	640	501	101	2	36
393	Uribe-Kosta	84	75	0	9	0
394	Erandio	143	105	38	0	0
411	Barakaldo	498	348	150	0	0
412	Cruces	201	74	51	0	76
421	Sestao	192	161	31	0	0
422	Portugalete	158	142	16	0	0
423	Santurtzi	164	85	71	7	1
B-1	Deustu	226	99	127	0	0
B-2	Uribarri	368	195	161	0	12
B-3	Txurdinaga-Otxark.	227	131	0	2	94
B-4	Begoña	146	78	68	0	0
B-5	Ibaiondo	542	232	299	11	0
B-6	Abando	566	391	175	0	0
B-7	Errekalde	425	216	193	0	16
B-8	Basurtu-Zorrotza	104	104	0	0	0
	Euskadi	14.292	9.490	3.556	666	580

1.22 eranskina (11. eta 12. mapetarako). Atzerriar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan eta hezkuntza-sareetako banaketaren desoreka-indizea, eskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea

Eskola-gunea		Ikasleak guztira	Atzerriar ikasleak %			Desoreka- indizea
			Ik. pub. (%)	Ik. prib. (%)	Guztira (%)	
111	Amurrio	1.370	8,4	7,9	8,2	1,1
112	Laudio	1.908	8,9	6,4	7,7	1,4
121	Vitoria-Mendebaldea	6.369	10,9	3,1	8,1	3,5
122	Vitoria-Iparraldea	4.759	14,3	11,2	13,2	1,3
123	Vitoria-Hegoekialdea	12.094	22,3	5,0	11,7	4,4
124	Arabako mendiak	170	21,2	--	21,2	--
125	Araba-Mendebaldea	638	11,9	10,7	11,8	1,1
131	Arabako Errioxa	1.154	24,3	0,2	13,7	--
141	Ekialdeko lautada	765	14,1	13,5	14,0	1,0
211	Arrasate	4.147	8,1	3,6	5,4	2,3
212	Bergara	1.994	12,3	5,1	9,3	2,4
221	Eibar	2.367	11,0	3,6	8,3	3,1
222	Elgoibar	2.168	8,3	4,0	7,1	2,0
231	Oria Garaia	4.320	8,7	7,3	8,1	1,2
232	Urola Garaia	2.490	8,3	5,3	6,3	1,6
241	Urola Erdia	3.057	8,4	8,9	8,6	0,9
242	Kosta	4.642	6,0	3,0	4,3	2,0
251	Tolosa	4.888	3,7	4,4	4,1	0,8
261	Hernani	2.123	2,9	38,6	6,0	0,1
262	Lasartealde	1.721	8,0	3,4	6,6	2,3
263	Andoain	1.723	20,6	2,9	5,5	7,2
271	Donostia – Ezkerraldea	11.025	6,4	3,7	4,6	1,7
272	Donostia – Eskuinaldea	4.611	5,5	6,1	5,9	0,9
273	Donostia – Ekiald.	2.824	12,9	7,4	9,8	1,7
281	Errenteria	6.178	7,5	2,3	4,7	3,2
291	Bidasoa	7.061	9,7	4,2	7,6	2,3
311	Bermeo	1.706	9,5	9,6	9,6	1,0
312	Urdaibai	2.318	7,4	11,9	9,5	0,6
321	Lea-Artibai	2.303	6,4	7,4	6,8	0,9
331	Amorebieta	2.669	13,0	2,4	5,5	5,3
332	Durango	5.701	7,8	4,7	6,5	1,7
333	Ermua	1.326	7,8	5,3	7,0	1,5
341	Igorre	1.111	11,7	--	11,7	--
342	Galdakao	2.060	3,1	1,7	2,8	1,8
351	Arrigorriaga	1.584	3,6	5,4	3,9	0,7
352	Basauri	3.757	5,9	2,5	5,1	2,4
361	Enkarterri	2.838	9,8	3,4	7,3	2,9
371	Trapaga	1.758	2,6	1,8	2,2	1,5
372	Abanto	1.914	3,4	3,4	3,4	1,0
381	Txorierrri	7.573	5,4	1,4	2,1	3,9
382	Mungia	2.169	13,8	3,8	8,7	3,6
391-392	Leioa-Getxo	10.443	12,9	2,1	6,1	6,1
393	Uribe-Kosta	2.154	4,6	1,8	3,9	2,6
394	Erandio	1.486	10,0	8,8	9,6	1,1
411	Barakaldo	5.269	12,2	6,2	9,5	2,0
412	Cruces	2.992	8,8	5,9	6,7	1,5
421	Sestao	2.018	12,7	4,1	9,5	3,1
422	Portugalete	4.045	7,3	0,8	3,9	9,6
423	Santurtzi	3.363	6,0	4,1	4,9	1,5
B-1	Deustu	3.719	6,1	6,1	6,1	1,0
B-2	Uribarri	4.136	17,4	5,7	8,9	3,0
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	3.670	10,1	4,0	6,2	2,5
B-4	Begoña	2.689	6,2	4,7	5,4	1,3
B-5	Ibaiondo	4.156	12,2	13,8	13,0	0,9
B-6	Abando	6.139	24,6	3,8	9,2	6,4
B-7	Errekalde	1.671	21,2	32,1	25,4	0,7
B-8	Basurtu-Zorrotza	776	13,4	--	13,4	--
	Euskadi	196.079	% 9,9	% 4,8	% 7,3	2,1

(*)Eskola-gune batean ikastetxe publikoek eta pribatuak eskolatan dituzten ikasleen kopuruen arteko zatidura

1.23 eranskina. Atzerritar ikasleen kopurua eta ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan hezkuntza-sareen eta irakasmaien arabera. 2012-13 ikasturtea

	<i>Ikastetxe publikoak</i>			<i>Ikastetxe pribatuak</i>			<i>publikoa/pribatua ratioa</i>
	<i>Atzerritar ikasleak</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Atzerritar ikasleak %</i>	<i>Atzerritar ikasleak</i>	<i>Ikasleak guztira</i>	<i>Atzerritar ikasleak %</i>	
LH 1	955	10.485	9,1	266	10.197	2,6	3,5
LH 2	1.042	10.943	9,5	357	10.515	3,4	2,8
LH 3	968	10.310	9,4	339	10.251	3,3	2,8
LH 4	1.005	10.497	9,6	371	10.338	3,6	2,7
LH 5	935	9.551	9,8	379	9.638	3,9	2,5
LH 6	1.024	9.707	10,6	482	9.707	5,0	2,1
DBH 1	1.029	9.630	10,7	707	10.776	6,6	1,6
DBH 2	1.056	9.118	11,6	710	10.249	6,9	1,7
DBH 3	753	7.879	9,6	601	9.516	6,3	1,5
DBH 4	723	7.395	9,8	590	9.377	6,3	1,6
LH + DBH guztira	9.490	95.515	9,9	4.802	100.564	4,8	2,1

2.1. eranskina. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen emaitza akademikoak geruzen arabera: a) hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen kopurua; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen kopurua. 2012-13 ikasturtea

Geruza	Ikastetxe kopurua	Ebaluatutako ikasleak		Hurrengo irakasmailara		Arlo guztiak gaindituta	
		K	% geruzan	K	%	K	%
A publikoa	30	530	2,7%	492	% 93	226	% 43
B publikoa	67	1.309	6,8%	1.245	% 95	865	% 66
D publikoa	265	7.851	40,5%	7.611	% 97	6.202	% 79
A itunpekoa	34	1.180	6,1%	1.160	% 98	928	% 79
B itunpekoa	102	4.120	21,2%	3.980	% 97	3.297	% 80
D itunpekoa	99	4.402	22,7%	4.320	% 98	3.811	% 87
Euskadi	519	19.392	100,0%	18.808	% 97	15.329	% 79

2.2. eranskina. DBHko 4. mailako ikasleen emaitza akademikoak geruzen arabera: a) graduatu titulua eskuratu duten ikasleen kopurua; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen kopurua. 2012-13 ikasturtea

Geruza	Ikastetxe kopurua	Ebaluatutako ikasleak		Hurrengo irakasmailara		Arlo guztiak gaindituta	
		K	% geruzan	K	%	K	% geruzan
A publikoa	28	826	5,0%	566	% 69	350	% 42
B publikoa	43	684	4,2%	568	% 83	399	% 58
D publikoa	110	5.749	34,9%	5.255	% 91	4.049	% 70
A itunpekoa	48	1.670	10,1%	1.501	% 90	1.121	% 67
B itunpekoa	109	3.710	22,5%	3.424	% 92	2.654	% 72
D itunpekoa	88	3.819	23,2%	3.628	% 95	2.949	% 77
Euskadi	323	16.459	100,0%	14.942	% 91	11.522	% 70

2.3 eranskina. Batxilergoko 2. mailako ikasleen emaitza akademikoak geruzen arabera. 2012-13 ikasturtea

	Ebaluatutako ikasleak		Titulua eskuratu dutenak	
	K	% geruzan	K	%
A publikoa	1.405	% 64	893	% 82
D publikoa	4.925	% 85	4.195	% 83
A itunpekoa	4.019	% 87	3.495	% 88
D itunpekoa	2.992	% 90	2.702	% 85
Euskadi	13.341	% 85	11.285	% 82

2.4. eranskina. LH 6ko eta DBH4ko ikasleen emaitza akademikoak geruzen arabera: a) hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen kopurua; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen kopurua. 2012-13 ikasturtea

Irakasmaila	Lurraldea	Ikastetxeak K	Ebaluat. ikasleak	Hurrengo irakasmailara		Arlo guztiak gaind.	
				K	%	K	%
LH 6	Araba	78	2.816	2.745	% 97	2.149	% 76
	Bizkaia	267	9.933	9.599	% 97	7.788	% 78
	Gipuzkoa	174	6.643	6.464	% 97	5.392	% 81
	Euskadi	519	19.392	18.808	% 97	15.329	% 79
DBH 4	Araba	43	2.383	2.097	% 88	1.581	% 66
	Bizkaia	167	8.261	7.399	% 90	5.608	% 68
	Gipuzkoa	112	5.815	5.446	% 94	4.333	% 75
	Euskadi	323	16.459	14.942	% 91	11.522	% 70

2.5 eranskina, **13. maparako**. LH 6ko ikasleen emaitza akademikoak eskola-guneen arabera:
a) hurrengo irakasmailara igaro diren ikasleen kopurua; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen kopurua. 2012-13 ikasturtea

		Ikastetx.	Ikasleak	Hurrengo irakasmailara		Arlo guztiak gainditu	
				K	%	nK	%
111	Amurrio	7	135	134	% 99	108	% 80
112	Laudio	6	175	171	% 98	139	% 79
121	Vitoria-Mendeb.	13	549	532	% 97	391	% 71
122	Vitoria-Ipar.	11	487	474	% 97	359	% 74
123	Vitoria-Hegoek.	27	1.219	1.191	% 98	973	% 80
125-131-141	Araba gainerakoa	14	251	243	% 97	179	% 71
211	Arrasate	10	428	408	% 95	334	% 78
212	Bergara	6	201	199	% 99	153	% 76
221	Eibar	7	226	214	% 95	174	% 77
222	Elgoibar	6	221	215	% 97	168	% 76
231	Oria Garaia	16	411	407	% 99	360	% 88
232	Urola Garaia	5	248	242	% 98	196	% 79
241	Urola Erdia	8	308	299	% 97	248	% 81
242	Kosta	13	435	427	% 98	357	% 82
251	Tolosa	22	484	474	% 98	422	% 87
261-262	Hernani / Lasartealde	9	373	366	% 98	294	% 79
263	Andoain	4	156	153	% 98	138	% 88
271	Donostia – Ezkerrald.	23	1.112	1.084	% 97	951	% 86
272	Donostia – Eskuinaldea	10	446	439	% 98	359	% 80
273	Donostia – Ekiald.	10	286	273	% 95	208	% 73
281	Errenteria	12	633	613	% 97	494	% 78
291	Bidasoa	13	675	651	% 96	536	% 79
311	Bermeo	4	177	164	% 93	146	% 82
312	Urdaibai	8	237	231	% 97	204	% 86
321	Lea-Artibai	13	238	232	% 97	189	% 79
331	Amorebieta	5	243	240	% 99	215	% 88
332	Durango	17	550	540	% 98	456	% 83
333	Ermua	5	169	168	% 99	139	% 82
341	Igorre	7	129	123	% 95	101	% 78
342	Galdakao	5	214	210	% 98	181	% 85
351	Arrigorriaga	5	168	159	% 95	132	% 79
352	Basauri	10	363	340	% 94	251	% 69
361	Enkarterri	11	223	216	% 97	184	% 83
371	Trapaga	7	175	169	% 97	136	% 78
372	Abanto	7	195	186	% 95	151	% 77
381	Txorierrri	12	756	748	% 99	655	% 87
382	Mungia	7	234	228	% 97	200	% 85
391-392	Leioa-Getxo	26	1.050	1.026	% 98	885	% 84
393	Uribe-Kosta	6	190	184	% 97	132	% 69
394	Erandio	4	145	138	% 95	104	% 72
411	Barakaldo	15	538	518	% 96	388	% 72
412	Cruces	7	302	290	% 96	237	% 78
421	Sestao	5	204	196	% 96	147	% 72
422	Portugalete	8	395	382	% 97	327	% 83
423	Santurtzi	10	351	335	% 95	249	% 71
B-1	Deustu	9	382	370	% 97	295	% 77
B-2	Uribarri	11	428	412	% 96	328	% 77
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	8	336	328	% 98	226	% 67
B-4	Begoña	5	237	223	% 94	183	% 77
B-5	Ibaiondo	11	473	449	% 95	342	% 72
B-6	Abando	9	553	531	% 96	437	% 79
B-7 / B-8	Rekalde / Basurtu-Zorrotza	10	278	263	% 95	168	% 60
	Euskadi	519	19.392	18.808	% 97	15.329	% 79

2.6 eranskina, **14. maparako**. DBH 4ko ikasleen emaitza akademikoak eskola-guneen arabera:
a) graduatu titulua eskuratu duten ikasleen kopurua; b) arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen kopurua. 2012-13 ikasturtea

		Ikastetx.	Ikasleak	Titulua eskuratu		Arlo guztiak gainditu	
				K	%	K	%
111 / 112	Amurrio / Laudio	6	261	231	% 89	171	% 66
121	Vitoria-Mendeb.	8	537	473	% 88	343	% 64
122	Vitoria-Ipar.	6	366	332	% 91	249	% 68
123	Vitoria-Hegoek.	15	1021	894	% 88	701	% 69
124/125/131/141	Araba gainerakoa*	8	198	167	% 84	117	% 59
211	Arrasate	7	339	325	% 96	243	% 72
212	Bergara	4	212	198	% 93	157	% 74
221	Eibar	4	202	184	% 91	138	% 68
222	Elgoibar	4	148	141	% 95	116	% 78
231	Oria Garaia	5	374	356	% 95	302	% 81
232	Urola Garaia	5	209	185	% 89	158	% 76
241	Urola Erdia	5	282	267	% 95	222	% 79
242	Kosta	7	413	393	% 95	301	% 73
251	Tolosa	8	419	387	% 92	313	% 75
261 / 262	Hernani / Lasartealde	6	280	265	% 95	220	% 79
263	Andoain	4	157	143	% 91	107	% 68
271	Donostia – Ezkerrald.	16	998	959	% 96	794	% 80
272	Donostia – Eskuinaldea	8	431	405	% 94	306	% 71
273	Donostia – Ekiald.	7	249	219	% 88	156	% 63
281	Erreterria	11	521	479	% 92	397	% 76
291	Bidasoa	11	581	540	% 93	403	% 69
311 / 312	Bermeo / Urdaibai	8	347	318	% 92	238	% 69
321	Lea-Artibai	7	198	182	% 92	132	% 67
331	Amorebieta	5	242	223	% 92	167	% 69
332 / 333	Durango / Ermua	14	528	481	% 91	383	% 73
341 / 342	Igorre / Galdakao	4	251	245	% 98	199	% 79
351 / 352	Arrigorriaga / Basauri	8	424	358	% 84	256	% 60
361	Enkarterri	7	162	142	% 88	104	% 64
371 / 372	Trapaga / Abanto	8	247	220	% 89	153	% 62
381 / 382	Txorierri / Mungia	10	803	758	% 94	638	% 79
391-392	Leioa-Getxo	14	937	833	% 89	659	% 70
393 / 394	Uribe-Kosta / Erandio	6	244	207	% 85	151	% 62
411	Barakaldo	9	418	351	% 84	236	% 56
412	Cruces	5	227	202	% 89	158	% 70
421	Sestao	4	175	155	% 89	117	% 67
422	Portugalete	6	358	323	% 90	256	% 72
423	Santurtzi	7	254	228	% 90	176	% 69
B-1	Deustu	7	327	311	% 95	230	% 70
B-2	Uribarri	8	394	355	% 90	239	% 61
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	6	349	262	% 75	197	% 56
B-4	Begoña	4	245	228	% 93	168	% 69
B-5	Ibaiondo	7	303	272	% 90	201	% 66
B-6	Abando	8	650	591	% 91	446	% 69
B-7 / B-8	Errekalde/Basurtu-Zorrot.	5	178	154	% 87	104	% 58
	Euskadi	322	16.459	14.942	% 91	11.522	% 70

Curriculum anitzeko ikasleak barne

Atzerriko hiru ikastetxeetako ikasleak ez dira sartzen

“Araba gainerakoa”n lau eskualde sartzen dira: Arabako mendiak, Araba-Mendebaldea, Arabako Errioxa eta Ekialdeko Lautada

El alumnado del centro CPES Egibide se distribuye de manera proporcional entre las tres zonas de Vitoria-Gasteiz

2.7 eranskina 15. maparako. 20112-13 ikasturtean prestakuntza eta berrikuntza plana gauzatu duten LHko eta DBHko ikastetxeen ehunekoa eskola-guneen arabera

	<i>Zona escolar</i>	<i>Proiektu kop.</i>	<i>Ikastetxe kop</i>	<i>Proiektua egin duten ikastetxeen %</i>
111	Amurrio	7	8	% 88
112	Laudio	4	7	% 57
121	Vitoria-Mendeb.	17	19	% 89
122	Vitoria-Ipar.	10	14	% 71
123	Vitoria-Hegoek.	24	32	% 75
124	Arabako mendiak	3	3	%100
125	Araba-Mendeb.	5	5	%100
131	Arabako Errioxa	8	9	% 89
141	Ekialdeko lautada	3	4	% 75
211	Arrasate	10	13	% 77
212	Bergara	4	9	% 44
221	Eibar	9	12	% 75
222	Elgoibar	4	9	% 44
231	Oria Garaia	16	20	% 80
232	Urola Garaia	6	7	% 86
241	Urola Erdia	9	10	% 90
242	Kosta	12	16	% 75
251	Tolosa	25	28	% 89
261	Hernani	4	8	% 50
262	Lasartealde	6	7	% 86
263	Andoain	4	6	% 67
271	Donostia-Ezkerraldea	16	27	% 59
272	Donostia-Eskuinaldea	7	12	% 58
273	Donostia-Ekialdea	7	12	% 58
281	Errenteria	13	18	% 72
291	Bidasoa	21	21	%100
311	Bermeo	5	5	%100
312	Urdaibai	8	10	% 80
321	Lea-Artibai	14	16	% 88
331	Amorebieta	2	6	% 33
332	Durango	16	21	% 76
333	Ermua	7	7	%100
341	Igorre	6	8	% 75
342	Galdakao	4	8	% 50
351	Arrigorriaga	4	6	% 67
352	Basauri	7	14	% 50
361	Enkarterri	8	16	% 50
371	Trapaga	6	9	% 67
372	Abanto	4	9	% 44
381	Txorierra	4	11	% 36
382	Mungia	6	8	% 75
391-392	Leioa-Getxo	18	29	% 62
393	Uribe-Kosta	6	8	% 75
394	Erandio	2	7	% 29
411	Barakaldo	9	18	% 50
412	Cruces	5	8	% 63
421	Sestao	5	8	% 63
422	Portugalete	9	11	% 82
423	Santurtzi	11	12	% 92
B-1	Deustu	6	11	% 55
B-2	Uribarri	8	12	% 67
B-3	Txurdinaga-Otxarkoaga	7	11	% 64
B-4	Begoña	3	7	% 43
B-5	Ibaiondo	6	13	% 46
B-6	Abando	8	11	% 73
B-7	Errekalde	5	9	% 56
B-8	Basurtu-Zorrotza	4	4	%100
	Euskadi	467	671	% 70

3.1. eranskina. a) 1. Kapituluaren banaketa kontzeptuen arabera programa bakoitzean. 2011-2012 bilakaera (mila €tan) (5 programa)

	<i>Egitura eta laguntza</i>			<i>Haur eta Lehen Hezkuntza</i>			<i>Bigarren Hezkuntza</i>			<i>Araubide Bereziko Hezkuntza</i>			<i>Hezkuntza Berriztatzea eta Etengabeko Prestakuntza</i>		
	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11
Goi-karguak (1)	1.210	1.165	-3,7	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Behin-betiko langileak (2)	511	449	-12,1	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--
Funtzionarioen ordainsariak (1)	19.056	18.306	-3,9	336.892	318.979	-5,3	371.883	351.080	-5,6	20.830	20.569	-1,3	23.509	21.349	-9,2
Bitartekoak (2)	1.029	339	-67,1	8	13	62,5	236	179	-24,2	71	10	-85,9	--	--	--
Ordezkapenak (3)	1.265	763	-39,7	38.746	32.514	-16,1	27.392	22.856	-16,6	2.218	1.820	-17,9	791	1.210	53,0
Lan-legepekoen ordainsariak (1)	602	564	-6,3	23.789	24.500	3,0	17.097	17.129	0,2	2.804	2.417	-13,8	460	434	-5,7
Aldi baterako lan-legepekoen ordainsariak (2)	--	--	--	6.318	6.188	-2,1	197	166	-15,7	--	--	--	--	--	--
Ordezkapenak (3)	37	2	-94,6	3.986	3.369	-15,5	2.177	1.851	-15,0	345	257	-25,5	13	13	0,0
Kotizazio sozialak	5.136	4.843	-5,7	81.942	81.959	0,0	76.715	78.333	2,1	6.402	6.346	-0,9	2.441	2.887	18,3
Indemnitazioak	165	9	-94,5	11.074	2.136	-80,7	17.021	3.513	-79,4	441	43	-90,2	2.363	176	-92,6
Sist. osagarriako. ekarpenak (4)	397	3	-99,2	6.626	143	-97,8	6.583	160	-97,6	409	12	-97,1	380	3	-99,2
Bestelako gastu sozialak (4)	63	47	-25,4	254	325	28,0	716	792	10,6	17	16	-5,9	14	14	0,0
1. kapitulua guztira	29.471	26.490	-10,1	509.635	470.126	-7,8	520.017	476.059	-8,5	33.537	31.490	-6,1	29.971	26.086	-13,0

3.1. eranskina. b) 1. Kapitulua ren banaketa kontzeptuen arabera programa bakoitzean. 2011-2012 bilakaera (mila €tan) (3 programa eta guztizkoa)

	<i>Etengabeko Prestakuntza eta Helduen Hezkuntza</i>			<i>Hezkuntza Sustapena</i>			<i>Euskalduntzea</i>			<i>Programa guztiak</i>		
	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %	2011	2012	Δ 12/11 %
Goi-karguak (1)	--	--	--	--	--	--	--	--	--	1.210	1.165	-3,7
Behin-betiko langileak (2)	--	--	--	--	--	--	--	--	--	511	449	-12,1
Funtzionarioen ordainsariak (1)	27.231	25.686	-5,7	--	--	--	9.561	6.900	-27,8	808.962	762.869	-5,7
Bitartekoak (2)	--	--	--	--	--	--	--	--	--	1.344	541	-59,7
Ordezkapenak (3)	2.116	2.076	-1,9	--	--	--	945	198	-79,0	73.473	61.437	-16,4
Lan-legepekoen ordainsariak (1)	28	12	-57,1	7.615	7.033	-7,6	373	674	80,7	52.768	52.763	0,0
Aldi baterako lan-legepekoen ordainsariak (2)	--	--	--	556	671	20,7	--	--	--	7.071	7.025	-0,7
Ordezkapenak (3)	--	--	--	2.125	1.770	-16,7	22	--	--	8.705	7.262	-16,6
Kotizazio sozialak	3.880	3.944	1,6	3.484	3.408	-2,2	2.015	1521	-24,5	182.015	183.241	0,7
Indemnizazioak	2.043	352	-82,8	161	116	-28,0	153	83	-45,8	33.421	6.428	-80,8
Sist. osagarriako. ekarpenak (4)	453	10	-97,8	164	6	-96,3	164	2	-98,8	15.176	339	-97,8
Bestelako gastu sozialak (4)	9	--	--	87	87	0,0	16	9	-43,8	1.176	1.290	9,7
1. kapitulua guztira	35.760	32.080	-10,3	14.192	13.091	-7,8	13.249	9.387	-29,1	1.185.832	1.084.809	-8,5

3.2 eranskina. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantila osoa eta irakasle/unitate (16. mapa), ikasle/gela eta ikasle/irakasle ratioak (17. mapa) eskola-guneen arabera. 2012-13 ikasturtea,

	<i>Eskola-gunea eta kodea</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Plantila osoa</i>	<i>unit.</i>	<i>ikasl.</i>	<i>Irak/unit. ratioa</i>	<i>Ikasl/gela ratioa</i>	<i>Ikasl/irak ratioa</i>
111	Amurrio	4	80,3	45	731	1,75	15,9	9,1
112	Laudio	4	84,8	51	869	1,66	17,0	10,2
121	Vitoria-Mendebald.	12	401,8	234	4.666	1,68	20,0	11,9
122	Vitoria-Iparrald.	12	346	201	4.084	1,71	20,2	11,8
123	Vitoria-Hegoekiald.	13	458,2	260	5.247	1,74	20,0	11,5
124	Arabako mendiak	2	26,5	15	202	1,77	13,5	7,6
125	Araba-Mendeb.	3	79,3	46	779	1,69	16,6	9,8
131	Arabako Errioxa	5	97	54	807	1,76	14,7	8,3
141	Ekialdeko lautada	2	59,5	37	695	1,61	18,8	11,7
211	Arrasate	4	147,8	90	1.682	1,64	18,7	11,4
212	Bergara	5	116,9	72	1.291	1,62	17,9	11,0
221	Eibar	5	150,6	87	1.703	1,73	19,6	11,3
222	Elgoibar	4	142	90	1.653	1,58	18,4	11,6
231	Oria Garaia	14	301,9	182	2.959	1,66	16,3	9,8
232	Urola Garaia	2	85,8	52	959	1,65	18,4	11,2
241	Urola Erdia	3	131,7	83	1.714	1,59	20,7	13,0
242	Kostaldea	11	235,7	150	2.636	1,57	17,6	11,2
251	Tolosaldea	19	313,2	188	3.126	1,67	16,6	10,0
261	Hernani	3	97,8	61	1.290	1,60	21,1	13,2
262	Lasartealdea	4	111,4	69	1.435	1,61	20,8	12,9
263	Andoain	1	26	14	231	1,86	16,5	8,9
271	Donostia-M. Izquierd	10	376,1	228	4.243	1,65	18,6	11,3
272	Donostia-Eskuinald.ech	2	89,5	54	1.050	1,66	19,4	11,7
273	Donostia-Eki.	7	192,8	113	1.855	1,71	16,4	9,6
281	Rentería	6	250,3	154	2.946	1,63	19,1	11,8
291	Bidasoa	8	360,7	217	4.490	1,66	20,7	12,4
311	Bermeo	2	65,5	40	755	1,64	18,9	11,5
312	Urdaibai	5	126,9	73	1.287	1,74	17,6	10,1
321	Lea-Artibai	9	158,4	94	1.557	1,69	16,6	9,8
331	Amorebieta	1	64,5	39	791	1,61	19,9	12,3
332	Durango	11	325,6	196	3.657	1,65	18,6	11,3
333	Ermua	3	89,5	52	978	1,69	18,5	11,0
341	Igorre	7	136,7	81	1.337	1,69	16,5	9,8
342	Galdakao	4	143,5	88	1.697	1,63	19,3	11,8
351	Arrigorriaga	6	166	102	1.818	1,63	17,8	11,0
352	Basauri	8	272,7	159	3.100	1,70	19,4	11,4
361	Enkarterri	9	197,8	115	2.017	1,72	17,5	10,2
371	Trapaga	3	46	26	441	1,77	17,0	9,6
372	Abanto	7	178,5	105	1.792	1,70	17,1	10,0
381	Txorierrri	5	135,5	83	1.525	1,63	18,4	11,3
382	Mungia	5	112,5	67	1.162	1,65	17,1	10,4
391-2	Leioa-Getxo	14	394,6	222	3.840	1,76	17,2	9,7
393	Uribe-Kosta	5	160	98	1.881	1,63	19,2	11,8
394	Erandio	3	110	65	1.221	1,67	18,6	11,1
411	Barakaldo	9	292,5	163	3.361	1,78	20,5	11,5
412	Cruces	3	100,5	58	1.035	1,70	17,6	10,3
421	Sestao	4	122,7	67	1.314	1,83	19,6	10,7
422	Portugalete	6	200,5	108	2.012	1,82	18,4	10,1
423	Santurtzi	4	143,5	79	1.609	1,82	20,4	11,2
D1	Deustu	5	158	91	1.775	1,72	19,3	11,3
D2	Uribarri	4	128,2	73	1.243	1,76	17,0	9,7

D3	Txurdinaga-Otxark.	5	133,2	69	1.147	1,90	16,5	8,6
D4	Begoña	3	101,5	60	1.221	1,69	20,4	12,0
D5	Ibaiondo	6	228	125	2.554	1,81	20,3	11,2
D6	Abando	3	121,8	67	1.229	1,79	18,1	10,1
D7	Errekalde	5	126	68	1.229	1,85	18,1	9,8
D8	Basurtu	3	101,2	57	952	1,78	16,7	9,4
Euskadi		332	9.605,4	5.659	104.960	1,70	18,6	10,9

3.3 eranskina. Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilaren banaketa hiru kategoriatan: karrerako funtzionarioak, praktiketako funtzionarioak eta behin-behineko irakasleak. 2008 eta 2013 arteko eboluzioa.

	<i>Plantila osoa</i>			<i>Haur eta Lehen Hezkuntza</i>			<i>Bigarren Hezkuntza</i>		
	<i>Karr. funtz.</i>	<i>Praktik. Funtz.</i>	<i>Behin-behinek.</i>	<i>Karr. funtz.</i>	<i>Praktik. Funtz.</i>	<i>Behin-behinek.</i>	<i>Karr. funtz.</i>	<i>Praktik. Funtz.</i>	<i>Behin-behinek.</i>
2008-09	13.821	515	5.798	6.926	2	3.066	6.302	493	2.681
2009-10	13.842	1.059	5.555	6.735	1.008	2.528	6.548	42	2.991
2010-11	14.405	415	5.386	7.509	7	2.687	6.329	406	2.669
2011-12	14.316	1.432	4.617	7.307	1.076	1.920	6.440	321	2.666
2012-13	15.316	526	4.294	8.203	164	1.838	6.504	347	2.426
2013-14	15.389	7	4.910	8.104	2	2.051	6.636	5	2.826
Δ 08/13	1.568	-508	-888	1.178	0	-1.015	334	-488	145
% Δ 08/13	% 11,3	% -98,6	% -15,3	% 17,0	% 0,0	% -33,1	% 5,3	% -99,0	% 5,4

Ez daude sartuta ikastetxeetan ez dauden irakasleak: Berritzeguneak, CRI...)

3.4 eranskina. Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilaren banaketa adin-tarte eta ikastetxe motaren arabera. 2012-13 ikasturtea

<i>adina</i>	<i>Haur eta Lehen H.</i>	<i>Bigarren H.</i>	<i>Besteak¹⁴</i>	<i>Guztira</i>
>25	11	3	0	14
26-30	470	103	27	600
31-35	1.394	537	58	1.989
36-40	1.754	867	113	2.734
41-45	888	1.226	126	2.240
46-50	1.728	1.907	290	3.925
51-55	3.076	2.509	496	6.081
56-60	1.861	2.127	525	4.513
61-65	390	612	147	1.149
66-70	10	34	21	65
Total	11.582	9.925	1.803	23.310

¹⁴ Helduen Hezkuntza, Hizkuntz Eskola Ofizialak, Musika Kontserbatorioak, Arte Eskolak, Berritzeguneak, ISEI-IVEI, CEIDA, Euskal Girotze Barnetegia, Irale, CRI, Ikuskaritza eta laguntzako beste postuak.

JUAN CARLOS CASTAÑO MORENO kontseilariak Hezkuntza Euskadin 2012-13 txostenari aurkeztutako BOTO PARTIKULARRA.

Eskola Kontseiluko presidenteari eta gainerako kideei zor zaien begiruneaz, Osoko Bilkuraren akordioarekiko nire desadostasuna eta aurkako jarrera adierazi nahi dut honako arrazoi hauetan oinarriturik:

Euskadiko Eskola Kontseiluak 2012-13 ikasturtean zehar aukera izan zuen Espainiako Gobernuak Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoa zela eta hartutako lehenengo erabakiei buruzko iritzia emateko. Izan ere, Kontseiluak bere iritzia bi aldiz adierazi zuen: 2012ko irailaren 27ko Osoko Bilkuran onetsitako txostenean, eta urte hartako urriaren 23ko Batzorde Iraunkorrean bere ekimenez onetsitako irizpenean, legearen aurreproiektua aztertzen zuena. Irizpenaren edukiaren aurkako neure boto partikularra adierazi nuen.

Euskadiko hezkuntzari buruzko 2012-2013 Txostenean berriro aztertu da gaia, txostenaren lehen atalean, plangintza izenburukoan, azpi-atal batean LOMCE lege organikoaren analisia jasotzen baitu.

Hori dela eta, atal horretan hainbat aspektu garrantzitsu aztertzen badira ere, hala nola jaiotza-tasa, eskola-matrikula, irakastereduak eta euskararen hizkuntza-adierazleak, ikasleen adierazle sozio-ekonomikoa eta araubide bereziko irakaskuntzak, eta LOMCE legea atalaren sei azpi-ataletako bakar bat izanik, oso deigarria da **ataleko ondorioetan eta proposamenetan parterik handiena onartutako eta bete beharreko lege bati buruzkoa izatea**, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko legea alegia, BOEn 2013ko abenduaren 10ean 8/2013 Lege Organiko bezala argitaratu zena.

Ondorio eta proposamen haietan legea, Euskadin behintzat, ez dela beharrezkoa argudiatu da, bertan finkatzen diren helburu ia guztiak lortuak baitira aurreko LOE lege organikoaren barruan.

Hori dela eta, kontuan izan beharko genuke Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ardura dela Espainiako Gobernuak hezkuntza, kultura eta kirolen arloan finkatzen duen politika AE guztietarako prestatzea, zuzentzea eta betearaztea. Beraz, horretan ez dago salbuespenerako zirrikiturik.

Era berean, ez luke inongo zentzurik izango EAEko hiru lurraldeetako batek edo hiriburu batek Hezkuntza Sailak finkatutako hezkuntza-arau bat betetzea ez dela beharrezkoa argudiatuko balu, adibidez, Vitoria-Gasteiz edo Bilbok helburu horiek ia oso-osorik lortu dituelako. Zentzugabekeria hutsa litzateke, funtsezko aspektu bat alde batera uzten baita: araua autonomia erkidego guztietan betearazi behar da, eta zalantzan jarritako aspektu asko multzo bati, eta ez parte bati bakarrik, aplikatzeko neurriak bezala hartzen baditugu, bere zentzu osoa hartzen du.

Izan ere, **LOMCE legea hezkuntza-egoera dramatiko batetik sortu da**: Espainiako hezkuntza-sistemak huts egiten du bikaintasun faltagatik; eskola-porrotaren indizeak eta eskola-uzte goiztiarrarenak Europar Batasuneko batez bestekoa baino bi aldiz altuagoak dira. Aurreko sistemak espainiar guztien arteko berdintasuna apurtu zuen: ikasleen ezagupen mailari dagokionez, autonomia erkidegoen arteko aldea ikasturte oso batekoa izatera heldu da.

Hori da bi hamarkadetan zehar indarrean izan den hezkuntza-eredu sozialistaren balantzea, eta eredia mantentzeak oso ondorio negatiboak izango lituzke gure herrialdearen hazkunde ekonomikoan; gazteen erdiak baino gehiagok eskola oso prestakuntza maila apalarekin eta hizkuntzen ezagupen kaskarrarekin uzten du. Gure hezkuntza-sistemak ikasleei funtsezko irakasgaietako ezagupenak (hizkuntza, matematika, zientzia) nola transmititzen dizkien ebaluatzen denean, onenengandik urrun geratzen gara behin eta berriro.

Gainera, Kontseiluak Sailari, legeak baimentzen duen heinean, LOMCE legearen ustezko ondorio kaltegarriak ahal den neurrian minimizatzeko eskatu dio. Euskadiko Eskola Kontseiluak, bereziki, helburu hori lehenesteko hitzeman du.

Proposamena arriskutsua da, ez beharrezkoa, eta aurretik juzgatzen du. Ez da beharrezkoa Legea nahitaez bete beharrezkoa delako, eta AE guztietako hezkuntza administrazioek bete eta betearazi behar dutelako, horretarako behar diren arauak garatuz. Beraz, hartzen den edozein neurri helburu hori lortzeko bideratua izan behar da ezinbestean.

Proposamen **arriskutsua** da, indarrean dagoen legea saihestea pentsatzen ari diren ikastetxeei laguntasun mezu okerra helarazi diezaiekeelako, horrela ikastetxe horietako hezkuntza-komunitateen multzoa beharrezkoa ez den arrisku batean jar dezakeelarik. Administrazioek laguntza leial eta eraikitzaileria eskaini behar dute. Nekez uler liteke, Bilboko Udaleko Eskola Kontseilutik, adibidez, Euskal Eskola Publikoaren Legearekiko antzeko kontsignak ematea, indarrean hogeitazortetik gora egoteagatik zaharkituta geratu delako.


Gainera, proposamenak ustezko emaitza bat **aurretik juzgatzen du**, juzgua ez baitago oinarrituta adierazle objektibo eta neurgarrietan. Legea oraintsu ezarri da, eta bere fruituak ikusi ahal izateko oraindik bide luzea egin beharko da.

Hezkuntza-arautegi berria arbuiaitzeko argudioetan nolabaiteko autokonplazentzia ikus daiteke gure erkidegoan lortutako emaitzekiko, hain konformista ez den analisi batek errealitate ukalezina islatu beharko luke: **Euskadin ikasleko gastua kontuan izanik, PISA ebaluazioko emaitzetan ELGAko lehen herrialdeen artean egon beharko genuke.** Zoritxarrez, ez da horrela gertatzen.

Hori dela eta, **ikasleko hezkuntza-gastu publikoaren Espainiako adierazleak** aukera ematen du eskualdeen arteko konparazioak egiteko, unibertsitatez kanpoko hezkuntzan aitortutako beharretan egindako gastu publikoari dagokionez. Ondorengo grafikoak Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-sistemaren egoeraz egindako 2013 Txostenekoak dira.

Ondorengo grafikoak hezkuntza-gastuaren adierazlea autonomia erkidegoetan nolakoa den erakusten du. Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa jasotzen du.

Gasto público por alumno en instituciones de educación no universitaria financiadas con fondos públicos por titularidad del centro y comunidad autónoma. Año 2010




< Datos figura B1.6 >

Fuente: Elaboración propia a partir de datos proporcionados por la Subdirección General de Estadística y Estudios del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Eskuratu dugun informazioaren arabera, nazio-lurraldean, batez beste, 6.433 euro gastatzen da unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasle bakoitzeko, EAEn baino askoz gutxiago.

Ondorengo grafikoak ikasleko gastu publikoaren eta ikasle/irakasle ratioaren arteko erlazioa azaltzen du, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan. Autonomia erkidego guztietan ikus dezakegu **Euskadi barrutitik kanpora dagoela**.

“Gasto público por alumno” vs. “número medio de alumnos por profesor” en centros públicos que imparten enseñanzas no universitarias por comunidad autónoma. Curso 2010-2011



< Datos figura B1.7 >

Fuente: Elaboración propia a partir de datos proporcionados por la Subdirección General de Estadística y Estudios del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Hau da, **Euskadin gainerako erkidegoetan baino askoz baliabide gehiago erabiltzen dira ikasleko gastu publikoan**, zenbait kasutan beste erkidego batzuetan antzerako emaitzak edo are hobeagoak lortzen diren arren. Izan ere, nazioarteko txostenek erakutsi dute autonomia erkidego batzuk duela zenbait urte Euskadiren oso azpitik zeudela, baina orain PISA ebaluazioaren zenbait adierazletan gure gainetik daudela. Eskualde horietan ikasleko gastua urtean txikiagoa da, baina guk baino emaitza hobeagoak lortzen dituzte.

Horregatik **ez da “autokonplazentzia” arriskutsuan erori behar**, Legean finkatutako adierazle europarrak direla eta “Euskadin gehienak lortuak daudela” esaten denean, beste autonomia batzuetan ere emaitza onak lortzen dituzte, ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar ez dutelarik.

Gehiago gastatzeak ez dakar emaitza hobeak lortzerik, eta hori ez da gure erkidegoan bakarrik gertatzen. 2000 eta 2012 artean Espainian hezkuntza-baliabideak % 35 handitu ziren eta ez zen emaitzarik lortu, zeren hezkuntzako inbertsioan, maila jakin batetik gora, askoz garrantzitsuagoa baita zertan gastatzen den zenbat gastatzen den baino.

Gainera, PISA ebaluazioaren txostenak dio lurraldeen arteko aldean % 95 indize sozio-ekonomikoaren ondorio direla. Eta horrek azaldu litzake iparraldeko eta hegoaldeko zenbait erkidegoren arteko aldeak, Euskadiren eta beste erkidego batzuen arteko aldeak.

Beste alde batetik, kanpoko ebaluazioak zalantzan jartzen dira behin eta berriro. Bide batez, **ebaluazioak direla esan behar da, ez “errebalidak”**. Errebalida Fernando de los Rios II. Errepublikako ministro jaunaren asmakizuna izan zen, eta nekez uler daiteke Eskola Kontseiluaren akordioan zergatik erabili den II. Errepublikako ministroaren terminoa, Legean erabili den “ebaluazio” terminoaren ordeaz. Euskadiko Eskola Kontseilua hezkuntza-komunitatearen partaidetza-organorik gorena da, eta, beraz, bere txostenetan terminologia zehatza erabili beharko luke.

Horrez gain, eta **kanpoko ebaluazio estandarizatuak** dagokienez, esan beharra dago LOMCE legean hartu diren neurririk garrantzitsuenetakoak direla. Kanpoko ebaluazio estandarizatuak finkatu dituzten ELGAko herrialde guztietan hurrengo hiru urteetan ikasleen konpetentzien hobekuntza bat izan da, % 20ko igoera emaitzetan. ELGAko hogeit hamar herrialdeetako ikasleei egiten zaizkie horrelako ebaluazioak, eta ebidentziek erakutsi dute horien eragina gutxienez hamasei puntuko hobekuntza izan dela PISA ebaluazioaren irizpideen arabera.

LOMCE legeak ikasleen ikasketen bide-seinaleak jartzea planteatzen du, ebaluazio diagnostikoen bidez eta zentsu mailako bukaerako ebaluazioen bidez, berdinak Estatu osorako. Hezkuntza-sistemetan ebaluazioak egoteak ikasleen eta irakasleen konpromiso handiagoa dakar, eta, baita ere, motibazioa eta bikaintasuna areagotzea, eta ikasleen emaitzen hobekuntza nabarmena. Ezin dugu jarraitu erdipurdikotasunean ainguraturik. Ebaluazioen helburua hezkuntza-sisteman zorrotasuna ekartzea da, eta titulu batek leku guztietan balio bera izan dezan.

Nazioarteko ebaluazioek bi gauza erakutsi dute: lehena, Espainiako hezkuntza-sistemak, baliabide nahikoak izan arren, ez duela emaitza onik lortzen (PISA ebaluazioak, eta batez ere PIRLS eta TIMSS Lehen Hezkuntzako ebaluazioak); eta

bigarrena, pertsona helduen konpetentziak, aurreko hezkuntza-sistemen ondorioz, bereziki desegokiak direla. Euskadi, lehen aipatutako aspektuetan, ez dago errealitate horretatik kanpo.

“Segregazio” termino desegokiari dagokionez, Europako hezkuntza-sistemetara hurbiltzen gaituen funtsezko neurria da, sistema barruko mugikortasuna errazten baitu. Hezkuntza-sistemak, egituraturik dagoen bezala, ikasleei ez die inoiz kentzen balio dien ikasketa-ibilbidea bilatzeko aukera. Sistemaren zurruntasunak, ikasleen itxaropenak finkatutako markoari egokitzen ez zaizkionean, baztertu egiten ditu ikasle horiek. Ibilbide batzuen artean hautatu ahal izateak hezkuntza-sisteman geratzeko aukera handiagoa ematen die, eta, beraz, garapen pertsonalerako eta lanbide-garapenerako aukera handiagoa.

Emaitza onak lortzen dituzten Europako herrialdeetan ikasleek prestakuntza akademikoa edo prestakuntza aplikatua hautatu dezakete are 16 urte bete aurretik. Beraz, “derrigorrezko eskolatzean ikasleak irakaskuntza ezberdinetan goiz banatzeko neurria atzerapauso bat da oraingo eskola muinbakarraren sistemarekiko” dioten baieztapenak Europako errealitatetik eta bere hezkuntza-arrakastetatik urrun daude.

Beste alde batetik, enborreko irakasgaien zurruntasuna aipatzen da, ez baitu aukerarik ematen ikastetxeek eta irakasle-taldeek curriculumak euren errealitatera egokitu dezaten. Baina errealitatea oso bestelakoa da, Gobernuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren bidez finkatutako arauen eta mugen barnean, hezkuntza-administrazioek enborreko irakasgaien multzoko edukiak osatu egin ahal izango dituzte, eta, baita ere, irakasgai espezifikoaren multzoko edukiak eta erkidegoek konfiguratzeko irakasgaien multzoko edukiak finkatu, euren esparruko ikastetxeei metodologiari buruzko aholkuak eman, eta enborreko irakasgaietako, irakasgai espezifikoetako eta erkidegoek konfiguratzeko irakasgaietako gehieneko ordu-kopurua finkatu. Eta etapan zeharreko ebaluazioari dagokionez, enborreko irakasgaien eta irakasgai espezifikoaren multzoetako ebaluazio-irizpideak osatu ahal izango dituzte, bai eta erkidegoek konfiguratzeko irakasgaien multzoko ebaluazio-irizpideak finkatu ere. Horrez gain, erkidegoek konfiguratzeko irakasgaien multzoko edukien ebaluazioan eskuratze-estandarrak finkatu ahal izango dituzte.

Gainera, hezkuntza-administrazio bakoitzak finkatzen duen hezkuntza-eskaintzaren programazioaren arabera, ikastetxeek enborreko irakasgaien, irakasgai espezifikoaren eta erkidegoek konfiguratzeko irakasgaien multzoetako edukiak osatu ahal izango dituzte, hezkuntza-eskaintza taxutu, euren metodo pedagogiko eta didaktikoak diseinatu eta irakasgai bakoitzeko ordu-kopurua finkatu.

Izan ere, LOMCE legeak ikastetxeetan autonomiaren aldeko apustua egiten du, ELGAK ikastetxeetako emaitzak hobetzeari begira behin eta berriro emandako aholkua delako, eta kontuak ematerakoan ezinbestean gardentasun handiagoa eskatzeari lotua dagoelako.

Ildo horretatik, zuzendaritzaren lana indartu egiten da zuzendaria izan baino lehen ziurtagiria lortzeko sistema baten bidez, eta protokolo bat finkatu da hartutako erabakiei, kalitatea areagotzeko jardueri eta jardura horiekin lortutako emaitzei buruzko kontuak emateko.

Zuzendaritzaren lanaren aldeko apustua ez da inondik ere alderdi negatibo bat, txostenaren ondorioetan aditzera ematen den bezala, gure ikastetxeetan emaitza hobeak lortzea ekarriko baitu eta, baita ere, zuzendariaren figurari garrantzi handiagoa ematea. Bi ondorio horiek oso onuragarriak izango dira, batez ere Euskadiko zenbait ikastetxetan, PISA ebaluazioetan emaitza eskasak lortzen baitituzte eta zuzendaria izateko hautagai bezala inor ez baita aurkezten.

Txostenean egindako analisisan adierazten denaren aurka, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Legeari eusten dioten bost zutabeek hezkuntza-sistemaren egiturari irimotasuna ematen diote, eta nazio mailako eta nazioarte mailako txostenetan irizpide objektiboekin adierazitako ahulguneei erantzuna ematen diote.

1. Lehen zutabea, eta legearen helbururik behinena, gure haurren eta gazteen hezkuntzarako eskubidea bermatzea da, ikasleak bere prestakuntza-ibilbidean jarraitu dezan bermatzea eta indartzea, eta bizitzan osoan zeharko prestakuntzarako eta bere garapen pertsonal eta profesional osorako behar dituen baliabideak ematea, bere beharrak, interesak, talentua, gaitasunak eta itxaropenak kontuan izanik.

Nekez onar dezakegu gure gizartearen etorkizunak duen oztoporik handiena, Espainiako biztanleen % 25ek gutxienez helduarora behar bezalako hezkuntzarik gabe heltzea alegia. Nekez onar dezakegu biztanleak jasotako hezkuntzaren arabera lehen edo bigarren mailakotzat bereiztea normaltasunez onartzen duen sistema bat, behar bezala prestaturik daudenak eta ez daudenak bereiztea. Gaur egungo bazterkeria eta talentu-galera saihestezintzat edo hezkuntza-sistematik kanpoko arrazoien ondorioztat hartzen duen egoerari erantzukizun moralagatik aurre egin behar diogu.

Gure hezkuntza-sistemaren kalitatearen eta bikaintasunaren alde apustu egiteko garaia da, ahaleginaren eta erantzukizunaren balioak berreskuratzeko, eta irakaslanari prestigioa emateko, hezkuntzarako eskubide erreala bermatzeari begira hobekuntza-elementu garrantzitsuak baitira.

2. Legearen bigarren zutabea hezkuntza-sistemaren malgutasuna eta sistema barruko mugikortasuna da. Malgutasuna ikasleak, Bigarren Hezkuntzako bide akademikoen bidez, Batxilergoko modalitateen aukera handiaren bidez eta Oinarrizko Lanbide Heziketan hasten den lanbide-prestakuntza sendoago eta kohesionatuagoaren bidez, bere gaitasunen, beharren eta interesen arabera ibilbiderik egokiena aukeratzeko duen ahalmena litzateke.

Malgutasuna hezkuntza-administrazioek eta ikastetxeek, espezializazioaren bidez, kalitatea hobetzeko ekintzen bidez, eta curriculum, pedagogia, metodologia edo kudeaketarako proposamenen bidez, gizartearen eta familien eskariei erantzuteko duten ahalmena litzateke.

Sistema barruko mugikortasuna ikasketen arteko pasabideak finkatzea litzateke, pasabideek eskola-uzte goiztiarrean, ikasketa-ibilbideak goizegi ixteagatik, eragina izan dezaketen zurruntasunak kendu egingo bailituzkete; halaber, aukerako bideak eta laguntza osagarriak garatzea litzateke, ikasle guztiek ikasketa-mota bakoitzean beharrezkoak diren konpetentziak, banakako arreta indartuz, garatu ditzaten.

3. Hirugarren zutabea hezkuntza-administrazioek eta ikastetxeek, hezkuntza-zerbitzua eskaintzeko erantzule gisa, onartu behar dituzten autonomia eta eskumenak lirateke. Autonomia handiagoa izateak berekin dakar kontuak eman

beharra eta, baita ere, lortutako emaitzen erantzukizuna. Hezkuntza-baliabide publikoen kudeaketa hobetzeak garrantzi handiagoa ematen die autonomia handiagoari eta erabakiak hartzeko eskumen handiagoak izateari.

Gainera, gaur egun bizi dugun gizarte-aldaketa kontuan izanik, funtsezkoa da familiei, eta oro har gizarte osoari, hezkuntzaren esparruan parte hartzeko bideak eta hautatzeko aukerak eskaintzea, eta, horrekin batera, kudeaketaren gardentasuna sustatzea eta ebaluazioei buruzko informazioa jakinaraztea. Kontuak ematea eta parte hartzea ezinbesteko tresnak dira hezkuntza-sistema hobetzeko.

LOMCE legearen helburu nagusiak irakasleek hezkuntza-prozesuan duten zeregina eta benetako lidergoa erraztea eta familiek eta gizarte osoak hezkuntzan duten inplikazioa sustatzea. Hezkuntzaren hobekuntza gizarte osoak nahi eta onartzen duen proiektua izan behar da.

4. Laugarren zutabea oinarritzko irakaskuntza komuna finkatzea da, ebaluazio diagnostikoen eta bukaerako bidez eta konpetentzietan oinarritutako ikuspegi baten bidez, ikasketen bide-seinaleak finkatzea. LOMCE legeak hezkuntza-sistemaren berrantolaketa bat proposatzen du, espainiar guztiek hezkuntzarako duten funtsezko eskubideari, jaiolekua eta bizilekua gorabehera, kohesio handiagoa emateko. Legeak espainiar guztien arteko aukera-berdintasuna lortu nahi du.

Legearen helburuetako bat hezkuntza-sistemaren eskakizunak eta baldintzak lurralde osoan homogeneousatzea da, autonomia erkidegoen eskumenak errespetatuz, tituluak lurralde nazional osoan ofizialak eta baliodunak izan daitezen bermatzeko.

PISA ebaluazioetako emaitzetan autonomia erkidegoen arteko puntuazio-aldeak handiak izaten dira, ikasturte oso batekoak izatera heldu direlarik. Baina ezberdintasunak ez dira bakarrik adierazten lortutako emaitzetan, baizik eta sistema osoaren arkitekturan: graduatu-tasetan, prestakuntza-eskaintzan (batez ere Lanbide Heziketan), eskola-uzte eta prestakuntza-uzte goiztiarraren tasan, irakasmailarekiko adin egokikoen tasan eta abarretan.

5. Bosgarren zutabea elementu guztien arteko oreka da, hezkuntza-sistema eguneratzeko eta XXI. mendeko gizarteko erronkei egokitzeko. Informazioaren eta ezagutzaren gizartean hazkunde jasangarri, zentzuzko eta integratzailearen motorra hezkuntza da.

Zentzuzko hazkundeak errendimendua hobetzea esan nahi du, bai hezkuntzan (pertsonak ikastera eta ezagupenak eguneratzera bultzatzea), bai ikerketan eta berrikuntzan (hazkundera eta enplegua sortzen duten eta gizarteko erronkei aurre egiten laguntzen duten produktu eta zerbitzu berriak sortzea), bai gizarte digitalean (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea). Hazkunde horrek etorkizunari begira hezte da.

Herrialde garatu gehienek hezkuntza-sistemaren erreforma sakonak abiarazi dituzte gero eta mundu globalizatuagoan, interkonektatuagoan eta irekiagoan gertatzen ari diren erabateko aldaketei aurre egiteko. Erreforma horiek ikasleei, errealitate arin eta aldakorrean, garapen pertsonal osorako behar dituzten ezagupenak, konpetentziak eta balioak eman nahi dizkie, eta, baita ere, gero eta ekonomia lehiakorragoan enplegua lortzeko aukera.

Herritarrak hezteko erreforma horien guztien giltzarriak teknologien erabilera, irakasleen garrantzia, gauzak eginez ikastea eta konpetentzien garapena dira. LOMCE legeak Europar Batasunean, UNESCOn eta ELGAN bultzatzen ari diren erreformak bildu eta Espainiara ekarri ditu. Herrialde horiek XXI. mendeko aitzindariak izan nahi dute, eta LOMCE legeak eraikitzen ari diren etorkizun horretara hurbiltzen gaitu.

Laburbilduz, **LOMCE legeak hitzez hitz errespetatzen ditu Euskadiko Autonomia Estatutuan xedatzen diren eskumen guztiak**, eta ez da inondik inora gure hezkuntza-sistemaren hobekuntzarako oztopoa. Aitzitik, orain arte lortutako emaitzak hobetzeko eta finkatzeko aukera egokia izan daiteke.

LOMCE legearen aplikazioaren analisi honen ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluak, autonomia erkidego gehienek bezala, legea betearazteko behar diren neurri guztiak hartu beharko lituzke.

Hala eta guztiz ere, aztertutako argudioak gorabehera, Kontseiluaren proposamenak oso bestelakoak dira, LOMCE legearen ustezko ondorio kaltegarriak ahal den neurrian minimizatzea helburu nagusitzat hartu baitu.

Guztiagatik, **kontseilari honek Euskadiko Eskola Kontseiluak Euskadiko hezkuntzaren egoerari buruz egindako 2012-2013 Txostenaren kontrako botoa adierazi nahi du.**

Juan Carlos Castaño Moreno. Bilbo, 2014ko abenduaren 19